



Elkarretaratzea, Antzuolan. | AMAIA TXINTXURRETA

Lan-istripua ikertzeko eskaera

33 urteko langilea hil da, Antzuolan | 25

Bihar, zapatua, estreinatuko du
kategoria Ford Mugarrik | 28



Herriko kultura eta ondarea
ezagutzeko eguna, Bergaran | 16



Datorren hilabetea gako da
ibarreko txakolin ekoizleentzat | 2



BESTE ERA BATERA MUGITZEA POSIBLE DA

Mugikortasun Astearekin bat eginez autoa ez den
garraio alternatiboen alde egin dute Debagoienez | 14

Hiru lagun Birzikleta Azokarako herritarrek eramandako bizikletekin, Arrasaten. | JAGOBA DOMINGO

Debagoiendarrak ere izango dira izar egunotan, Zinemaldiaren distiran

Mireia Gabilondoren *Amaren eskuak* luzea lehiakideen artean dago, Zabaltegi sailean, irailaren 24an. Eta lehiaketaz kanpo bada ere, Asier Altuna *Kixi*-ren *Zela* trofke film laburra ere erakutsiko dute; gainera, Altuna bera epaimahai-kide ere bada. | 31

SINADURAK

Bost urte eta bost egun | 6
LANDER BELOKI

6 | Gurea ala alabaren aukera?
AITZIBER ARANBURUZABALA

Ez etxean geratu | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

"Sarrerak lortzean oinarritu behar dira pentsioak, ez murrizketetan"



Emilio Olabarria | EAJko
diputatua, Madrilan | 8

MUren garrantzia azpimarratu zuten eguaztenean

Ikasturtearen irekiera ekitaldia egin zuten, Aretxabaletan | 4

Audi A1 Sportback

Handia detaile bakoitzean.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Udazkena negu izango ez den itxaropenarekin

- Datorren hilabetea gakoa da txakolin ekoizleentzat
- Batzea atzeratzeak handitu egiten du hotz arriskua
- Giro lehorra eta epela komeni zaio orain mahatsari



Felix Etxagibel, bere mahatsa erakusten. | JULEN IRIONDO

Aritz

JULEN IRIONDO | ARRASATE-OÑATI

Gauza ezaguna da lurretik datorrena atzerapenez ari dela iristen aurtun, dagokiona baino beranduago. Hala da -edo izan da- tomate, babarrun edo artoaren kasuan, eta berdin mahatsari dagokionez ere -*Pilarica* aldera jaso ohi da-. Eta bailaran mahatsarekin lan egiten dutenek badute halako kezka bat, urte osoko lana dutelako jokoan datozen asteetan; mahats batzea atzeratuta -egun, adibidez, ez dago egon behar lukeena bezain helduta-, udazkenean are aurrerago egin beharko da, hotzetarako arrisku handiagoarekin, eta hori da orain mahatsari komeni ez zaiona.

Hainbat dira Debagoienean mahatsarekin dihardutenak, batzuek upategiei saltzen dietenak

DATUA

5

HEKTAREA

3,5 hektarea mahasti ditu Aritz Galdosek Oñatiko Murgialdain, eta hektarea eta erdi Felix Etxagibelek Arrasateko Artazubiagan.

gero, euren txakolina egiten dutenak beste batzuk. Txakolina egiten dutenetako bi dira Arrasateko Bedoña auzoko Felix Etxagibel eta Oñatiko Murgialdai baserriko Aritz Galdos. Euren azaldu digute egoera.

Aurtengo mahats-sasoia amaieraz eta utz dezakeen emaitzaz Felix Etxagibel: "Udazkena nola portatuko den, horrek baldintzatuko du dena. Udazkena ondo joaten bada, luze joaten bada eta berandu samarrera arte irauten badu ziklo osoa atzeratu egingo da, baina zikloa errespetatuko da. Arazoa izango da uda-udazkeneko ziklo hau motzagoa izaten bada, eta mahatsa heltzeko astirik ematen ez badu".

Beste urte batzuetan gertatu izan denari begiratzen dio Etxagibelek: "Izotzak ere hasi izan dira Domu Santu inguruan; aurtun komeni zaigu izotz horiek beranduago etor daitezela, eta urri osoa izan dadila suabea, giro epela egin dezala; ez dadila negua aurreratu".

Aritz Galdosek gehitzen du datozen hiruzpalau asteetan "eguraldi lehorra" komeni zaiela, eta azaltzen du zergatik: "Mahatsak azukrea hartzeko, gozotasunean irabazteko, eta orain sartu ohi den usteltasun gaitza saihesteko ere bai. Egunak eta egunak eguraldi oso umelarekin joaten badira onddo bat sartzen zaie, usteldura grisa, eta oso denbora gutxian mahats asko usteltzen da".

Inork ezin ezer egin onddo horren arriskua urruntzeko eguraldi aproposa egin dezan; norbere esku dagoen prebentzio neurriak bada, ordea, eta horiek bai hartzen ditu kontuan Galdosek: "Orain ari gara mahats aleen inguruko hostoak kentzen, mahats-mordoa haizatzeko eta onddoa saihesteko". Eguzkiak gehiago jo

diezaiola da kontua; helburua, mahatsa lehortzea eta "hezetasuna ez dadila bertan geratu". Eta, bide batez, "azkarrago eta hobeto" heltzen da mahatsa.

Eta hosto kentzea beti alde beretik egiten du, goizeko eguzkiak jotzen duen aldetik, arratsaldeko eguzki aldea babesean utziz, indartsuagoa izatera, ez dezan mahatsa erre: "Hala egingo ez bagenu, bero zakarren bat etorriko balitz eguzki babes gutxiarekin geratuko litzateke mahatsa, erretzeko arriskuan".

"Dedikazio handia"

Pena litzake azken unean galtzea urtean zehar egindako lan gutzia, mahatsari eskainitako orduak; ez direla gutxi, Oñatiko Murgialdaiaren esanetan: "Esaten dute

Aktiba zaitez

mondragonLingua rekin



HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.

www.mondragonlingua.com

Gure 10 ikasletik 8k Cambridgeko azterketak gainditzen dituzte.

MondragonLinguaren konpromisoa



izateko

Aktiba zaitez gure klaseekin.
Adin guztiak: haurrak, gazteak eta helduak.
Maila guztiak.
Hizkuntza guztiak.

Aktiba zaitez teknologiarik aurreratuenarekin.
Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko.
Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.



ARRASATE

Araba etorbidea 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea. Tel. 943 71 60 00



eta **SAMSUNG GALAXY TABLET** bat jasoko duzu doan, zure prestakuntzan laguntzeko.

SISTEMA ML+ ikastaroetan. Bezero PARTIKULARRENTZAT. Izakinak ahitu arte. Promozio hau ezin zaio beste bati erantsi.



Galdos, Oñatiko Murgialdai baserriko mahastian. | J.I.

hektareako ordu bat egunero; urtean 350-400 ordu, beraz, hektareako: urtarrilean hasten gara inausketarekin –hiru bat hilabete izaten ditugu dena inauske-; udaberrian kimuak agertzen hasten direnean egin behar izaten da interesatzen ez diren kimuak kendu eta uzten direnak landare-sarean bideratu; gero, gaitzen kontrako tratamendu fitosanitarioak bota; eta lan hauek orain". Mahatsa batzea faltako da gero, txakolina egiteko.

Eta hain ondo hasi ez zena nola bukatuko begira daude ekoizleak: "Oso ezohiko urtea izan da, egin duen udaberriagatik, batez ere: hotza eta euritsua, ekainera arte; horrek ekarri zuen loraketa garaia atzeratzea, mahats gutxiago sortzea loraketa garaian euria eta hotza egitearen ondorioz, eta gaitzak sartzea ere bai".

Galdosek esandakoari jarraitzen dio Felix Etxagibelek, zehaztuz San Juan inguruko eurien

ondorioz "lore asko" galdu zela: "Eta mahatsari eragin zion beste arazo bat izan zen Santiago egunetik uztaila amaierara arte egin zituen lauzpabost bero-zoro egun; izugarrizko hezetasuna ere bazegoen, eta hor sartu zen gorrina eta sartu zen denetik".

Ekoizpen ekologikoa

Eta horri aurre nola egin? Bedoñako Artazubiaga baserrikoak era ekologikoan lantzen du mahatsa,

eta dio horrek are zailago egiten duela gaitzen kontrako borroka: "Pixka bat mugatuta gaude; ezin dugu edozein produktu kimiko erabili, ez pestizidarik eta herbizidarik. Kobrea duten gauzak bakarrik erabil ditzakegu, eta horiek ere neurtuta, ezin dugu -eta sartu urtean hektareako sei kilo kobre baino gehiago". Eta beste ñabardura bat egiten du; eurek erabiltzen dituzten produktuek "ukipenez" egiten dute-

la efektua, "ukitzen duena" babes- ten duela, eta ukitzen ez duena gaixotu egin daitekeela.

Baina barneratuta du "gaixotasunarekin bizi" behar duela; dio bere mahatsondoek mahats kopuru erdia dutela konbentzionalekin alderatuta, baina nahia- go duela "produktu sanoa egin, kantitatez gutxiago izan arren".

Pasa ziren lore-galtze eta gorri- nak, eta orain dagoena dago, bai Oñatiko Murgialdai baserriko eta bai Arrasateko Artazubiaga- ko mahastietan ere. Eta bietan udazken hasiera mahatsak ondo heltzeko behar duen giroarekin etorriko den itxaropenetan, urtean zehar galdutako mahatsari ez dakion gehiago gehitu, dagoen dena heldu dadin eta behar bes- teko kalitatea izan dezan.

"Prozesua ondo bukatzen bada, sano dagoen mahatsa ondo aterako da; mahatsa batutakoan neurketak egiten ditugu, baina ez dut uste kalitate aldetik des- berdintasunik izango denik"; hala uste du Etxagibelek, eta txakolin ederra aterako delakoan da Galdos ere, hori bai, agian beste urte batzuetan baino "garra- tzagoa".

Lurrean zeruak agintzen bai- tu, Bedoñako Otxia txakolinaren egileak dioen bezala: "Zerutik bizitze hau horrela da; urtean -urtean gauza desberdinak ikus- ten ditugu eta egoera berrien kontra egin behar borroka".

Ekoizpena %40 jaits daiteke aurtan

2013ko eguraldi aldrebesaren ondorioz nabarmen jaitsiko da Gipuzkoan txakolin ekoizpena; %40 ere izan daiteke, Felix Etxagibelek jatorri izendapeneko iturriak aipatuz dioenez. Gainera, batz bestekopuru hori jaisteak esan nahi du, Etxagibelek argitzen duenez, batzuek hori baino gehiago galdu dutela –beste batzuk ez direlako galera maila horretara iritsiko–: "Hemengo arazoez gain txingor zaparrada batzuk ere izan dituzte kostaldean. Jatorri izendapenean %40 jaisteak esan nahi du agian batzuek %80 gutxiago ekoiztuko dutela, txingor zaparradek parean harrapatu bazituzten. Izan daiteke batzuek kalte handiak izatea". Gutxiago egonda mahatsaren prezioa igoko dela dio ekoizle arrasatearrak, baina igoerak ez duela galera estaliko: "Mahatsaren erdia galdu arren, prezioa ez da bikoizten. Kaltea handia da".



Jatorri izendapenaren irudia. | GETARIAKO TXAKOLINA

ESANAK

"Izotzak ere hasi izan dira Domu Santu inguruan; atzeratzea komeni zaigu"

"Prozesua ondo bukatzen bada, sano dagoen mahatsa ondo aterako da, kalitatezkoa"

FELIX ETXAGIBEL | OTXIA TXAKOLINA



Kaltetutako mahats-mordoa. | J.I.

ESANAK

"Loraketa garaia atzeratu eta mahats gutxiago sortu da, gainera, aurtan"

"Dedikazio handia da; hektareako egunero ordu bat behar dela esaten dute"

ARITZ GALDOS | MURGIALDAI



UROLOGIAKO ZERBITZU BERRIA

Tratamenduak:

- Onkologia urologikoa (prostata, giltzurrun, maskuri eta barrabil minbiziak)
- Gernu-obstrukzioa, prostataren hiperplasia onberaren eraginez
- Bagina-prolapsoen eta emakumezkoen zein gizonezkoen gernu-inkontinentziaren diagnostikoa eta tratamendua
- Urologia pediatrikoa
- Gernu-traktuaren patologia infekziosoa
- Zutitzearen disfuntzioa

QUIRÓN
OSPITALEA
Gasteiz

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN GASTEIZ OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 945 25 25 00 | Tel.: 943 79 44 22

MEDIKUAK

Alberto Martín-Marquina - Anibal Rincón - Abel Saiz.

RPS: 136/12

www.quiron.es

Hezkuntza-eredu aurreratuen garapenean "aitzindari" da MU

- Gizartearen eta enpresen eskaerei erantzuteko konpromisoa du MUK
- Horiek nabarmendu zituen Zabalak ikasturte hasierako ekitaldian

T.M./Z.V.D.M. | DEBAGOIENAQ

Mondragon Unibertsitatearen ikasturte akademikoa abiarazita dago. Asteon, eguaztenean egin zuten hori iragartzeko ekitaldi ofiziala; halakoetan ohi den moduan, ordezkari akademiko eta politikari ugariekin.

Horien artean Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako Huhezi Fakultatean. Besteak beste, hark adierazi zuen poz handiz ikusi dituela azken hamar urteotan MUK izan dituen bilakaera eta garapena. Esan zuen, baita ere, ikasturte berriak formazioa, garapena eta ezagutza uztartzen dituzten proiektuak ekarriko dituela, eta ziur dagoela Mondragon Unibertsitatearekin etorkizuneko ibilbide oparoa egingo dutela norabide horretan. Lehendakariak, era berean, lehen lanpostuaren bila dabilzan 20.000 gazteri laguntzeko Eusko Jaur-laritzak duen programa ere azpimarratu zuen.

4.000 ikasletik gora

Lehendakariak gain ekitaldian izan zirenen artean, Idoia Peñakobak, MUko idazkari nagusiak, hasi zuen ekitaldia. Aurreko ikasturteko datuen eta ekintzen errepasoak egin zuen hark: gradu mailako 15 ikasketa eman zituzten eta, denera, 4.011 ikasle izan zituen. Marian Bilbatua Huheziko irakasleak hartu zuen ondoren hitza, eta *Hezkuntza kalitatea eta hezkuntza erronkak* izenburuko ikasgaia eskaini zuen.



Ordezkari politiko eta akademikoak (Iñigo Urkullu lehendakaria tartean) MUren irekiera ekitaldian, eguaztenean. | T.M.

Jatorrizko hizkuntzak biziberritzeko

Eguaztenean aurkeztu zuten Eskoriatzako Ibarraundi museoan Garabidek eta Huhezik elkarlanean eskaintzen duten Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua. Kooperazio linguistiko-identitarioan euskalgintzaren barruko eremuetan pilatutako esperientziak oinarri hartuta, identitate minorizatuen biziberritze, berreskurapen eta indartze prozesuetan kokatzen da titulua. Eta aurtengoarekin bigarren aldia izango du titulu eskaintzak. Garabide Elkarteko Jon Sarasuak, Huheziko Julen Arexolaleibak eta Andoni Barreña filologoak ongiatorria egin zieten titulua ateratzera bertaratutako 14 laguni. Kitxuak, nasak, maiak, nahualtak, katxikelak, movidak, kurduak eta amazigh ordezkariak daude horien artean. Esperientziak elkartrukatu eta askotariko gaiak jorratuko dituzte; hizkuntza biziberritzeko prozesuetako estrategiak aztertuko dituzte; eta baita hizkuntza biziberritzeko lanabesak ere.



Titulua ikastera etorritakoak Eskoriatzako eta MUko ordezkariekin. | Z.V.D.M.

Domekara arte Kimu Berriak izango dira Kulturaten

Ikasleek landutako 35 proiektu osatzen dute Arrasaten jarri duten erakusketa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Unibertsitateko zein master eta graduondoetako ikasleek egin-dako 35 bat proiektu aurkeztu dituzte Kulturaten ipinitako panel eta maketetan. Arrasateko kasuan, domekara arte (irailaren 22) izango da erakusketa ikusteko aukera. Datorren astean, berri, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean jarriko dute erakusketa bera, martitzenetik egubakoitzera bitartean.

Aurten, Huhezi Fakultateko Ikus-entzunezkoetako ikasleek egindako bideoklipak eta iragarkiak ere emango dituzte erakusketetan, gainera.

Hori guztia azaltzeko aurkezpena egin zuten atzo, eguena. Bertan, MUko hainbat ikasle, Kimu Berriko antolatzaileak eta Inazio Azkarraurizar Arrasateko alkatea izan ziren. Baita proiektuak eroan dituzten ikasle-talde batzuk ere.

Ideia baino gehiago

Hainbat prospektiba, teknologia-garapen eta negozio-eredu berrien garapenean proiektuak sendotu dira. Goi Eskola Politeknikoko eta Enpresagintzako ikasleek egin dituzte proiektuak. Erakusketakoak ez dira ideia soilak; aurreko aldietako proiektu batzuk Saio-lanen garatzen dabilta.



Kultureteko areto nagusian egin zuten aurkezpena, eguenean. | LEIRE KORTABARRIA

MUko ordezkarien partaidetza borobiltzeko, Josu Zabala errektoreak MUko azken gertaeren berri eman zuen: Aretxabaletako fakultatearen irekiera, Oronarekin lankidetzat, irailean Bilbon martxan jarriko duten Bilbao Berrikuntza Faktoria eta ikasturteak hiru titulu berri izango dituela ingeniariartzaren alorrean. Zabalak azpimarratu zuen horiei esker, unibertsitatea eta euskal gizarte osoa produkzio sektorearen etorkizuneko arlo berrietan murgilduko dela. Horrekin batera, unibertsitateak euskal gizartearen duen eginkizun berritzailea eta eraldatzailea ere azpimarratu zituen errektoreak, eta gainera eta azpimarratu zuen ikerkuntzari eta transferentziari lotutako proiektuak MUren sarrearen %50 ekartzen dutela.

Agintari eta akademikoak

Debagoieneko unibertsitateko ordezkariak laguntzen, Euskadiko gainontzeko unibertsitateko ordezkariak ere izan ziren. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak.

Gainontzeko ordezkariak aipatze aldera, Cristina Uriarte Jaur-laritzako Hezkuntza sailburua, Batzar Nagusietako mahaiko presidente Lohitzune Txarola eta Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko mahaiburua ere izan ziren. Baita MUko errektore ohi Inazio Oliveri eta Javier Retege ere.

Pentsioen etorkizuna berbagai izango dute Aretxabaletan

Hilabeteotan gizartearen zerean eta kezka handia eragiten diharduen gaia aztertuko dute hitzaldi baten bitartez Aretxabaletan datorren astean: pentsioen etorkizuna.

Hain justu, astelehenerako (irailaren 23) hitzordua egin du Euzko Alderdi Jeltzaleak Aretxabaletako Arkupe kultur etxeko Zaira aretoan, 19:00etan. Eta Emilio Olabarriak landuko du gaia, EAJ-PNVko diputatua Madrilgo Gorteetan, *Bada etorkizunik pentsioetan?* izenburuko berbaldiaren bitartez. Interesa duen edozein joan daiteke entzutera.

Debagoieneko ekarpena, San Mames Barriarendako

Lehen partiduan Gorka Etxabe aretxabaletarrak jarri zuen ahotsa eta ULMAk, berriz, obrako aldamioak


UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Oñati eta Aretxabaleta. Bi herriok egin dute nork bere ekarpena astelenean estreinatu den San Mames Barrian.

Oñatik, ULMAren bitartez. Ezin bestela izan, gainera, eta Bizkaiko Old Trafford berezia izanda, bereziak izan dira, baita ere, ULMAk estadioa eraikitzeke egin dituen lanak edo erabili duen lan egiteko modua.

Zehazki esanda, bi lan mota egin ditu ULMAk: batetik, zinbriak, 28 metro altu den hormigoizko egiturarendako. Gainera, estadioaren gainontzeko obretan eraginik ez izateko, lurtean oinarririk ez dituzten zinbriak dira erabili dituztenak. Bestela esanda, boladizo erakoak.

Eta bestetik, estalkiaren egitura metalikoaren exekuzioarendako aldamioak jarri ditu. Horien kasuan, gainera, zailtasun berezia izan du lan horrek; izan ere, aurre-muntaia lurtean egin ostean, muntaia bera estalkian (goian) bukatu behar izan dute.



Gorka Etxabe speaker lanak egiten, San Mames Barrian. | GOIENA

'Speaker' aretxabaletarra

Aretxabaletari dagokionez, berriz, Gorka Etxabe kazetariaren bitartez izan da bertako ordezkariak San Mames Barrian. Kasu honetan, Etxabe izan zelako *speaker*-a (ahotsa) estadioaren estreinaldiko partiduan, Athletic-ek Celtaren kontra astelenean jokatu zuen partiduan, alegia.

Etxabek berak kontatu du zer sentitu zuen egun berezi horretan: "Ardura. Futbol zelaietan hitz egitera ohituta banago ere, San Mames Barriaren inaugurazio ekitaldiak bazuen konnotazio berezi bat, batez ere Bizkaian. Bertako hedabideek gau historikotzat jo zuten futbol zelai berriaren irekiera... eta horrek guztiak

badu eragina. Baina, bestela, lasai nongoen. Aurretik jaso nuen gidoia eta hortaz banekien momentuoro zer egin behar nuen".

Speaker aretxabaletarra

Eta egin ere, profesionaltasun osoarekin bete zuen bere lana, nahiz eta Etxabek barru-barruan dituen koloreak zuri-gorriak baino, zuri-urdinak diren: "Alavesekoa eta Realekoa naiz, batez ere. Baina, mikrofonoa esku artean dudanean, profesionala naiz eta nire lana ahalik eta ondoen eginen saiatzen naiz. Aurrekoan Bilbon ere oso ondo sentitu nintzen eta Klubekoek oso ondo hartu ninduten. Gasteizen ere bazekiten San Mamesera joango nintzela eta ez zidaten inongo trabarik jarri".

Izan ere, halako lanetan eskarmentu handia du Gorka Etxabek, 17 urte daramatza-eta speaker lanetan Alavesen Mendizorrotza futbol zelaian: "Lehenengo mailan, European, Bigarren eta Bigarren B mailan egon naiz. Asko sofritu dugu eta momentu historikoak bizi izan ditugu Gasteizen. Eta nolabait, Alavesek profesioa erakutsi dit".

Eta duda barik, Etxabek Mendizorrotza eta Alavesekin gertutasun handiagoa sentitzen duen arren, aitortu du, San Mamesekoa berezia izan zuela: "San Mames lehenengo mailako zelaia da, Estatuan gutxi izango dira horrelakoak. Aurreko egunean 35.000 lagun baino gehiago zeuden eta horrek errespetua ematen du".

Ura eta erreka balioan jarri guran, hainbat ekimen abian

U.M. | DEBAGOIENA

Ura eta erreka Deba ibarrean. Izen horren pean, erreka garbiketa, araztegiak bisitak, hitzaldiak... antolatzen dihardu Mankomunitateak, urriaren 13tik 19ra egiteko. Helburua hau da: "Gure erreka garbia eta uraren kalitate egokia mantentzeko ditugun azpiegiturak ezagutzeaz gain, erreka duen benetako balioaz jabetu eta ur garbia baino askoz ere gehiago dela ohartzeara". Bide hori lantzeko, argazki lehiaketa ere abiarazita dauka Mankomunitateak; gaur, egubakoitza, zen argazkiak bidaltzeko azken eguna, baina luzatu egin dute epea, irailaren 27ra arte.

Hiru kategoria izango dira: 14 urtera artekoena, 14-65 urte artekoena eta 65 urtetik gorakoena. Bakoitzak, gehienez, bi argazki aurkez ditzake, formatu digitalean (*argazki-lehiaketa@debagoiena.com*). Hala, 30 argazki aukeratu eta erakusketa jarriko dute ibarreko herri guztietan eta erakusketan eman ahal izango da botoa; baita Mankomunitatearen webgunean ere.




4. edizioa


Kantari

Eman izena!



Amaia Txintxurreta
Kantari aurkezlea

Goiena Komunikazio Taldeak Debagoiengan KANTARI karaoke-ikuskizuna laugarren aldiz antolatu du.

Udazkenean egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoiengan bizi bazara, **2001. eta 2005. urteen artean jaio bazinen** eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.

Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

Izena emateko azkeneko eguna irailaren 23a izango da.

Eskoletan banatuko den txartela irailaren 23rako eraman behar da leku hauetako batera: **zure eskolako idazkaritzara edo Goienaren edozein egoitzara.**

goienakluba™

ETA GOIENA KLUBEKO **BAZKIDEENDAKO, ESKAINTZA BEREZI HAU**

Kantarirekin eta Eroski Bidaiekin Port Aventura!

Zure gurasoak Goiena Klubeko bazkide badira, familia osoarentzako Port Aventura asteburu bat lor dezakezu.

Ez badira, bazkide egin daitezke etxera eroandako orria beteta.

Goiena Klubaren gainera informazioa, gune honetan: **www.goienakluba.com**

Zozketaren gainera informazio guztia eta oinarriak, hemen: **http://blogak.goiena.net/kantari/**

Informazio gehiago:
943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari

goiena™

ZABALIK

LANDER BELOKI
http://goiena.net/iritzia/



Bost urte eta bost egun

2008ko irailaren 15ean Lehman Brothers erori zen. Langileak beren gauzak kaxetan hartu eta etxe-orratzetatik irteten ikusi genituen. Finantza erakundeetako zuzendarien artean, berriz, izu aurpegiak nagusitu ziren. Erorketa hark, orratz zorrotz bat balitz bezala, azken 15 urteetan puztutako finantza burbuila lehertu zuen. Eztanda entzun zuenik ez zen izan. Hemen ingurura ere iritsi dira bere oihartzunak.

Zerk sortu zuen burbuila? Zergatik lehertu zen? Galdera hauei erantzuna emateko lanetan ari dira ekonomia ikerlariak, hemen-txe dago beren Atapuercako aztarnategia.

Gertaera ugarik puztu zuten burbuila: itzuli ezingo zituztenei emandako maileguak, zor publiko eta pribatuari kalifikazioa jartzen dien agentzien lan eskasa, finantza merkatuen erregulazio eta kontrol malgua (edo erregulazio eza), maileguak eman eta eskatzea errazten zuten pizgarri publikoak. Diru errazak eta gehiegizko likideziak puztu zuten burbuila. 2007a zen.

Baina burbuilek bere horretan egoten ez dakite. Eta pixkanaka hustea oso zaila gertatzen da. Horrela, itzultzea ezinezkoak zitzaizkien maileguak itzuli gabe uzten hasi ziren. Eta finantza erakundeen emaitza kontu eta balantzeak hizki gorritz idaztera pasa ziren. "Too big to fail" irizpidearekin diru publiko kopuru eskergak bideratu ziren finantza erakunde pribatuetara. Beno, ez denetara. Lehman Brothers erortzen utzi zen. Eta horrek izua biderkatu egin zuen. Finantza merkatuen erregulazio eta kontrol faltak burbuilaren leherketa eragin zuen eta merkatu-ekonomiaren blokeotik oso gertu utzi gintuen.

Ondorengoa, ezaguna da. Enpresak itxi, langabezia handitu, zor publikoa hazi. Ekonomia krisian. Munduko hainbat herrialdek, ordea, gaingitua dute eta iraganeko pasarte bat bezala kontatzen dute 2008koa. European, ordea, oraindik badugu zer egina. Zerbait ikasi ote dugu guzti honetatik? Ni baiezkotan nago. Baina hori beste baterako utziko dugu.

"Diru errazak eta gehiegizko likideziak piztu zuten burbuila"

USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

Gurea ala alabaren aukera?

Alabaren eskolaz kanpoko ekintzen gainean jardun dugu etxean. Bi urtetan antzerki eskolan gustura izan da, baina aurten beste zerbait probatu gura zuela zioen. Antzerkiarena, guretako (gurasoontzako), aukera ona eta eroso da: ikastetxean bertan, gustuko irakaslea, gertuko taldekideak, ordaindu beharrekoa asko ez eta, garrantzitsuenak, gurasoon ordutegiarekin bateragarria. Alaba hezteko aberasgarriak deritzet eskolaz kanpoko ekintzei, baina ez nuke haren agenda nirea besteko betea ikusi gura, ezta derrigorrezkoak bilakatzea gura, ordaindutako matrikulari etekina ateratze aldera. Nork izan beharko luke, beraz, aukeratzeko eskubidea?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Ikustak hau!

Pello Zabala
berria.info/blogak/pellozabala/

Solas koloreanitzia genuen gaur goizean: Atzoko jende bariopintoak, asteburuko margo-lehiaketa, datorren astebururako mendi-txirrindularien bi eguneko ibilaldi aldapatsua... eta hartan ginela, hor etorri zaigu gure ermano baserritarra, bere iloba naparraren eskutitza eskutan... eta hala izan da bere arrapostua:

-Ea! Irakurt hau! Eguzkia berak ere zenbateko lotsak pasa behar ote ditu pasadizo hauekin...!

Eta orri guztiz txukun eskuz idatzia niri kafe kikara aurrean utziz, - *Ikustak hau!*...

Eta irakurri dut, zesuman, pozik aurrena, eta gero, sentimentu denetariakoak aurpegia aldatzen zidala:

Atzo hantxe, eguzkitan, gure alabatxoa kotxean nuela, eta, ez nuen inondik esperoko horrelakorik ikustea.

Hantxe, errepide bazterrean, oinezkoenetik pasiera mantxoan, gugandik hoge-hogeitamar metrotara, zer izango eta polizien kotxe

berdexka bat gelditu, hara! Errepide bazterretik han atzeraxeago, oinez herrenka zetorren mutiko gazte bat gerarazi zuten.

Herrenka zetorrenez, laguntzeko edo gutxixeago nekatzeko, txanka edo makulua zeraman eskubia bertan bermatuz.

Poliziek, parera iristean, paperak eskatu zizkieten; mutikoak baita eman ere, jakinaren gainean bailatorrean.

Poliziek, hurrena, makulua eskatu zioten; baita ere, mutikoak bertatik luzatu zien.

Poliziek desmontatu zioten hodizko makulua eta, barruan begira arakatu.

Gero, zer eskatuko eta... kirol oinetakoak erantzarazi zizkieten... ni harrituta, lotsaldia ezin disimulatuz... eskatu ere egin zizkieten oin banatakoak; baita eman ere, patxadoso antzean, mutiko gizajoa...

Ondoren, zer asmatuko eta... galtzerdiak erantzi arazi eta aztertu ere egin zizkieten, banaka eta parsimonia osoz... halaxe, osaba... ez haserretu, baina bi oinetako galtzerdiak aztertu!... nahiago nuen zikin-zikin eta usaintsu izan balitu...!

Noski, ez zen horretan amaitu.

Segidan, izugarrizko mitina eman zioten... Zergatik?

Ba, mutikoaren kamixetak, izerdiz kutsatzeko zeramanak, bularraldean *Loreak mendian* margo-koloretan idatzirik zeramalako.

Galdetu zioten haserre, ea zer esan nahi zuen lelo horrek, eta, berak ziotsatenaz, ez bazen ezerean aurka arriskutsua... ea, orduan, zergatik ez zegoen erdaraz idatzita...?

Mutikoa lehen baino herrenkaago joan zen.

Hori bai, aldarte txar gaiztotuagoan, gajoa...

Zer uste duzu, osaba, ETArean kulpaz ez denean, ez ote daukagu gero eta urrunago, gure zorioneko bakea...?

Nork bere metaforak

Bixente Serrano Izko
berria.info/blogak/bixente/

Aitatxoren bizkarkin izan behar zuen Aitatxo Estatu metafora asmatu zuenak.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Erreka garbiketia auzolanian urriaren 13an

Idoia Larrañaga eta Nerea Madariaga
(Errekaren garbiketa egiteko batzordea)
Bergara

Bergarako herritarroi:
Urriaren 13an erreka garbitzeko egingo dan auzolanian parte hartzeko deia luzatzen dotsuegu.
Errekaren Astea antolat dau Mankomunitatiak eta horren baittan herrittar talde batek Bergarako Udalarekin elkarlanian auzolana antolatuko dou.
Bergararrok Epeletik Osintxurainoko tartia garbitxuko dogu eta horretarako danon biharra daukagu.
Gure asmua ahalik eta jende gehixen biltzia da.
Lan egin osteko bokadutxoa be ez da faltako!
Norbanako bakoitzantzat aseguru zibilla egin ahal izateko biharrezkua da bolondresok izena ematia.
Izena eman leike Agorrosiñen,

Kultur Etxian eta Udaltzainguan, 21:30ak arte zabalik egoten die, eta eguerdixan ez die ixten.
Bestetik, *errekagarbitzeko@gmail.com*-en be emon zeinkie izena irailaren 30an aurretik.
Apuntau zaitxezte!
Informaziño gehixau *www.bergara.net* webgunian.
Zu za kapaza, eman errekiari arnasa!

Portzentajeak, batetik, eta jaiotza-tasa, bestetik

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Orain dela 18 urte, guardia zibil bat erasotu nuen Bilbon.
Nire kabuz egin nuenez, gaixotzat hartu ninduten.
Ebakitxo bat bakarrik egin nion eskumuturrean.
Han, hamar urteko espetxe-psikiatrikoko zigorra izan nuen Fontcalent espetxean (Alacant).
Bazegoen psikiatra abertzale bat (harrigarria,

ezta?).
Medizina psikiatriko nazkante oro kentzen zidan.
Halako batean inkesta bat egin nuen espetxe barruan preso-pazienteei zera galdetuz: "Zer moduz medizina psikiatrikoaz?".
Inkestatu nituen 40 bat preso.
%30ek esaten zidaten medizina psikiatrikoa tortura zela, %20k gaitza zela, %40k ez zutela ezer sentitzen eta %10ek soilik oso medizina ona eta egokia zela.
Badakigu psikiatrikoetan jendeak maite ez duen jendea dagoela, baina %30 torturatzea gehiegitxo da.
Tortura onartua, legeak hobetsia.
Laborategiko tortura.
Nik sarri pairatua eta azaltzeko zaila.
Nire kide bat Ingalaterrako psikiatriko batean egon zen.
Dio han behartzen zaituztela psikiatrak agindutakoa hartzera soilik hiru hilabetez.
Hiru hilabete pasata, medizina psikiatriko hura gustuko ez baduzu, ez hartzeko askatasuna duzu.
Hiru hilabeteko tortura, eta ez hemen bezala bizi osoan,

eskubiderik gabe.
Portzentajea da %30 eta %20 ere bai.
Noiz arte?
Ohean lotu behar ote naute berriz?
Bestetik, Euskal Herrian jaiokuntza-tasa baxua dugu, eta orokorki Europan.
1,38 seme-alaba emakumeko.
Hau da, bikote batek 1,4 seme-alaba ditu.
Hala ere, ez gaitezen larritu.
XX. mendean medizina asko hobetu zen eta ordurako ez ziren haur jaioberriak hainbeste hiltzen.
Horrek populazioaren gorakada ekarri zuen.
Zergatik?
Antisorgailuak perfektionatu zituzten mendearen hirugarren partean, edo, hobeki esanda, frankismoa ez zen laikoa, gaur egun munduan estatu anitz bezala.
Laikoa ez zenez, debekatu egiten zuten berau.
Orduan, bikotea ez zen erreprimitzen, bere sexu nahia asetzen zuten eta ondorioa antisorgailurik gabe, noski, *baby boom*-a izan zen; hots, ume asko.

Gehiegi.
Ume asko, piramide handia, populazio handia; hots, etxe asko egin behar, lantegi asko, eraikuntza asko.
Hau da, izadia birrindu beharra.
Eta mundua txiki gelditu zaigu, natura, dena hondatzen dugu.
O!
Izadi maitea, non zaude?
Edozelan ere, orain dela 30 urte asko jaitsi zen jaiotza-tasa, zorionez, antisorgailuengatik.
Sexua ase bai, baina umeak maitatuak direnak bakarrik, nola ez.
Hala ere, gazte gutxi daude eta zahar gehiago mantentzeko.
Baina hau ez da dena.
Orain, 30-40 urtekoek dituzte umeak.
Horrenbestez, orain, 20 urtekoek, adin horretara heltzean, 1,4 ume nahi izango dituzte ere, antisorgailuak medio.
Beraz, piramideak itxura irragarria izango du.
Etorriko ote da gobernu bat antisorgailuak debekatzera?
Espero dut ezetz.
Gora, izadia!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

DONOSTIAKO ZINEMALDIA | Goiena Klubeko bazkideendako

Belodromorako sarrerak opari

Astelehenean, Donostiako belodromoan, 19:30ean, emango duten *Las brujas de Zugarramurdi* filma ikusteko 2 sarrera zureak izan daitezke.



PARTE HARTZEKO:

Bidal egiguzu. GAUR edo BIHAR, *kluba@goiena.com* helbidera mezu bat, bazkide zenbakia idatziaz, eta domekan jakinaraziko dizugu, posta elektronikoz, zu izan zaren irabazlea.



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Emilio Olabarria | EAJren bozeramailea Toledoko Itunaren jarraipeneko batzordean

"Sarrerak lortzean oinarritu behar dira pentsioak bermatzeko politikak, ez murrizketetan"

- Parlamentari jeltzaleak pentsioen erreformaz jardungo du Aretxabaletan astelehenean
- PPK onartu nahi duen Pentsioen Legearen aurka dago EAJ, baina "negoziatzeko prest"

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Torlojua gehiago estutu eta beste erreforma bat egin nahi dio Espainiako Gobernuak Pentsioen Legeari. Sostengarritasun Faktorea ezarri nahi du, besteak beste, pentsiodunen lan-saria zehazteko. Gaiaren gainean jardun dugu Emilio Olabarriarekin, EAJk Toledoko Itunaren jarraipeneko batzordean duen bozeramailearekin. Izan ere, datorren astelehenean Aretxabaletako Arkupen izango da, 19:00etan, pentsioen gainean berbetan.

Datorren astean Aretxabaletan izango zara eta pentsioen inguruan egingo duzu berba: Bada etorkizunik pentsioetan izango da hitzaldiaren izenburua, eta horixe galdetu nahi dizut lehenbizi: kolokan dago pentsioen sistema?

Pentsio sistema, finantza aldetik, iraungarria den edo ez zailtzan dago. Hori egia da. Bizi-itxaropenaren luzapena da datu objektibo bat. Pentsioen sistema ezarri zenean, eta erretiroa hartzeko muga 65 urtetan ezarri zenean, 1919an, populazioaren %10ek gainditzen zuten adin hori. Gaur egun, adin-muga hori populazio osoak gainditzen du.

Horrek finantzazio arazo garrantzitsuak sortzen ditu?

Hala da, gain-kostu inportantea. Eta pentsiodunak euren soldatekin finantzatu behar dituzten langileen baldintzak murrizten badira, geroago eta langabe gehiago badaude, edo lanera etorri ziren atzerriarrak beren sorterrietara itzultzen badira... eta, jakina, gure gazteek, inoizko kualifikatuenean, kanpora joan behar badute lanera eta, ondorioz, populazio aktiboa murrizten bada... atera kontuak: Sistemaren jarraikortasuna oso kolokan jar daiteke.

Jaiotza-tasa da beste faktore bat...

Bai, eta oso kontuan hartzekoa, gainera. Espainiak dauka Europako jaiotza-tasa txikienetakoa. Eta Euskadik dauka txikiena. Horrek garamatza aztertzer modu oso serioan jaiotza-tasa handitzeko politikak.

Zer proposatzen du EAJk pentsioen sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko?

Has naiteke esaten zer ez dugun egin nahi. PPren gobernuak proposatzen duena ez dugu nahi. Uste dugu gakoa ez dela bakarrik gastuan oinarritzea, sarrerak bermatzeko politikak bultzatu eta neurriak hartzea baizik. PPK proposatzen du KPI datuari ez lotzea pentsioen errealizazioa. Hala egiteak ekarriko du pen-



Emilio Olabarria, Espainiako Kongresuan, Madril. | EAJ

tsiodunek eroste ahalmena galtzea. Bestetik, etorkizuneko pentsioei ere eragiten die gauzak PPK dioen moduan egiteak. Belaunaldien arteko iraunkortasun faktore uniformatzailearekin lotzen du PPK pentsioen errealizazioa. Eta ez beste faktore batzuekin, hala zela, kotizatutako urteekin edo lan egindako urteekin... PPren proposamenaren ondorioz, hainbat pentsiotan murrizketa %20rainokoa izan daiteke.

Pentsioen erreforma gastuan oinarritzea txarto ikusten duzue, hortaz, baina zein da zuen proposamena?

Sistema berriarekin 33 milioi euro aurrezteko aurreikusi du PPK. Baina guk uste dugu diru sarreretan oinarritu behar direla pentsioak bermatzeko politikak. Hasteko, efizienteagoak izanez. Ez da jasangarria 6 milioi lan-

gabe edukitzea eta, ondorioz, kotizatzen dutenen kopurua etengabe murrizten joatea. Gobernuak berak aurkeztutako koadro makro ekonomikoaren arabera, 2016an, oraindik ere, %25eko langabezia tasa izango da Espainian. Bestetik, lan merkatura sartzen diren gazteen lan baldintzak oso prekarioak dira. Egoera honetan zaila da pentsioen sistemari eustea. Hortaz, ezinbestekoa da neurriak hartzea ekonomia berritzeko, langabezia murrizteko, lur azpiko ekonomia azaleratzeko, zerga iruzurrari aurre egiteko edota kotizazioak handitzeko, hau da, diru sarreretan oinarritutako neurriak hartzea. Bestela, egoerak okerrera egingo du eta etorriko dira beste erreforma abusuzko eta koldar batzuk.

Egoera kezagarria da...

Datu bat hori baieztatzen du: lanean dauden eta kotizatzen dutenak 16.500.000 lagun dira. Eta prestazioen bat jasotzen dutenen kopurua oso antzekoa da. Kezagarria da, bai.

PPk Pentsioen Lege Aurreproiektua onartu du dagoeneko. Noiz onartuko da legea?

Oraindik ez da Diputatuen Kongresura eroan. Behin Ganbaran egonda, aztertuko dugu. Baina orain dagoen moduan, osoko emendakina aurkeztuko diogu. Ez zaigu gustatzen eta erabat aurka gaude. Baina negoziatzeko prest gaude. PPK erabateko gehiengoa du eta hark bakarrik onar dezake

legea. Ezkerreko alderdiek erabateko kontraktasuna erakutsi dute, oraingo, eta CIU eta geu negoziatzeko prest geundeko. Ea legea hobetzerik dugun, ze, berriro diot, orain dagoen moduan ez baitugu gustuko. Gastu eta eskubide murrizketetan oinarrituta dago legea, ez sarreretan eta efizientzian.

Ze planteatuko duzue negoziatzeko?

Batetik, gastuetan bakarrik ez oinarritzea. Bestetik, pentsioen errealizazioa KPI datuari lotzen jarraitzea, ze, berez, bestela ere, Espainiako pentsioak Europako bigarren txikienak dira. Espainiako Konstituzioak esaten du pentsioak nahikoak izan behar direla, baina bizi-kostuen igotzarekin errealizatzatzen ez badira, eroste ahalmena galtzen goaz eta, ondorioz, gure egoera eskasten, txiroago egiten gaituzte.

"Adituen taldeak erantzuten die interes korporatiboei"

"Arazoa gazteengan dago, kontratu prekarioak dituztelako"

Legeak planteatzen dituen aldagaiak ez zaizkigu justuak iruditzen. Pentsiodunen diru sarrerak 33.000 milioitan murriztuko ei ditu lege berriak eta, ondorioz, pentsiodunen eroste ahalmenak behera egingo du...

Erretiroa hartzeko epea edo kotizazio epea luzatu egin da azkenaldian. Zela dago kontua?

2011ko legearen arabera, 67 urtetan ezartzen da erretiroa hartzeko epea, 2027tik aurrera. Baina, aurreikuspenen arabera, 67 urteko epe muga hori, epe laburrean, 70 urtetan geratuko da.

Epe muga handitzea da gakoa?

Ez, ez, ez. Europan herrialde gehienek hartzen diharduten bidea da, baina kotizatzailen kopurua eta kotizazio oinarria dira elementu erabakigarri eta eraginkorragoak. Arazoa gazteen artean dago, Gizarte Segurantzaren kotizatzeko aukerarik ia eskaintzen ez dien kontratuak eskaintzen ari zaizkielako.

Zela baloratzen dituzu pentsioen erreformarako sortutako adituen batzordeak emandako aholkuak?

Bat edo beste izan ezik, batzorde horretako kideak aditu izendatzea ere... Azkenean, interes korporatiboei erantzuten dien pertsonen osatutako batzordea da: bankuen, aseguru etxeen eta bestelakoen interesak babesteko pertsonen osatu dute. Pentsioen iraunkortasuna lotu dute gastuen murrizketekin eta hori egiteko aurreikuspen apokaliptikoak egin dituzte.

Pentsioak eta Gizarte Segurantzaren Gernikako Autonomia Estatutuan jasota dauden arren, ez daude transferituta. Uko egin diozue?

Ez. Behin eta berriro eskatzen dugu, Estatutuan jasota dagoelako. Uste dugu Eusko Jaurarlitzak hobe kudeatuko dituela kontu hauek Euskadin jasangarriagoa delako sistema. Batetik, enplegatuen kopurua Espainian baino handiagoa delako; bestetik, kotizazio oinarriak Euskadin handiagoak direlako eta, ondorioz, kutxara egiten zaion ekarpena handiagoa delako. Egia da jaiotza-tasarekin arazoa daukagula, baina ez da Espainian baino handiagoa.

Sozialistek eta popularrek diote hemengo pentsiodunak Espainiako kotizatzailen ekarpenei esker bizi direla.

Ez da egia, ordea. Euskadik Gizarte Segurantzarengatik sortzen dituen geldikinekin jarraitzea nahi dutenek eta konpetentzia hori hona ez transferitzea nahi dutenek diote hori.

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



MIKEL SEDANO RUEDA . 2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MIREIA AGUIRRE . 2012ko bigarren sariaren irabazlea.

EPE LUZATZEA

Argazkiak bidaltzeko epea domeka honetara arte luzatu dugu!
Aprobetxatu aste bukaera eta bidali zure udako argazkiak!



GARAZI OLABARRIA . 2012ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Oñalora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragarriak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatetik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI

zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

DUELA 10 URTE

2003-10-19

Arrasateko irudien argitalpena

Arrasate Mondragon-Irudiak izeneko liburua argitaratu zuten duela hamarkada bat, kanpokoei herria ezagutzera emateko helburuarekin. Arrasate Argitan kultur elkar-teak argitaratu zuen eta Arrasateko hainbat txokotako argazkiak biltzen zituen.

163 orrialdeko liburuaren azalak Udalatz erakusten zuen, Goikobalutik ateratako argazkian. Bada, 35.000 ale atera zituzten eta 35 eurotan jarri zuten salgai.



2003ko liburuaren azala. | ARRASATE ARGITAN

2003-10-19

Egoitza berria Txapa Irratiarentzat

Bergarako Zabalotegi dorreko behe solairutik Gaztetxera aldatu zuen egoitza Txapa Irrati libreak. Momentu hartan, Udalak Gaztetxea konpondu berri zuenez, lehen soilairuan egokitu zieten bergarar gazteei gela bat bertatik emisioak egiteko.

Egoitza estreinatzeaz gain, programazio berria ere egin zuten. Hori dela eta, Txapa jaia antolatu zuten: zinema emanaldiak eta kontzertuak egon ziren asteburu hartan.

DUELA 5 URTE

2008-10-19

EAE-ANV legez kanpo

Espainiako Auzitegi Gorenak EAE-ANV legez kanpo uzteko epaia atera zuen; gainera, alderdi politikoa desegiteko agindua eman zuen, baita haren ondasun guztiak desegiteko ere.

Debagoiengan soilik 9.389 botoren babesa lortu zuen alderdi politikoa; horregatik, Arrasaten manifestazioa egin zuten.

LEINTZ GATZAGA

Benedicto Elkorobarrutia Leintz Gatzagan eta inguruko herrietan ezaguna da haur eta helduen artean betidanik: mila eta bat istorio eta anekdotaren narratzaile izan da. | ANDER LARRAÑAGA

"Jaietako giroa asko aldatu da: lehen, dantza askoz gehiago egiten genuen"

Benedicto Elkorobarrutia (1933) ez da edonorekin kikitzen den horietakoa. Leintz Gatzagan pertsonaia publikoa dela esan genezake, berak kon-tatu ohi dituen ehunka istorioen-gatik. Bere gazte garaiko anek-dotak ahoan irribarrea duela kontatzen ditu; gatzagar guztiek entzunak dituzte bere istorioak, garai haiek nostalgiaz gogoratzen dituelako beti Elkorobarrutiak. **Zergatik zara horren ezaguna herrian eta inguruetan?**

Aita Santua leku guztietan dago eta ni Aita Santu ohia naiz [Barre]. Gatzagan bizi izan naiz betidanik, baita nire arbasoak ere. Oroko-rreran, jende guztiarekin nahiko ondo konpontzen naizelako izan-go da.

Agian, jendeari adarra jotze-ko dudan afizioagatik ere izango da; hala ere, niri ere adarra jotzen didatenean, entzun behar izaten ditut nireak...

Nolako zen zure bizimodua zure gazte denboran?

Leintz Gatzagako bizimodua oso desberdina zen oraingoarekin konparatuta: batez ere, giroan nabarmentzen dut. Duela 40 urte inguru, gau batean norbaitekin haserretuz gero, hurrengo goizean lagunak ginen berriro ere; orain, haserretu, eta betiko haserre.

Egunerokoa nahiko normala zen: goizean, eskolara edo lanera joaten nintzen; gero, ganadua zaintzen nuen. Txikiteoan ere ibiltzen ginen, baina ohitura hau ez dut askorik aldatu, egia esan; gainera, hiru taberna barik, zazpi taberna ezagutu izan ditut nik Leintz Gatzagan. Noizean behin ere inguruko herrietako festeta-ko erromerietara joaten nintzen lagunekin, neska gazteren batekin dantzan egiteko asmoz.

Bestela, herria nahiko aldatu da. Lehen, herria handixeagoa zen eta askoz ere kanpotar gehia-go zegoen: orain ez daude lehen zeuden kanpotarren erdiak ere, gatzagarrik beste ziren. **Erromeriak aipatu dituzu. Dantza-zalea al zara?**

Lehen, bai; orain, ez horrenbeste-raino. Orkestrak edo soinu-jo-leak joaten ziren herri desberdi-netara. Orduko giroa ezin da gaurkoarekin konparatu: orduan guztiek dantzan egiten zuten musika hasi bezain pronto, eta orain, besteek dantzan nola egi-ten duten begiratu besterik ez. **Leintz Gatzagan urte osoa pasata, zein da zure urteko egunik maita-tuena?**

Gaur egun ez dut egun berezi edo kuttunik. Lehengo Andramaixe-tako hirugarren eguna nuen

HERRITARRAK



Benedicto Elkorobarrutia, Leintz Gatzagako frontoian jarrita. | ANDER LARRAÑAGA

"Jendeari adarra jotzeko dudan afizioagatik ezagutzen naute"

"Lehengo Andramaixetako hirugarren eguna nuen gustuko nik"

gustuko nik. Denetik egiten genuen: dantzan, pontxera gon-bidatu neska gazteak, lagunekin ardo batzuk hartu... Gainera, inguruko herrietako lagunak ere etortzen ziren.

Gu ere asko mugitzen ginen, batez ere Araba aldera; Landa, Marieta eta Ozaeta dira gehien joaten ginen herriak. Hori bai, bizikletan eta bidezidor txikieta-tik; orduan ez ginen autoan edo autobusean parrandara joaten, gaur egun egiten den moduan. **Parrandan ibiltzen zinela badakigu. Horretarako lan ere egin beharko zenuen, ezta?**

Bai, noski. 15 urterekin hasi nintzen lanean Eskoriatzako Ilun enpresan, lapikoak leuntzen; oinez joaten nintzen, hamar ordutik lan egin eta berriz ere oinez buelta-tzen nintzen etxera. Sei urte iga-ro nituen bertan lanean. Ondoren, beste sei urtez Eskoriatzako Zubi-zarreta lantegian egon nintzen

lanean, sarrailek egiten. Azkenik, Fagorren amaitu nuen, prentsan lanean, eta bertan azken 30 urteak egin nituen lanean.

Mila eta bat anekdota kontatzea-gatik ezaguna zara. Horietako zein etortzen zaizu orain burura?

Asko ditut kontatzeko, egia esan; hala ere, badut bat gogoan orain momentuan. Sinesteko modukoa ere ez da anekdota hau. Anaiari hanka moztu behar izan ziotene-koa da; hura Tolosan zegoen osatu bitartean.

Lagun bat, Felix Urreta, hura bisitatzeraz joan zen eta bueltan kristorenak esan zituen: "Gogorra izan da horrela ikustea, hanka barik. Nik barrabilak moztuko ditut!". Hurrengo domekan, Ven-ta Friara joan zen plater tiroketan egitera Urreta, eta bertan, hark ere hanka galdu zuen. Azaroaren 1a zela dut gogoan: ez dut inoiz egun hura ahaztuko, egun hartan gertatu zen kasualitatea.

NIRE HERRIAN

LASAITASUNA ATSEGIN DUT

Leintz Gatzaga herri txikia izanda, bertan bizi izateak daukan onena lasaitasuna da. Agian, lasaitasun honekin bizi izatera ohituta nagoelako izango da: bizitza osoan bizi izan naiz Leintz Gatzagan. Izan ere, beste herri askotan ezinezkoa izango litzateke hemen daukagun lasaitasun honekin bizi izatea.

NIRE TXANTXEN ERREAKZIOAK

Esan bezala, jendeari adarra jotzeko ohitura dut. Orokorrean, gatzagar guztiek badakite nolako naizen eta txantxak ez ditudala asmo txarreakin egiten. Edozelan ere, batzuetan kontuz ibili behar izaten dut nire txantxak modu txarrean hartzen dituen jendearekin. Izan ere, guztiok ez dugu umore bera.

HERRIAK

ONATI

"Barruko arrastuak" ezagutzeko premia dago

Eguaztenean aurkeztu zuten Oñatiko Euskal Memoriaren dokumentala

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Herriarren babesean aurkeztu zuten eguaztenean *Barruko arrastuak* dokumentala. Oñatiko Euskal Memoria taldeak sortu du ikus-entzunezkoa eta frankismo garaitik gaur egunera arte atxilotuak izan diren herriarren zerrenda du oinarri. Horieta batzuek, dokumentalean testigantza emandako hiruk, zinema aretoko lehen ilaratik ikusi zuten eurek kontatutakoarekin egin-dako lana. Eta atzean, guztiz betetako aretoa zuten, jendea eskaileretan eserita eta zutik.

Pantailan, 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan atxilotutako oñatiarren esperientzia ilunak. Etxean edo gurasoen etxean atxilotuak batzuk, euren lantegietan besteak, denek ekarri zituzten gogora Guardia Zibilaren edo

Ertzaintzaren eskuetan jasandako kolpeak eta gehiegikeria fisiko nahiz psikologikoak. Eta eurei geratutako "barruko arrastuez" gain, atxilotuta haiek bizi beharrrak euren ingurukoengan utzitako mina ere islatzen du dokumentalak.

Jaiki Hadi erakundeko Oihana Barriosek eta Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokia Julen Arzuagak torturaren inguruko hausnarketa egin dute ikus-entzunezkoan. Batek torturaren izaera aztertu du eta besteak, berriz, erabileraren arrazoia.

Eta horien guztien esanak Oñatin azken hamarkadetan polizia eskutik gertatu diren indarkeria ekintzekin tartekatzen dira: 90eko hamarkadan guardia zibilek hildako Susana Arregiren hiletako irudiekin edo ertzainak

herriko kaleetan euren armekin jendea kolpatzen agertzen diren artxiboko irudiekin.

Atxilotuen zerrenda

Oñatiko Euskal Memoria taldeak duela bost hamarkadatik hona herrian atxilotuak izan direnen zerrenda egitea zuen helburu eta 2011n ekin zion datu bilketari. Jasotakoaren arabera, 168 atxi-



Aurkezpenako argazkia, tartean, Udaleko eta Aldundiko ordezkariak. | IRATI GOITIA

lotu izan dira epe horretan, 26 emakumeak. Atxilotutako guztietatik 59k torturak salatu zituzten, lau emakumek.

Orduan jasotako datuak, Euskal Herrian bildutako beste batzuekin batera, *Oso latza izan*

da. Tortura Euskal Herrian liburuan argitaratu ziren.

Memoria berreskuratzeari

Oñatiko Euskal Memoria taldeak Euskal Herriko Euskal Memoria Fundazioaren esku utzi du landutako proiektua. Fundazioa 2009an sortu zen memoria historikoa berreskuratzeko, eta, bertako kide Arantxa Erasunek adierazi duenez, "garrantzitsua da horrelako proiektuak herrietatik abiatzea, herriz herri eta talde txikietan". Urteetan ezkatutako errepresioa, kasu honetan tortura, herriari eza-gutarazteko modua dela gaineratu du.

Aurtengo gaia: euskararen jazarpena

Atxilotu eta torturatuen zerrendaren ostean, Oñatiko Euskal Memoria taldea dagoeneko ari da hurrengo proiektua lantzen. Frankismotik gaur egunera arte euskarak Oñatin izan duen jazarpena du aztergai. Euskal Herriko beste esperientzia batzuekin batuta, Durangoko Azokan egongo da azterketa eskuragarri.

IKER LOITI

1992AN ATXILOTUA



"Psikologikoki oso gogorak dira ertzainak"

"Ertzainak psikologikoki askoz gogorragoak dira. Psikologikoki jendeak uste duena baino min handiagoa egin daiteke; kolpeekin baino handiagoa. Ertzainen eta guardia zibilen jokaera ezberdina da: Guardia zibilek etxean kolpeak, oihuak, pistolak... Ertzainek ez zidaten kolperik eman, baina psikologikoki guardia zibilen aldean oso gogorra izan zen. Ziegan, hormari kolpeak ematen amaitu nuen zarata kentzeko".

JOXE MARI ZUGASTI

1992AN ATXILOTUA



"Ez dut bizitakoa esaldi batean definitzen jakin"

"Eibarko komisarian armairu batean sartu ninduten eta han izan ninduten denbora batez. Madrilera iritsi ginenean, autobusetik jaistean, itxaroten genituen guardia zibilak eta baita beraien semeak ere. Pasillo bat egin ziguten eta gu pasa ginenean dena ziren ostikoak, ukabildak, irainak... Saiatu naiz definitzen esaldi baten han bizitakoa, baina ez dut jakin. Umiliatuta sentitu nintzen, baita zapalduta ere".

KOLDO GURIDI

1975EAN ATXILOTUA



"Inkomunikazio legea aldatzea lortu behar da"

"Ur zikinetan sartu zidaten burua eta guardia zibilek gora eta behera erabili ninduten. Lehenengoan denbora luzean eutsi nion arnasari, bigarrenean estuago eta hirugarren edo laugarrenean ahoa zabaldu eta ur mordoa sartu zitzaidan. Urduri nengoen eta botaka egin nuen. Gu torturatuak izan ginen orain dela 35 urte eta gaur egun ere torturatuak daude. Lortu behar dena inkomunikazio legea aldatzea da".

OIHANA BARRIOS

JAIKI HADI



"Tortura euren laneko esparru bat gehiago da"

"Askotan, pentsatzen dugu torturatzaileak psikotikoak direla, baina, zoritxarrez, gehienak pertsona normalak dira, bizimodu normala daramate. Torturatu ondoren lanera normal joaten dira eta gero beraien etxeetara, familiarekin. Tortura laneko beste esparru bat moduan identifikatzen dute; beraien lana da eta zenbat eta hobekien egin, orduan eta hobeak izango dira lanean, meritu handiagoa dute".

JULEN ARZUAGA

BEHATOKIA



"Beldurra sortzea eta informazioa du xede"

"Azken 50 urteetan torturak helburu berezi bat izan du herri honetan, gatazka politikoari lotuta doa, eta era konkretuan eboluzionatu du. Helburua beti izan da beldurra sorraraztea eta informazioa eskuratzea, eta borroka antiterrorista horren aitzakiapean tresnatutako erabili dute. Gainera, azken urteetan beste helburu batekin batu nahi izan dute: tortura beti ezkutuan mantendu beharrezkin, hain zuzen ere".

JON

Prentsa eta janari denda

EGUNERO ZABALIK:

Astelehenetik ostiralera

07:00-13:30 / 17:00-20:30

Zapatuetan eta domeketan

07:00-14:00

Etkez-etxeko zerbitzua



ZERBITZU BERRIA!



IBAI-GANE ren
produktuak

helbide berrian:

Erdiko kalea 9 ARRASATE
kioskoportalon@gmail.com
943 79 34 37

Kupoi hau ekarriz gero,
IBAI-GANEren produktuetan

% **10** eko
deskontua*

* 2013ko urriaren 6ra arte baliagarria.
Erosketa bakoitzeko kupoi bat.



Haurrasate: haurrak ardatz hartuta, Arrasate hobetzeko ibilbidea hastea

Haurraren ikuspegia oinarri, pertsona lehenetsiko duen herria sustatu gura du Txatxilipurdik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Haurrek ez dute ulertzen norbait kanpoan uzten duen hiri bat. Ez dute ulertzen aitona, anaia txikia, txakurra edo landareak bazterten dituen hiria. Haurrak hiriaren ikuspuntu ekologikoa dauka eta ikuspuntu hori bera zientziak gura duenarengandik oso gertu dago. Baina, era berean, azken urteetan eraiki dugun hiriarengandik oso urrun dago haurraren ikuspuntua. Haurrek aldaketa eskatzen dute". Francesco Tonucci Italiako ikerlari ospetsuak esan zituen hitzok martxoaren 9an, *Haurren hiria* liburua Arrasaten aurkeztu zuenean.

Txatxilipurdiko arduradunek aspalditik ezagutzen dute Tonucciaren obra, eta bat datoz; helduen ikuspegitik bakarrik eraikia izan den Arrasate hobetu gura dute: "Gaurko herriek bizitasuna galdu dute, eta, pertsonen neurritara egindako espazioak beharrean, autoen eta asfaltoaren beharretara egokitu dira kale eta auzoak,



Txatxilipurdiko Gari Iturbe, Haurrasate proiektua irudikatzen duen hanka-koskoaren lehen laukian; beste aldean, azken laukiaren ostean, Mireia Baz. | JOKIN BEREZIARTUA

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

UNIBERTSITATERAKO:

- Ingeniaritza.
- Enpresa ikasketak.

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA:

- LMH.
- DBH.
- Batxilergoa.

SARBIDE PROBAK:

- Goi mailako zikloetarako.
- Unibertsitaterako.

HIZKUNTZAK:

- Ingelesa
 - Ikastaro trinkoak:
 - Pet.
 - First.
 - Advanced.
 - Ahozko aurkezpenak ingelesez.
 - Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten irakasleentzako didaktika eta metodologia.

- Alemana.

ELIKADURA:

- Elikagaien Manipulatzaila.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es

gero eta leku arriskitsuagoak bihurtzen joan dira", diote.

Txatxilipurdikoek haurraren ikuspuntua kontuan hartzea aldarrikatzen dute herri arduratsuek eraikitzeko: "Baztertutako ikuspegi guztiak hartzen ditu kontuan haurrak, eurengandik hasi gura dugu hausnarketa. Hala ere, baztertutako kolektibo guztiak gonbidatu gura ditugu gogoeta komun honetara: emakumeak, ezinduek, langabetuek, autorik ez dutenak, etorkinak...".

Hanka-kosko batez irudikatua

Proiektua haurren jolas gustukoenetako bat den hanka-koskoaz irudikatu dute: "Harria azken laukiraino bota gura dugu; hau da, zentzu guztietan pertsonak kontuan hartuko dituen herri baten ametsa dugu helburu. Bada, kigu prozesu luzea dela, urte askotakoa, hainbat esparrutatik sustatu behar dena eta hainbat ikuspegi batuko dituen. Oraingoz, laukiz lauki saltoka egin gura dugu". Orain, lehen laukian dago Haurrasate, ibilbidearen abiapuntuan.

Gogoetarako fasea da oraingoa eta ume arrasatearrekin hainbat urtez lanean diharduen elkarteak horretara gonbidatu gura du herritarra. Hainbat galdera planteatzen dituzte: "Zer da herri arduratsu bat? Zer egin dezakegu norbanako eta eragileok? Kolektibo eta taldeen banaketak mesederik egiten al digu? Espazio publikoa galtzen ari gara? Zein mugikortasun eredu du gure herriak? Auzo biziak al ditugu?".

Hausnarketa dute bide, baina herritar eta eragileak antolatuta eta egingarriak izango diren egitasmoak sortu gura dituzte: "Antolatuta eta elkarlanean jartzea izango da aterki ilusionagarri honi bide emateko modu bakarra. Eta horrela, Arrasate herri ardurasuagoa bihurtzeko bidean ahalik eta urrunen iristea da asmoa".

Hausnarketarako hiru talde

Txatxilipurdiko arduradunen arabera, helburua da berez hezikuntzarekin, hirigintzarekin edo

gazteriarekin loturarik ez duten norbanako eta taldeak gaiaren gainean "dantzan" jartzera gonbidatzea. Hausnarketa kolektiboa bai, baina haurren ikuspegia ardatz hartuta. Hiru gogoeta talde aurreikusten dituzte: haurrena, gazteena eta helduena. Talde bakoitzean landutakoaren berri emango da besteetan; prozesua paraleloan joango da hiru gogoe-taldeen artean. Irailaren 26an izango da aurkezpena eta lehen fasea abenduan joko dute amaitutzat, jaialdia eginda.

Ekimenaren aurkezpena, hilaren 26an

Irailaren 26an aurkeztuko dute Haurrasate proiektua Zaldibarko pilotalekuan (18:00). Aurkezpenaren ostean, hiru saio egingo dituzte talde bakoitzarekin, gai bana aintzat hartuta: espazio irekiak eta pertsonen ongizatea, irisgarritasuna eta pertsonen autonomia eta parte-hartzea ahalbidetzen duten espazioak. Lehen fasea urtea amaitu aurretik amaitzea aurreikusten dute.

ESANAK

"Baztertutako ikuspegiez jabetzen dira haurrak, eta eurengandik hasi gura dugu hausnarketa"

TXATXILIPURDI

DATUA

47,25
AUTO HARRAPAKETA 2011N

2011n Arrasate izan zen, Usurbilen eta Ubideren ostean, auto harrapaketa gehien gertatu ziren EAEko herria: 47,25 harrapaketa 10.000 biztanleko. Herria, pertsonendako arriskutsu...

Euskararen transmisioan, gurasoengan eragin guran

'Eta zuk... nola egiten duzu?' kanpaina abiatu dute Arrasateko euskalgintzako hainbat eragilek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskararen normalizazioan transmisioak duen garrantziaz jabetzeko, kanpaina berezi bat abiatu dute Arrasateko euskalgintzako eragileek, elkarlanean. Leloa da *Eta zuk... nola egiten duzu?* eta euskararen normalizazio prozesuan familia bidezko transmisioak duen garrantziaz sentsibilizatzea du helburu. Beraz, guraso euskaldunengan modu berezian eragin gura dute.

Duela bi urte ekin zioten elkarlanari hainbat eragilek:

ESANAK

"Familia bidez jasotzea da ikasteko erarik naturalena, aberatsena eta eraginkorrena"

JOXE ETXEBERRIA | EUSKARA ZINEGOTZIA



Joxe Etxeberria zinegotzia, euskalgintzako ordezkariekin. | IRATI GOITIA

Txatxilipurdik, herriko hainbat ikastetxek, Udal Euskaltegiak, AEK-k eta Udalak. Iaz hitzarmena sinatu zuten: "Eragileak ezin ziren euskara eta euskalgintza bakoitza bere taldetxoan lantzen ibili; beharrezkoa zen bateratuta

lan egitea", esan zuen eguaztene-ko agerraldian Joxe Etxeberriak, Euskara zinegotziak.

Irailetik urte amaierara arte

Lau lantalde sortu dituzte eta horietako bat da transmisio tal-

dea: "Hizkuntza familiaren bidez jasotzea da hizkuntza ikasteko modurik naturalena, aberatsena, eraginkorrena eta merkeena", uste du Etxeberriak.

Txatxilipurdiko Eneko Barberenak etxe barruko hizkuntza ohituren garrantziaz egin zuen berba: "Helburua izango da gogoea egitea nolako transmisioa egiten dugun etxe barruko hizkuntza ohituretan. Izan ere, etorkizunari begira hizkuntza batek bizirik irauteko transmisioa funtsezkoa da". *Eta zuk... nola egiten duzu?* kanpaina hainbat euskarritan iragarriko dute irailean bertan hasi eta urte amaierara arte. Bada, Goienaren zenbait euskarritan emango dute kanpainaren berri.

Guraso euskaldunei zuzenduta badago ere, ez dute baztertzen aurrerago familia misto edo erdal-dunetara ere jotzea.

Baserritarren Azoka bihar Seber Altube plazan, 15 posturekin

J.B. | ARRASATE

Abuztuko geldialdiaren ostean, bihar itzuliko da baserritarren azoka Seber Altube plazara (10:00-14:00). Arrasateko lau baserri, bailarako beste lau eta beste eskualde batzuetako bi baserri egongo dira. Marga Garmendia Udaleko Enplegu Saileko tekni-

kariak aurreratu duenez, "udakoak bete-betean" diren produktuak zein udazkeneko lehenengoak egongo dira salgai.

Horiez gain, beste postu berezi batzuk ere egongo dira: Harreman erakundearen bidezko merkataritza postua, udako produktuez egindako pintxoan das-



Baserritarren azoka. | ARTXIBOA

tatzerako postua, Arabatik datorenen pastelena, iparraldetik datozen gutiziena, baserriko tresneria salgai duena eta uken-duetarako belarrez zein halako produktuez osatutakoa, besteak beste. Beraz, hileko hirugarren zapatuan egiten den azokaren barruan, ohikoak diren postuak izango dira.

Bihar, gainera, baserritarren azokaren ondoan egongo da Mugikortasun Astearren barruan antolatzen den Birzikleta Azoka.

Yoga egiteko aukera egongo da aurten ere Txindoki dorrean

Ikasturte berriaren hasierarekin, aurten ere yoga egiteko aukera egongo da Txindoki dorrean; astelehen eta eguaztenetan, 09:30etik 11:00etara. Martitzen eta eguenetan, berri, 14:30etik 16:00etara edota 18:45etik 20:15era. Harremanetarako: 635 710 616 (Maitte) edo 943 78 31 26 (Ana).

PLAN INDARBERRITZAILEA

Udan eguzkipean egon ondoren, jar ezazu zure aurpegiaren eta gorputzaren azala puntuan.

Aurpegi garbitzea

%15eko deskontua*

Gorputz hidratazioa

%15eko deskontua*



SOLARIUMa
6 saio + 1 opari
45 €-gatik
bakarrik!**

AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09



* Eskaintza baliagarria urriaren 14ra arte

** Eskaintza baliagarria urriaren 4ra arte

Ibai-Arte txartela erabili izana saritzeko 100 saski banatuko dituzte bihar Biteri plazan, 13:15ean

Merkataritza Berdearen Astea ari da ospatzen Ibai-Arte merkataritza elkarteak. Hilaren 16tik aurrera poltsa berrerabilgarriak oparitzen dihardute bezeroen artean eta erakusleihoak "modu iraunkorrean" apaintzeko eskatu diete elkarteko merkatariei. Era berean, irailaren 1etik gaur arte Ibai-Arte txartela erabilia erosketaren bat egin dutenen artean zozketatutako 100 saskiak bihar banatuko dituzte Biteri plazan, 13:15ean. Saski horiek baserriko produktu ekologikoz osatutakoak izango dira: "Base-rritarrei lagundu eta euren lanari keinu bat egin gura izan diogu", adierazi du elkarteko Jesus Mari Elkorok.

Elkartruke ekimenaren ikasturte berriko lehen azoka bihar Azoka plazan, 10:00etatik 14:00etara

Trukearen kultura sustatu gura du Bagarak eta horretan sakontzen jarraitzeko "gogotsu" daude. Hala, Elkartruke azokaren ikasturteko lehen saioa egingo dute bihar; aurrez banatutako txartelak trukatzeko aukeraz gain, truke zuzenerako aukera ere egongo da. Biharko azokan, arropa, liburuak, apaingarriak eta bestelako hainbat objektu egongo dira, eta baita Maritxu Kajoi egunerako soineko, apaingarri eta bestelakoak trukatzeko gunea ere. Bagarakoek gogoratu dute Azoka plazan postu finkoa izango duela Elkartruke ekimenak, eta bihar bertan irekiko da lehen aldiz. 10:00etatik 14:00etara izango da.

Maritxu Kajoi eta udazkenerako azoka antolatu du Eskuartean taldeak hilaren 27rako Herriko Plazan

Arrasateko Eskuartean artisau taldeak azoka berezia antolatu du irailaren 27rako. Herriko Plazan izango da, 18:00etatik 21:00etara. Maritxu Kajoi egunaren aurreko egubakoitza da, eta, beraz, Nobenaixua ere ospatuko da bertan: "Eskuartean taldekook Maritxu Kajoi eta udazkenera begirako azoka antolatu dugu. Kolorez betetako dozena bat postu jarriko ditugu: bitxiak, mota guztietako osagarriak... Guztiak eskuz eta maitasunez eginak". Era berean, taldera gerturatu nahi duenari dei egin nahi diote; horretarako bi aukera daude: Facebook bidez *-Eskuartean* deitzen da taldea- eta e-posta bidez: *eskuartean@yahoo.es*.

Jose Gabriel Urizar 'Gautxori'-ri 197/2006 doktrina aplikatu diote, eta kondena 2016ra arte luzatu

Ettxerategi aditzera eman duenez, Jose Gabriel Urizar *Gautxori* preso arrasatearrari 197/2006 doktrina aplikatu diote. Urizar 1985ean atxilotu zuten, Saran, eta 1988an Espainiarartua izan bazen ere, 1986an hasi zen Espainiak ezarritako kondena betetzen. Irteera data 2014ko urtarrilerako izan arren, doktrina ezarri eta 2016ko irailaren 17ra arte luzatu diote kondena: "Ezinbestekoa da sufrimendu hau amaitzea, eta, hortaz, 197/2006 doktrina desagertzea", adierazi du Ettxerategi.

Madrilgo Motociclon taldeak kontzertua eskainiko du bihar gaztetxean (22:00), agur biraren barruan

Hamar urtez jo eta ke aritu ostean, Madrilgo Motociclon taldeak kontzertu bira abiatu du agur esateko. Euskal Herrian emango duten kontzertu bakarra bihar izango da, gaztetxean, 22:00etan. Punk-rock azkarra eta rock-and-roll zikina eskainiko dute, bateriaren eta baxuaren arteko base erritmiko indartsua, infernuko gitarra sutsuak zein heavyak eta deabrua bera dirudien abeslari lotsagabe eta zirikatzailea. Haien aurretik Arrasateko Bitter Honey eta Madrilgo Aulladores taldeak igoko dira agertokira.

Beste era batera mugitzen ohitzeko aste bukaera

Mugikortasun Astearen barruan, hainbat ekintza egingo dira bihar eta etzi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar eta etzi izango dira Mugikortasun Astearen barruan antolatutako ekintza potoloenak. Bihar, Birzikleta Azoka egingo da Seber Altube plazan eta emisio txikiko ibilgailuak probatzeko aukera egongo da Biteri plazan, baita horien gaineko erakusketa bat ikusteko ere. Zirkuitu bat egongo da oraindik ere gutxi erabiltzen ditugun ibilgailu horiek probatzeko. Bi ekintzotan parte hartzeko aukera 11:00etatik 15:00etara egongo da.

Domekan, berriz, bizikleta bira egingo dute Seber Altube plazatik irtenda (11:00). Eskoriatzara joango dira, Eskoriatzako Mugikortasun Astearekin bat egingo dute-eta. Beste urte batzuetan baino luzeagoa izango da ibilbidea, besteak beste, Gargartza auzoan geldialdia egin behar dutelako. 17 kilometro inguruko ibilbidea izango da.

Birzikleta Azokak, hamar urte

Birzikleta Azoka izan ohi da ekintzarik arrakastatsuenak. Aurten, gainera, berezia izango da hamar



lazko Birzikleta Azoka, Seber Altube plazan. | ARTXIBOA

urte beteko dituelako. Materiala uzteko aukera egon da atzo iluntzera arte eta, atzo bildu zena kontuan hartu gabe, 124 artikulu jaso dituzte. Errepideko bizikleta "askotxo" jaso dituztela esan digute Udaleko Ingurumen Sailako arduradunek. Beraz, 10. Birzikleta Azokan ere egongo da zer erosi.

Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabea-ri itzuliko zaio irailaren 26an

Udal Azokan, 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, Josu Pereda Ingurumen zinegotziak Mugikortasun Planaren barruan azken bi urteetan egin diren urratsen berri eman zuen Arrasate Irratian. Alde zaharraren peatonalizazioa eta TAO sistema jartzeko erabakia aipatu zituen, besteak beste. TAOren kasuan, gogora ekarri zuen asmoa dela abendurako martxan jartzea proba modura, unibertsitate inguruan.



Ekitaldia iragartzeko egindako agerraldia, Monterron parkean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Gu ere biktima moduan errekonozitzea gura dugu"

'Egia, justizia eta erreparazioa' lelo duen ekitaldia egingo dute bihar Kulturaten, 19:00etan hasita

J.B. | ARRASATE

ETAk jardun armatua behin betiko amaitutzat ematea erabaki zuenetik aro berriaren erakusle diren ekitaldi batzuk egin izan ditu ezker abertzaleak. Ekainean Miarrizten egin zena da horren adibide; gatazkaren konponbidea egituratzeko eta iheslarien etxeratzerako ordua iritsi dela aldarrikatu zuten bertan.

Illo horri eutsiz, Arrasateko ezker abertzaleak ekitaldi berezia antolatu du biharko; *Egia, justizia eta erreparazioa* izango

du lelo: "Gatazka politikoaren konponbiderako, aurrerapauso ona litzateke estatuek ekitaldiaren leloa izango diren hiru ekintzak betetzea", uste du Eneko Barberena ezker abertzaleko kideak. "Oraindik jende asko ari da sufritzen; preso senideak urrutira joan behar dira disperzioa dela-eta eta doktrina aplikatu zaien hainbat preso daude, azkena *Gautxori* arrasatearra", gaineratu du.

Ekitaldian, estatu espainiarren zein frantziarren erre-

presioa jasan duten arrasatearren testigantzak azaleratuko dituzte. Horien artean dago Jose Inazio Gaztañaga *Gazta*, 24 urte espetxean egon ondoren 2012ko martxoaren 30ean libre geratu zen Arrasateko preso ohia; aske geratu zen eguna ekarri digu gogora: "Teletestuan esaten ari ziren 33 preso askatu behar zituztela, eta, azkenean, hiru bakarrik askatu zituzten. Norbera poztu egiten da 24 urteren ondoren kalera irten behar duelako, baina jende asko geratu da barruan kalean egon behar zuena".

Ekitaldi "motza eta xumea"

Ekitaldirako bideo bat prestatu dute hainbat testigantzarekin; horietako bat, Olatz Etxaberena. 1975eko urriaren 5ean Kanpazar ostatuan tiroz hil zuten Iñaki Etxaberen alaba da: "10 urte nituen eta egun hartan etxean nengoen. Zarata batzuk entzun nituen eta behera jaitsi nintzenen aita lurrean botata ikusi nuen. Oso gogorra izan zen". Ez zen epaiketarik egon eta errekonozimendurik ez dela egon salatu du Etxabek: "Hori ere estatuaren erailketa bat izan zen, eta, beste batzuk moduan, gu ere biktima moduan errekonozitzea gura dugu, guri ere berdina ematea".

Ekitaldi "motza, xumea eta hunkigarria" izango dela aurreratu dute deitzaileek. Amaieran, Sortuko Joxean Agirrek egingo du berba. Kulturategi areto nagusia izango da, 19:00etan.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Mondrak Zumaiako izango du aurkari ligako lehen partiduan

Z.V.D.M. | ARRASATE
Gotzon Urtzelairen mutilek asteen emango diote hasiera ligari. Erregional Preferente mailan jokatuکو دۇتن اۇررەنەكو partiduan, Zumaiako hartuko dute. Domekan izango da norgehiagoka, Mojategin, 16:30ean.
Taldea nola ikusten duen galdetuta, denboraldi-aurrea ongi joan dela azaldu du. "Emaitza onak izan ditugu. Taldeak lehiarako konpromisosa dauka la ikusi dut; pozik nago, eta horrekin geratuko naiz". Aur-

kari gogorra izango dute aurrez aurre: "Abuztua ezkeror ari dira entrenatzen, baina etxean jokatzeak abantaila emango digu".
Neskek, aurreko astean
Neskek, ostera, aurreko domekan eman zioten hasiera ligari. Ez zuten emaitza onik erdietsi; etxean jokatutako partiduan Logroño izan zuten aurrez aurre eta 1-5 erakusten zuen markagailuak amaieran. Asteon, berriz, Reocin SDren aurka arituko dira, Kantabrian. Domekan jokatuko dute, 12:30ean.

Ointxe! taldekoek lagunartekoa jokatuکو دۇته domekan Iturripen

Z.V.D.M. | ARRASATE
Datorren astean hasiko da liga, eta, Arrasateko saskibaloitaldeko mutilak denboraldi-aurrea ari dira jokatzen. Domekan, esaterako, Ointxe!-ko 16 taldeek lagunarteko partiduaك jokatuکو دۇتۇتە Iturripen. 10:00etan hasita, egun osoa iraungo du ekimenak.
Taldea nagusiak 20:00etan jokatuko du. Aurretik, baina, Feliko Aialari eskerrak emanگو دۇتۇتە dizkiote, "elkartean urteetan egindako lanagatik".

Durangon, bigarren
Aurreko asteburuan Durango-ko Txapelketan izan ziren Ointxe! saskibaloitaldekoak. Bertan, arrasatearrek finala jokatuzuten, aurretik Loiolari 63-52 irabazita.
Baina ezin izan zuten txapelketa poltsikoratu, 75-69 galdu baitzuten Zarautzen aurka Josu Larreategiren mutilek.
Zarautzarrak izango dituzte aurkari, gainera, hilaren 28an jokatuko duten ligako aurreneko partiduan.

Hirugarren egin zuen Xabi Abasolok asteburuan Bartzelonan

Z.V.D.M. | ARRASATE
Enduro lasterketa jokatu zuten asteburuan Bartzelonan eta Arrasateko parte-hartzaile Xabi Abasolok hirugarren postua eskuratu zuen.
Motor berria estreinatu zuen Abasolok Katalunia aldean eta pozik azaldu da podiumeko hirugarren kuxara igotzeko aukera izan zuelako. "Oso lasterketa gogorra izan zen, baina polita, era berean. Esango nuke oso parekatuta egon zela norgehiagoka; batez ere, lehenengo zatia".

Aurreneko sailkatuarekin lehia bizia izan zuela azpimarratu du: "Oso-oso gertu joan ginen denbora osoan, baina erorikoa izan nuen eta segundo ugari galdu nituen".
Sailkapenean bigarren
Bigarren dago sailkapen orokorrean arrasatearra. "Hiru lasterketa geratzen dira, ea zortea daukadan!".
Hilabete barru Galizian egingo den lasterketarako prestatzen hasiko da: "Azken txanpa da eta gogotsu nago".

'Zuhaitz-Arte' erakusketa irekiko du Gorka Fernandezek

Gorka Fernandez arrasatearra bere lehenengo erakusketa irekiko du datorren egunean, hilak 26, Hilbehera tabernan. *Zuhaitz-Arte* izena ipini dio argazki erakusketari eta "zuhaitza bizitzaren sinbolo bat moduan" aurkeztuko du bertan. Bada, Fernandezek dozena bat argazki erakutsiko ditu.

'Ahora me ves' eta 'Monstruos University' asteburuan Amaian

Zinema itzuliko da Amaia bihartik aurrera. *Ahora me ves* emango dute bihar (19:30 eta 22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (20:30). Bestalde, *Monstruos University* eskainiko dute bihar eta etzi (17:00). Iraila amaitu bitartean, *Elysium* eta *Gru 2* filmak ere emango dituzte Amaia antzokian.



Ibai Zangituk emango du biharko ikastaroa. | IBAI ZANGITU

Ibai Zangitu | 'Egin zure pelikula!' tailerreko irakaslea

"Teoria irakatsi arren, biharko ikastaroa praktikoa izango da, batez ere"

Bihartik urriaren 9ra arte IV. Literaturjauziak izango dira; ikastaroak emango dio hasiera

Z.V.D.M. | ARRASATE
AEDk antolatutako IV. Literaturjauziak hasiko dira bihar. Filmak egiteko ikastaroa prestatu du euskara elkarteak, esaterako. Ibai Zangitu aretxabale-tarra arduratuko da *Egin zure pelikula!* tailerra emateaz.
Zer lortu gura da tailer horrekin?
Edozein pertsona gura duen bideoa egiteko gai izan dadin baliabideak ematea da gure asmo nagusia. Jende gaztea nahiko ibiltzen da horrelako kontuetan, egia da, baina ez da eurentzako eskaintza bakarrik. Oro har, interesa duten guztientzako proposamena dela esango nuke, eta parte hartzeko gogoia edukitzea nahikoa da.
AEDk antolatutako ekintza izanda, euskarazko filmak izango dira egin beharrekoak, ezta?
Nik ikastaroa euskaraz emango dut, eta parte hartzen dutenek ere euskaraz garatu beharko dute euren lana.
Goiz eta arratsalde iraungo du ikastaroak. Nola antolatuko duzu?
Hala da. Aurrena zerbait teorikoa landuko genuke, gidoiak nola egiten diren ikusiko dugu, edo nola grabatu behar den eta nola ez azalduko da, esaterako. Film laburren bat edo beste ere ikusiko dute parte-hartzaileek. Dena den, nahiko gaineratik azalduko dugu guztia, ikastaroak egun bakarra irauteak mugatu egiten baitu guztia. Egingo dugun gehiena praktikoa izango da: ideia bat pentsatuko dugu guztion artean eta gidoitxo bat idatzi, marrazkiak baliatuz *story-board* bat egin planoak ezagutzeko.

Ondoren, grabatzera irtengo gara. Arratsaldean, ostera, muntaketa lanak egingo dira, eta, behin amaituta, material hori Vimeo-ra edo Youtubera nola igo irakatsiko dut.
Orduan, zapatuan bertan egindakoa ikusgai ipintzea ere helburu izango duzu?
Bai, praktikari garrantzia ematen diodan momentutik, amaitutakoan ikusgai egotea interesgarria iruditzen zait.
Zuk badaukazu esperientzia horrelako kontuetan, ezta?
Betidanik gustatu izan zait mundu hau. Lau bat urte egin ditut ETBn lanean, kamera atzean. Baina, gainera, lagunekin batera ere beti egin izan ditut lan txikiak, film laburrak esaterako, eta lehiaketetara ere aurkeztu izan gara.
Hala ere, halako ikastaro bat ematen duzun lehenengo aldia da?
Bai, eta ilusioa egiten dit, gainera. Beti nago jendeari dakidan hori erakusteko animatuta, eta aukera polita dela iruditzen zait, gainera.
Biharko tailerrera izena eman dutenek euren tresnak eraman behar dituzte?
Ez dute zertan ekarri; hasiera baten, guk ipiniko dugu materiala. Baina norbaitek bere bideo zein argazki-kamera ekarri gura izanez gero, ongiatorria izango da. Horri zukua nola atera dakiokeen ere irakatsiko dugu.

Bigarren eskuko azoka eta saiheskia

Ikastaroa, baina, ez da izango bihar Literaturjauzien barruan egingo den ekimen bakarra. Hala, Zahar-Berri mintzapraktika programari laguntzeko eta dirua biltzeko asmoz, bigarren eskuko CD, DVD eta liburuen azoka egingo dute. Biteri plazaren eta Gazte Bulegoaren artean. Toki berean, bestalde, AEDk saiheski pintxoak eta edatekoak salduko ditu, 12:00etatik aurrera.

2013 - 2014
ikastaroak

PLAZAKO DANTZA
TRADIZIONALAK

HELDUENTZAT

Hastapeneko mailarako bi aukera:
ASTELEHENETAN edo OSTIRALETAN

Urria - Ekaina / Hasiera: urriak 7

Informazioa eta egitarauak:
www.herrixadantzan.com

IZENA EMATEKO EPEA: **Irailak 27**

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
HERRIXA DANTZAN: herrixadantzan@gmail.com

Antolatzailea

Portaloikultur Elkartea

Laguntzaileak

aed

arrasate euskal kultur diseinua

gaztebulegoa.com

Herriko kultura eta ondarea ezagutzeko eguna hilaren 21a

Kultura espazio itxietatik kalera aterako dute bihar herriko taldeek

'KULTURA KALEAN' Irailaren 21eko egitaraua

SAN MARTIN PLAZA

11:00 Bisita gidatu laburra.

11:30 Txistulariekin kalejira.

BILKUREN ARETOAN

11:30-12:00 Bergarako orkestra sinfonikoa, hari-kontzertua.

UDALETXEKO ARKUPEETAN

11:30-13:30 Arizondo elkarte, aholkularitza eta proiektzioak.

MUNIBE PLAZA

10:00-11:00 Bergarako musika eskola, instrumentuen erakustaldia.

11:00 Musika eta mugimendua tailerra.

12:00 Abesbatza tailerra.

ARIZNOA PLAZA

11:30 Bergarako erraldoi taldea, gaztetxoentzako tailerrak.

ZABALOTEGI

11:30-13:00 Taila eta zeramika elkartearen erakusketa.

11:30 Jardun elkarteak, dantza gidatuak.

ERREKALDE PARKEAN

12:00-13:30 Ilatargi elkarte, eguzki behaketa.

BIDEBERRI PARKEAN

11:00-13:30 Beart elkarte, pintura erakustaldia.

IRIZAR JAUREGIKO LORATEGIAN

13:00 Musiraka dantza taldea, emanaldia.

IRIZAR JAUREGIKO LORATEGIAN

13:30 Amaiera festa, talde guztiek batera, salda eta txorizoa banatuko dute.

*ERDIGUNEAN ZEHAR

Alai, Orfeoia eta Aritzeta taldeen emanaldia Bergarako kaleetan zehar.



Bihar parte hartuko duten talde guztiak udal ordezkariekin. | IMANOL GALLEGU

Euskararen aldeko lasterketa 29an

Oraingo asteburuan *Kultura kalean* egingo dute, eta hilaren 23tik 29ra *Kirola kalean* ekimena izango da. Gaur bertan emango dute astean barrena egongo diren ekitaldien berri, baina, Jardun euskara elkartetik aurreratu dutenez, hilaren 29an, *Euskaraz bizi nahi dut* herri lasterketa egongo da, erdiguneko kaleetan, 13:15ean.

Korrika, patinetan zein bizikletan egin ahal izango da eta ez da lehiarik izango; garrantzitsuena leloa lau haizetara zabaltzea izango da. Hala, egun horretarako kamisetak (10 euro) eta banderatzokak (3 euro) jarri dituzte salgai, Jardunen egoitzan.

M.B./I.G. | BERGARA

Bergara kultura talde ugari dituen herria den arren, jendeak ez ditu guztiak ezagutzen. Horretarako, bihar, talde guztiak kalera irten-go dira, bertatik jendearekin harreman zuzena izan ahal izateko. Helburu horrez gain, kultura taldeen arteko harremanak sendotzeko eguna ere izango da. Leire Iruinek hauex gaineratu du: "Kultura promozionatzeaz gainera, herriko ondarea ere zabaldu nahi dugu. Izan ere, bisitari asko izaten ditugu, eta, askotan, herritarrok ez dugu gure ondarea ezagutzen". Horrenbestez, biharko eguna Bergararen kultura ezagutarazteko eguna ere izango da.

Horretarako, elkarte bakoitzak bere lana erakutsiko du herrian zehar. San Martin plazaren ingurua izango da gune garrantzitsuena. Taila eta zeramika taldeak izan ezik; haiek euren tailerreko ateak zabalduko dituzte. Gainontzekoak kalean arituko dira.

Musika eskolaren kasuan, instrumentu erakustaldiaz gain, umeentzako bi tailer antolatu dituzte. Eguna amaitzeko, guztiek batera festatxoa egingo dute Irizar jauregiko lorategian.

Parte-hartzaileen informazioa

Jendeak parte-hartzaileak hobeto ezagutzeko, talde guztien informazioa batzen duten eskuorriak banatuko dituzte. Horrela, ikus-kizunaz gozatzeaz gain, herriko taldeek euren proiektuak ezagutzera emango dituzte. "Jendeak taldea ezagutu arren, pertsona berriak erakartzeko aukera da hau", dio Carlos Etxanizek, Orfeoiko lehendakariak. Gainontzeko taldeek ere iritzi bera dute.

Kultura kalean zapatuan lehen aldiz egingo den arren, Udalak eta kultura taldeek urtero antolatzeke nahia azaldu dute.



MOISES AZPIAZU dantza taldea
BERGARA

2013 - 2014 DANTZA IKASTURTEA

urriaren 7an hasiko da



BATZAR INFORMATIBOA

(Aurreko ikasturtean, 2012-2013, matrikulatuta egon diren gurasoentzat zuzendua.)

Eguna: Irailak 26, osteguna.

Ordua: 19:00etan.

Lekua: Irizar jauregiko 3. pisuan

Etor zaitez!



Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 58 18 10 - www.txipi.com





Udal Musika Bandaren emanaldiak San Martin plaza bete zuen.

Bergararrak, oso gustura jaiekin

San Martin eguneko bandaren emanaldiak oso erantzun ona izan zuen

IMANOL GALLEGO | BERGARA

San Martin jaiak ongi joan dira, eta, bergarar asko bezala, Kultura zinegotzi Leire Iruin ere pozik dago: "Jende asko ibili da; festetan, parte hartzea da garrantzitsuena". Jai herrikoia diren heinean, betiko hitzorduek garrantzi berezia dute: "Banda eta azokak herriaren gustuko klasikoak dira".

Bi berrikuntza

San Martinen errepresentazioa luzatu egin zuten, eta jendeak gustura ikusi zuen. "Orain, ikus-kizun osoagoa da", zioen ikusle batek. Larrain-dantzak, berriz, musikariak gogotik saiatu arren, ez zuen erantzun masiborik izan. Ea hurrengoan jende gehiago animatzen den.

Argazki guztiak: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Nagusiek domeka gauaren isiltasuna danbor hotsekin hautsi zuten.



Txikiek, formazioa ez errespetatu arren, erritmoa fin-fin jarraitu zuten.



Gazteek gogotik zirikatut zituzten bigantxak. | ARGAZKILARIAK: J. ARANTZABAL, I. GALLEGO



San Martinen errepresentazioa.

Miguel Lazkano | Danborradako beterranoa

"Hasierako giroa herrikoia zen, Bergarako jendea ibiltzen zen"

Bandan hasi eta hamarkada baten ostean ekin zion danborra jotzeari; jarraitzeko asmoa du

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Bergarako danborradako beterranoetako bat da Miguel Lazkano. Bandan hasia, bizitza erdia baino gehiago darama danborradan parte hartzen. **la bizitza osoa daramazu danborradan. Zenbat urte?**

Mordoa. Bandan jotzen 13 urterekin hasi nintzen, eta 23 edo 24 urtera arte, 11 urte egon nintzen. Sopranoa jotzen hasi nintzen. Banda utzi nuenean danborra jotzeari ekin nion, eta gaur arte.

Zergatik aldatu zenuen banda danborradagatik?

Ez, banda laga egin nuen, ezkontzeko asmoa nuen orduan eta horregatik utzi nuen. Gero hasi nintzen danborra jotzen.

Zer gogoratzen duzu hasierako urte haietaz?

Garai hartan Umore Ona elkar-teak egiten zuen danborrada, Juan Mari Errasti zuzendari zuela. Gogoan dut urte batean argi-zuziekin atera zirela Umore Onakoak eta gu bandan jotzen, kearekin arnasa hartu ezinik ibili ginen.

Nolako zen orduko giroa?

Gaur baino pixka bat herrikoia goa zen, Bergarako jendea ibiltzen zen. Karrozekin irteten zen jendea, eta erreginak, damak... ibiltzen ziren. Polita izaten zen.



Miguel Lazkano. | JOSETXO ARANTZABAL

Pertsonaia horiek oraindik mantentzen dira?

Segitzen dute, baina orain banderadun moduan joaten dira, estandartearekin. Orain oso desberdina da danborrada.

Orain jende gehiagok jotzen du danborra, hasi ginenean 40-50 lagun ginen, ez gehiago. Aurreko domekan, berriz, 200 edo gehiago ibiliko ginen. Zortzi bat talde atera ginen eta bakoitzean 25 pertsona izango ginen, gutxi gorabehera.

Herrian hedatuago dago orain; lehen, elkarte bakarrazebilen eta gerora, taldeak gehitzen joan ziren.

Danborradan jarraitzeko asmorik baduzu aurrerantzean?

Ahal dugun bitartean, jarraituko dugu, ezina etorriko da.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA

Abokatua



HELBIDE BERRIAN:

Arte kale 16, beheka - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71

Urritik aurrera irakurketa kluba egongo da Udal Liburutegian

Parte-hartzea doakoa izango da eta izena hilaren 27ra arte eman daiteke

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Urritik aurrera irakurketa kluba izango da Udal Liburutegian, irakurtzea atsegin duten 18 urtez gorako herritar guztientzako. Kluba hizkuntzaren arabera bi taldetan banatuko da: euskarazkoa eta gaztelarazkoa, biak ere Jone Arroitauregiren gidaritzapean, eta hileko eguazten baten batuko dira –ikus ondoko taula.

Irakurketa klubak irakurtzeko zaletasuna duten edota irakurtzeko ohitura garatu nahi duten pertsonentzako bilgune izan nahi du eta, bereziki, euskaraz irakurtzeko gaitasuna garatu nahi dutenentzako aukera paregabea da.

Sentsazioak partekatzeak

Klubak egingo dituen bileretan ez dira irakurritako liburuen analisi tekniko eta literario sako-

FITXA	
KLUBAREN EZAUGARRIAK	
Helburua:	Irakurtzeko zaletasuna duten edo garatu nahi duten pertsonen bilgune izatea.
Tokia:	Udal Liburutegia.
Ordua:	18:00etatik aurrera.
2013ko egutegia:	
	Euskarazko taldea: urriaren 2a, azaroaren 6a eta abenduaren 4a.
	Gaztelarazko taldea: urriaren 9a, azaroaren 13a eta abenduaren 11.

nak egingo; izan ere, parte-hartzaileek liburuaren irakurketan izandako era guztietako sentsazioak elkarrekin partekatzeak aukera izango dute, hala nola

iritziak, norberaren gogoetak eta irakurketan izandako erraztasun zein zailtasunak partekatuko dituzte taldeko kideekin.

Klubaren funtzionamenduari dagokionez, sinplea eta malgua izango da: parte-hartzaileek, euren kabuz, liburu bera –hizkuntza bakoitzetik bat– irakurriko dute hilabeteko epean eta aurrez ezarritako datan bilduko dira horren inguruan berga egiteko.

Doako parte-hartzea

Irakurketa klubean parte-hartzea doakoa izango da eta, nahi izanez gero, pertsona berak bi taldeetan parte har dezake.

Izena emateko epea irailaren 27ra arte dago irekita eta horretarako nahikoa da liburutegia@bergara.net helbidera idaztea, 943 77 91 62 telefono zenbakira deitzea edo liburutegian bertan izena ematea, 08:30etik 20:30era.



Deba ibaiak kolore laranja zuen martitzenean. | BERGARAKO EQUO

Gobernu taldeak salatu egin du ibaiko isurketa

Gipuzkoako Ur Agentzia isurketaren jatorria aztertzen ari da dagozkion neurriak hartzeko

M.B. | BERGARA

Udal Gobernu Taldeak martitzenean Deba ibaian izandako isurketa salatu du. Hain zuzen, Mekoalde inguruan laranja kolorekoa azaldu zen ibaia. Hori ikusita,

Gipuzkoako Ur Agentziara jo zuen Udalak egoera aztertzeke eta oraindik ustezko isurketa zenak eragindako kalteak zehazteko. Ur Agentziak berehala bidali zuen teknikaria eta isurketa izan zela

konfirmatu zuen. Ikerketak zabalik jarraitzen du, isurketaren iturria eta arduraduna identifikatzeko eta haren aurka dagozkion neurriak hartzeko.

Hori dela eta, Gobernu Taldeak "sumina" adierazi du "guztiona den ondare natural horren zein herritarren osasunaren aurka egindako erasoagatik, eta gogo biziz" salatu du. Bestalde, halakorik berriz gerta ez dadin, areagotu egingo dute Ur Agentziarekin duten elkarlana eta herritarrei dei egiten diete ibaiaren zaintzan guztiok elkarrekin parte hartzeko. Horren harira, urriaren 13an, Deba ibaia auzolanean garbituko dela aurreratu dute. Gobernu taldeko kideek eta hainbat herritarrek hartuko dute parte.

Equok ere salatu egin du

Bergarako Equok ere salatu du gertakaria, eta gehitu du: "Bi urte dira ahateak lehenengo eta arrainak gero hilik agertu zirela eta oraindik ez dakigu nor izan den arduraduna. Normalizat hartzen ditugu uda partean egoten diren isurketak. Kontzientzia falta dago; ibaia denok zaindu behar dugu".

San Juan auzoan azoka egingo dute domekan eta plater konbinatuak dastatzeko aukera egongo da

Domekan, San Juango III. ortu lehiaketan parte hartu zuten ortuetako produktuak ikusteko aukera egongo da. 11:30ean zabalduko dute azoka, ermita ondoko plazatxoan, Obieta eta San Juan Erreka elkarrekin eta Tartufo jatetxeak antolatuta. Azokarekin batera, III. ortu lehiaketako argazkiak egongo dira ikusgai. Gainera, auzoko produktuak dastatzeko aukera egongo da, 12:30ean. Plater konbinatua eta edatekoa 6 eurotan emango dute.

Datorren domekan Forondan ospatuko den Alderdi Eguna joateko autobusa antolatu dute

Datorren irailaren 29an, domekan, Alderdi Egunaren 37. aldia ospatuko dute, urtero bezala, Forondako zelaian. Bergarak txosna izango du alderdiaren jai handian, eta Bergarako EAJK jakinarazten die txosnan bazkaldu nahi duten herritarrei eta autobusean joan nahi dutenei batzokian izena eman behar dutela. Batzokira joaterik ez dutenendako, 943 76 47 00 telefono zenbakian ere eman daiteke izena.

Dolmenen ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua egongo da domekan eta izen-ematea zabalik dago

Dolmenen ibilbideak Elgoibar, Soraluze eta Bergarako udalerriak lotzen ditu eta edertasun eta balio handiko kultura eta historia ondarea dauka. Hain zuzen, Elosua-Plazentzia estazio megalitikoak osatzen duten tumulu eta dolmen multzoa ikus daiteke. 10:00etan abiatuko da bisita, Karakateko aparkalekutik. Hiru ordu eta erdi iraungo du eta 7 urtetik gorakoentzat da. Izen-ematea derrigorezkoa da 943 77 91 28, 943 19 11 72 edo 695 78 36 56 zenbakian.

Zabalik dago Udal Euskaltegian izena emateko epea eta berrikuntza gisa berba lantzeko saioak daude

Ikasturte berria hastear da Udal Euskaltegian eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Euskara maila guztietarako eskolak emango dituzte eta aurren, berrikuntza moduan, berba lantzeko saioak ere egingo dituzte. Izena emateko epea irailaren 26ra arte izango da, euskaltegiak Irizar jauregian duen egoitzan, 08:30etik 13:00etara eta 14:30etik 18:30era. 943 76 44 53 telefono zenbakira ere dei egin daiteke.

Txapa Irrati libreak irailaren 22an gaztetxean egingo duen batzar irekirako dei egin du

Twitterren, Facebooken eta telebista digitalaren aroan, klik batzuen bitartez munduko edozein txokoetara hel gaitzkeen garai hauetan, Txapa Irratiak 30 urte beteko ditu. Irratiko kideek, beste 30 urte uhinetan egoteko helburuarekin, dei egiten diete irratsaioren bat egin nahiko luketen herritarrei hilaren 22an gaztetxean 19:00etan egingo duten batzar irekian parte hartzeko.

Bi norgehiagoka jokatu dituzte gaur iluntzean Udal Pilotalekuan: kadeteena eta nagusiena

Bergarako pilotariak bi norgehiagoka izango dituzte gaur iluntzean etxean. 19:30ean hasiko dituzte lehiak: Bergarak eta Antiguak eskuz binakako kadete mailako partidua jokatu dute lehenengo; horren ondoren, Bergarak eta Aurrera Saizek eskuz binakako nagusien lehia hasiko dute. Hirugarren mailako nagusiek Aginagan jokatu dute, Usurbilen aurka, 18:30ean.

ENERGIA ZIURTAGIRIA

ARKITEKTOAK

www.beb-ark.com

IÑAKI BERASATEGI
ELISABETH ENA
XABIER BERASATEGI
IÑAKI ARREGI

I.T.E.

ERAIKINEN AZTERKETA TEKNIKO

estudio@beb-ark.com

943 76 03 46

Barrenkale 7 Bergara



Ontzi arinak plastiko horietan jasota esekitokietan, Errekalden. | MIREIA BIKUÑA

Hondakinen ia %81 batu da atez ateko sistemarekin

Udal Gobernuak eta oposizioak "herritarrek erakutsi duten ardura" azpimarratu dute datuak jakin ostean

O.E. / J.B. | OÑATI

Oñatiko Udal Gobernuak atez atekoaren gaineko datuak eman ditu aditzera; hondakinen biltze sistema hori abian jarri zenetik bi hilabete pasa dira. 2012ko uztaillean eta abuztuan %26,36ko gaikako bilketa-maila izatetik, 2013an –bi hilabete horietan eta sistema martxan jarri berritan– %80,96ko gaikako bilketa-maila lortzera pasa dira. Datuok kontuan izanik, Udal Gobernu Taldeak herritarrak zoriondu ditu, "hondakinen kudeaketan erakutsi duten arduragatik".

Udalak emandako datuen arabera, 2012ko uztail-abuztuan, guztira, 457.068 kilo errefus (edukiontzia berdea) jaso ziren, eta

2013ko uztail-abuztuan, guztira, 79.682 kilo. Gaikako bilketa-maila, beraz, ia %81era iritsi da lehen bi hilabeteetan. Gaikako bilketa-maila horretan, hirigunea, landa eremua eta ostalaritza ez ezik, industriako biletako datuak ere aintzat hartu dira.

Balorazio positiboa Gobernuak

Atez atekoak orain arte eman dituen datuen balorazio positiboa egiten du Udal Gobernuak. Mikel Biain alkatearendako ere oso datu esanguratsuak dira jasotakoak. "Datu esanguratsuen da, eta nik ere hori azpimarratu nahiko nuke, 2012an ontzi berdeetan batu zena, hondakin guztiak nahastuta, 257.000 kilo izan

zela eta egun 80.000 kilora ez dela heltzen. Oso datu ona da", dio. Emaizta horretan herritarrek izan duten jokaera ere azpimarratu gura izan du alkateak: "Hasieratik ondo egokitu dira, errespetu handiarekin, eta zorionak eman gura dizkiet guztiei".

Herritarren jarreraz gain, Udal Gobernuak gai honen inguruan egin duen "saiakera berezia" ere aipatu du Mikel Biain alkateak lehen datuen balorazioa egiterakoan. "Ika-mika handia sortu duen gaia da eta saiatu gara komunikatzen gauzak ondo egitearen aldeko pausoa dela hondakinen atez ateko bilketa. Saiakera berezia egin dugu, informetuta egon dira herritarrak, eta

ondo erantzun dute. Hasierako mamuak ere uxatu egin dira. Jende asko etorri zaigu esatera modu batera pentsatu arren behin sistema martxan ikusi dutenean herria garbiago ikusten dutela. Egia da modu honek lan gehiago eskatzen duela, kuboa, ontzia, batzera joan behar delako gero, baina balorazio orokorra oso positiboa da", adierazi zuen Biainek atzo, eguna, goizean.

Bosgarren edukiontzia

Bilduz gain, Oñatiko udalbatza osatzen duen EAJ alderdiak ere irakurri ditu atez ateko sistemak biltzetan inguruan utzi dituen lehen datuak. Alderdi jeltzaleko Lourdes Idoiaga bozeramaileak ere herritarrak izan ditu gogoan. "Azpimarratu gura dugu herritarrek nolako arduraz eta diziplinaz jokatu duten, nahiz eta sistemaren aurka egon. Horrek adierazi gura du Oñatiko herritarrek bosgarren edukiontzia ere arduraz jokatuko luketela".

Horrekin batera, baina, herritarrak kezkatuta daudela ere adierazi du Idoiagak: "Kezkatuta daude eta kontra agertzen dira hondakin biketa honek dakarren menpekotasunaz: ordutegiaren-gatik eta bestelakoengatik. Bestalde, kexa dezente daude auzo-konpostaren inguruan".

Jarraipen batzordea

Hondakinen bilketa sistema horri jarraipena egiteko eta sistema bera hobetzeko, Herritarren Jarraipen batzordea osatu zuten joan den uztaillean. Atez ateko sistemak dituen gabeziak aztertu eta hobekuntzarako proposamenak egingo ditu. "Gauzak hobetzeko badaude, bai, eta jarraipen batzorde bat sortu da. Foru irekia da, edozeinek parte har dezake, betiere sistema hobetzeko ekarpenak egiten baditu", zehaztu du alkateak. EAJk ere egingo dio jarraipena sistemari. "Ze azpiegituratara doazen hemen batutako hondakinak, ze kostu etorriko den, nola etorriko den ... gai horren jarraipena egingo dugu", adierazi du Idoiagak.

Jarraipen batzordeak urrian egingo du hurrengo bilera.

Herrian autorik gabe ibiltzeko eguna da gaur

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Autorik Gabeko Eguna da gaur Oñatin. Horrela, egun osoan alde zaharreko kaleak (Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko kalea) itxita egongo dira autoendako. Portu kalea eta Euskadi etorbidea motordun ibilgailuendako itxiko dituzte eta oinezkoek eta txirrindulariek izango dute lehentasuna. 07:00etatik 09:00etara lanera edo eskolara oinez edo bizikletan doazenei gosaria banatuko diete Txaketuaneko bidegurutzean eta txirrindulariek tinbre bat jasoko dute opari. Astelehenen hasi zen Mugikortasun Astearen barruan dagoen ekimena da. Bestalde, bisita gidatua egingo dute herrian 18:00etan, euskaraz. Bihar, bizikleta tailer soziala izango da Errementari plazan.

Artzainak eta ardiak Gure Esku Dagoren aurkezpenean

O.E. | OÑATI

Oñatiko Gure Esku Dago taldeak aurkezpen ekitaldia egingo du bihar, zapatua. Agerraldi soila izan barik, ezohiko aurkezpena egingo dute. Domekan jokatuko den nazioarteko artzain-txakur txapelketa haintzat hartuta, artzain euskaldun batek eta kataluniar batek hartuko dute parte. Artzainetako bat Etxaluzetik abiatuko da artaldearekin eta bestea, Kale Zaharretik. Foruen plazan egingo dute topo biek. 12:30ean abiatuko dira, nor bere tokitik, eta Oñatiko Gure Esku Dago taldeko kideekin elkartzeko dira gero plazan.

Taldearen aurkezpenarekin batera, taldearen nahia ere azalduko dute.

Txosnetako sukaldeko dirua, Berria taldearentzat

Aurtengo jaietan txosnetako sukaldean batzen den dirua Berria taldearendako izango da. Oñatiko Berriaren Lagunak izango du jaietan sukalde horren ardura. Txosna batzordeak Berriari laguntzeko izan duen ekimena da. Berriaren egoera eta etorkizuna azaltzeko, Juan Mari Larrarte izan da asteon kultura etxean.



IRATI GOITIA

Euskal Herriko bertso txapelketa nagusirako sarrerak Txokolateixan

Abenduaren 15ean jokatuko da Euskal Herriko bertso txapelketa nagusiko finala, BECen, eta saio horretarako sarrerak salgai daude dagoneko Txokolateixan. Finalerako sarrerak 30 euro balio du, bazkarikoak 18 euro eta autobusekoak 13 euro. Finalerako sarrerak arruntak dira; hau da, Bertsozale elkarteak ez bazkideentzat dira. Bazkideek, onura izateko, Internet bidez erosi beharko dituzte sarrerak. Bazkarirako eta autobuserako txartelak berdinak dira bazkide nahiz ez bazkideentzat. Txapelketako lehen saioa hilaren 29an da, Villabona-Amasan.



Ingelesa:
3-12 urte bitartean.

Metodoa:
Britainia Handiko ikastetxeetakoa.

www.english-kids.es
Tel.: 680 39 80 22
Oñati

Txakurrarekin eta ardiekin duten abilezia erakusteko gogoz

12 artzainek parte hartuko dute nazioarteko txapelketan, domekan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

54. nazioarteko artzain-txakur txapelketa domekan jokatuko dute. 11:00etan, Santa Lutziako zelaian egongo dira 12 protagonistak (ikus ondoko taula). Edo zehatzago esanda, 24 protagonistak. Artzainak eta txakurrak. Azken finean, bien arteko lana izango da nagusi eta ikusgai. Txakurraren eta ardiekin duten abilezia erakusteko gogoz, txapelketa garrantzitsuenetako irabazleak eta finalistak egongo dira Oñatin: besteak beste, Gipuzkoa-ko, Bizkaiko, Nafarroako eta Kataluniako txapeldunak.

Aurten ez da Debagoieneko ordezkariarik egongo.

Bi ariketa

Txapelketan ez dago berrikuntzarik. "Egia esan, urtetik urtera daukagun berrikuntza parte-hartzaileak dira. Eta horietako asko urtez urte errepikatzen dira", esan digu Jose Mari Bengoa antolatzaileak.

Txakurrek bi proba egin beharko dituzte. Lehenengoan, artzainaren aginduei kasu eginez, artaldea hartu eta zelaiaren erdian dagoen hesitik pasatu beharko du; ondoren, zelai barrenean dagoen makila baten ondora eramango du artaldea; eta bukatzeko, epaimahaiak adierazitako hesitik pasatu beharko du: eskuintetik edo ezkerretik.

Bigarren ariketan, bandera-txoekin egindako bidetik joan, artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartu beharko du. Ari-keta bukatzeko, ardiak eskortatik atera beharko ditu.

Nazioarteko artzain-txakur txapelketak bi sarrerara ditu: Berezaotik eta San Martindik. Azken horretan, umeen gozamenerako, pottokak egongo dira. Sarrerak hiru euro balio du.

PARTE-HARTZAILEAK

ARTZAINA	HERRIA	TXAKURRA
Juli Bayot 2012ko txapeldunordea	Ares del Maestrat (Castello)	'Xixpa'
Jose Urien Euskadiko Txapelketan sailkatua	Abadiño (Bizkaia)	'Bizka'
Enrike Mendiguren Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna	Orozko (Bizkaia)	'Riki II'
Jose Mari Jauregi Arabako txapelduna	Illarduia (Araba)	'Leze'
Antonio Alustiza Nafarroako txapelduna	Areso (Nafarroa)	'Bat'
Juan Jose Arrizabalaga Gipuzkoako txapelduna	Elgoibar (Gipuzkoa)	'Azkar'
Hilario Novillo Kataluniako bigarrena	Sant Pedor (Bartzelona)	'Witney'
Jose Mari Pleguezuelos Kataluniako txapelduna	La Canonja (Tarragona)	'Kim'
Ismael Boix Castelloko txapelduna	Morella (Castello)	'Dover'
Jean Paul Irikin Iparraldeko txapelduna	Itsasu (Lapurd)	'Xintxo'
Joxe Jauretxe Iparraldeko bigarrena	Baigorri (Nafarroa Beherea)	'Gaita'
Stephanie Fonda Frantziako Txapelketan sailkatua	Saint-Andre de Varbergue (Frantzia)	'Fjord'



lazko irabazlea: Aresoko Antonio Alustitza eta Tiki txakurra . | GOIENA

'Mendia eta natura' argazki lehiaketa deitu du Aloña Mendik

Lanak entregatzeko azken eguna urriaren 13a da

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak mendia eta natura oinarri dituen argazki lehiaketaren hamargarren ekitaldia deitu du.

Dagoeneko zabaldu dute lanak aurkezteko epea. Interesatuak urriaren 13a baino lehen entregatu behar dituzte lanak, Internet bidez www.concursosdigitales.com atarian edo aloñamendi.mendi@gmail.com helbidean.

Hiru gai

Mendi sailak antolatzen duen lehiaketan hiru maila egongo dira, gaiaren arabera banatuta:

Gizakia mendian delakoa (alpinismoa, korrika, eskalada, parapentea, mendiko eskia...); *Mendi ingurunea* (mendiak, basoak, errekek, fauna, makroak...); eta *Gizakiaren eragina mendian* (gizakiaren gehiegikeriak salatzen dituzten erretratuak).

Iaz, 234 erretratu

Iaz, lehen aldiz, Concursos Digitales plataformaren bidez egin zuten deialdia, eta inoiz baino erretratu gehiago jaso zituzten. 234, guztira, inoizko kopuru handiena. Antolatzaileek balorazio "oso positiboa" egin zuten.

Mendiko kaleko komertzioetako produktuak kalera

M.B. | OÑATI

Mendiko kaleko komertzioak bultzatzeko asmotan, han dauden lau dendek ekitaldi berezia egingo dute gaur: 20:00etatik 22:00etara arte zabalik egongo dira Garai harategia, Osi Kirolak denda, Maibi Dekorazioa eta Ehungintza eta Beloki. Amaia Diaz de Monasteriogurenen laguntza izango dute. Hori horrela, Garai harategiko pintxoak probatzeko eta lau dendetan erosteko aukera izango dute herritarrek. Erosleen artean txartelak banatu eta zozketa egingo dute.



lazko umeen danborrada Foruen plazan. | ANABEL DOMINGUEZ

Biharko haurren danborradan karroza irtengo da berriz ere

TXOMIN MADINA | OÑATI

Urtero legez, 18:00etan abiatuko da bihar umeen danborrada. Ibilbidean ez da aparteko nobedaderik egongo; izan ere, Santa Marina plazatik irtengo dira neska-mutikoak, eta, herriko erdiguneko kaleetan ibili ostean, Foruen plazan amaituko dute ibilbidea.

Aurten, zortzi eta bederatzi urte bitarteko 150 neska-mutikok hartuko dute parte bertan: danbor jotzaileak lau konpainiatan banatuta irtengo dira, eta, horretaz gain, inudeek, sukaldariak, gastadoreak eta banderadunek ere ez dute hutsik egingo. Urgan eskolakoei egokitu zaie aurten zaldun irtetea, eta, hain zuzen ere, Haritz

Arregi eta Garazi Amilleta ibiliko dira zaldi gainean.

Karrozaren itzulera

Bihar, gainera, azken urteetan galduta egon den ohitura bat berreskuratuko dute. Izan ere, karroza bat ere egongo da danborradan: Potx eta Motx herriko pailazoen karroza, hain zuzen ere. Antolatzaileen esanetan, gainera, baliteke danborradara pailazo jantzita irteten direnek ere karrozara igotzeko aukera izatea. Hala, ikusleak moztortuta joatera animatu dituzte.

Arropei dagokienaz, danborradako parte-hartzaileek urriaren 3an bueltatu beharko dituzte, 19:00etatik 20:30era, Errekaldeko lokalean.

Herriko produktuz osatutako Herri Eguneko herri bazkarirako txartelak, astelehenetik salgai

Herri Eguneko herri bazkarirako txartelak astelehenetik aurrera erosi ahaliko izango dira Izarraitz, Arrano, Boga, Oñati eta Olakua tabernetan. 19 euro balio du txartelak, eta aurten ere menua herriko produktuz osatuta egongo da: pasta-entsalada, herriko harategietako okela gisatua, herriko ekoizleen gazta eta Jakione-ko irasagarra, eta kafea eta kopa izango da menua.

Ez!, Zuen Azkena eta Obstruccion Nasal taldeen kontzertua bihar San Martingo etxe okupatuan

Bihar gauean hiru taldek kontzertua eskainiko dute San Martingo etxe okupatuan. Ez!, Zuen Azkena eta Obstruccion Nasal izango dira hiru talde horiek, eta, kontzertua bera 21:00etan hasiko den arren, aurretik joaten direnak mokadutxo egiteko aukera ere izango dute, 19:30ean merienda egingo dutela iragarri dute-eta antolatzaileek.

Barrakak direla eta, arropen azoka Santa Marina plazan egingo dute datozen bi zapatuetan

Dagoeneko jarrita daude barrakak ohiko kokalekuan, Foruen plazan ondoko jolas-parkean, alegia, eta horrek zapatuetako arropen azoka lekuz aldatzea ekarriko du. Hain zuzen ere, bihar eta datorren astean Santa Marina plazan jarriko dituzte saltzaileak postuak eta urriaren 5ean, bestalde, Herri Egunean, ez da azokarik egongo.

Urteko mantentze-lanak direla eta, igerilekua itxita egongo da astelehenetik urriaren 8ra arte

Astelehenetik urriaren 8ko 14:00ak arte itxita egongo da Zubikoa kiroldegiko igerilekua, urteko mantentze-lanak egingo dituzte-eta bertan. Ohiko garbiketa eta desinfekzio lanak egingo dituzte, eta zenbait mantentze eta berrizketa lan egiteko ere aprobetxatuko dute. Hala, gune bustiko elbarrien aldagela berritu egingo dute eta igerilekuen ur biltegietan mantentze-lanak egingo dituzte.

Kirol hitzorduz beteta dator asteburua: tenisa, golfa, pilota...

Txirrindularitza proba bihar eta Euskadiko Arku Tiroketa Txapelketa domekan



Datorren astean, Oñatiko Pilota Txapelketa jokatu dute frontoian. | GOIENA

IRATI GOITIA | OÑATI

Kirola gustuko dutenek izango dute non gozatu asteburu honetan. Izan ere, San Migel jaiak direla -eta hainbat eta hainbat dira kirol hitzorduak.

Zozopasen arku tiroketan

Euskadiko Arku Tiroketa Txapelketa domekan izango da Zozopasen, V. San Migel sariarekin batera. "Proba bakarrean jokatuko dira sari biak. Goiz osokoa izango da proba. 09:30ean hasiko da eta eguerdira arte iraungo du", zehaztu digu Txantxiku Arkulariak taldeko Gorka Bikuñak. Ikustera doazenendako mezua: "Ez daitezela bakarrik ibili basoan; badaezpadako neurria da".

Bizikleta gainean

Bihar, Lehendakari Txapelketa-rako puntuagarria den 26. Oña-

tiko txirrindulari proba jokatuko da, 10:30ean.

Askotariko kirolak

Aloña Mendiko pilota sailak antolatuta, 30. San Migel pilota txapelketa jokatzen dabilza eta bihar izango dira finalaurrekoak Zubikoan, 17:00etan hasita. Gazteetan, Arteaga eta Sarasa Elordiren eta Otaduiren aurka lehiatuko dira. Eta afizionatuetan, Onsalo eta Telletxea arituko dira Arrietaren eta Peñasen aurka.

Golfzaleek ere badute hitzordua Ireloren: zapatuan gazte-txoenak lehiatuko dira, 17:30ean, eta domekan nagusiak, 10:30ean. Oñatitik ez ezik, kanpotik ere espero dute jendea.

31. San Migel tenis txapelketa ere jokatuko da Zubikoan bihartik aurrera; bakarka eta bikoteka.

XI. Ageriko Margo Lehiaketa izango da domekan; lanak erakusgai jarriko dira

I.G. | OÑATI

Oñatiko Margo Taldeak, Oñatiko Udalaren laguntzaz, XI. Ageriko Margo Lehiaketa antolatu du domeka honetarako.

Oinarriak eta erakusketa

Lanak aire zabalean egin behar dira, Oñatin bertan. Teknika eta formatua libreak izango

dira. Lanak 13:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dira OMTren egoitzan eta bakoitzak artelan bakarra aurkeztu ahal izango du. Sari-banaketa 14:30ean egingo dute.

Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute irailaren 23tik urriaren 7ra kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Martin Berasategi sukaldariaren hitzaldia gaur, Oinarriren 25. urteurrena ospatzeko

I.G. | OÑATI

Oinarri elkarteak 25 urte bete ditu eta ekintzaz betetako asteburua antolatu dute bazkideek.

Gaurko, Martin Berasategiren hitzaldia antolatu dute institutuan, 21:00etan, eta ondoren, bazkideendako afaria elkartean.

Biharko, mendi irteera antolatu dute, goizean. 12:00etan hasi-

ta, berriz, puzgarriak eta jolasak izango dira institutu aurrealdean eta 13:00etan, trikitilari eta bertsolariak. Horren ostean, bazkaria Unibertsitateko plazatzon eta arratsaldean mus txapelketa, bertsoak eta trikitilariak.

Domekan, hildako bazkide guztien aldeko meza agustindarretan eta ondoren, luncha.

Mus txapelketako V. San Migel saria jokatuko da bihar

Aurtengo San Migel eta Errosario jaien barruan, mus txapelketako V. San Migel saria jokatuko da bihar, 16:30ean hasita. Kale Zaharreko plazatzon izango da. Bikoteak 30 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko eta izen-ematea egunean bertan izango da, 15:30etik 16:15era.

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2013
Irailaren 16tik 22ra

EGITARAUA

■ **Irailak 21** Zapatua

- **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka
Seber Altube plaza
11:00–15:00
(*) Noiz eta nola batuko den materiala (*)
- **SEG WAY eta TRIKKE**
Biteri plaza / 11:00-14:00
- **ERAKUSKETA**
EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK – "Mugitzeko beste era bat"
Biteri plaza
11:00-15:00
Auto hibridoak eta elektrikoak, Paseoko bizikletak, tolesgarriak, eletrikoak, Segwayak ...

■ **Irailak 22** Domeka

- **BIZIKLETA BIRA**
Irteera: Seber Altube plaza
11:00

(*) **BIRZIKLETA azoka** -
Noiz eta nola batuko dugun materiala:

- Zer batuko dugu: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gupil, eskularruak, mailotak...
Materiala garbi eta egoera onean ekartzea eskatzen da.
- Noiz eta non batuko dugun materiala: Udal azokan
Irailaren 14, zapatua
11:00 – 13:00
Irailaren 17, martitzena, eta 19, eguena
11:00 – 13:00
17:00 – 19:00
- Salneurria jabeak jarriko dio
- Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailak 26an, eguena 17:00 - 19:00 udal azokan.

HIRIBUSA

DOAKOA

- Irailaren 16tik 21era, hiri busa DOAN.

** Adin txikiek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezela)**



Herriko Plazatik Santakurtz kalera igotzeko dauden eskailerak traba izan daitezke. | Z.V.D.M.

Aretxabaletako herria, nagusiekin atsegina

Basotxokoek Aretxabaleta nagusientzako toki atsegina ote den aztertu dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxabaleta nagusiak errespetatzen dituen herria ote den jakin guran, gogoeta egin dute 2012ko iraila ezkerko Eztabaidatzen Ikasteko Basotxoko taldean dauden kideek. Txosten bat kaleratu dute, eta, Pedro Etxebarria koordinatzaileak atzo hedabideen aurrean aditzera eman zuenez, "emaitza baikorra izan da, baina asko dago hobetzeko".

21 herritarrek parte hartu dute

Nazioarteko protokolo baten oinarritu dira Basotxokoak. "Munduko beste leku batzuetan egin da: Cancunen, Genevan, Melbournen... gurean, Bilbon eta Donostian, esaterako". Txostena egiten 21 lagun aritu dira eta etxebizitza, gizarte-parte hartzea, gizarteratzea, enplegua, komunikazioa eta informazioa, osasuna, garraioa eta beste aztertu dituzte.

Hala, ateratako ondorio ugariaren artetik, esaterako, herrian dauden jarlekuak behatu dituzte, eta, asko dauden arren, batzuk

ez dira erosoak eta toki batzuetan gehiago behar direla ondorioztatu dute. Irisgarritasunari dagokionez, esaterako, zenbait tokitan dauden eskailerek sortzen dituz-

ten arazoak aipatu dituzte. Zenbait dendatan prezioak ez direla agertzen eta funtsezkoa dela azaldu dute... "Egoera hobetzea denon eskuetan dagoen zerbait da".

Aste kulturala antolatu du Basotxok

Basotxok aste kulturala antolatu du hilaren 23tik 28ra bitartean. Astelehenean, 18:30ean hasita, *Pertsona nagusiak* izeneko argazki lehiaketa aurkeztuko dute eta jarraian, mokadutxo batekin gozatuko dute bertaratzen direnek.

Martitzenean, ostera, eskulanean erakusketa egingo dute eta gainera, mahai, igel eta doke jokoetan aritu ahal izango dira.

Eguaztenean, osteratxoa egingo dute; 10:00etan irtenda Arkarazo eta Areantza elizateetara abiatuko dira. Toki horietan kanpai-jotzea entzun eta indarrak hartzeko mokadutxoaren ondoren, bidegorritik itzuliko dira. Arratsaldean, berriz, Idiazabal gaztaren dastatzea egingo dute, 18:00etan hasita.

Eguenean, 17:00etan txokolate-jana egingo dute Basotxoko kideek eta egubakoitzean, aldiz, Aretxabaleta Atsegina txostena aurkeztuko diete bazkideei 17:00etan.

Aste kulturala amaitzeko, berriz, eta San Migelak aprobetxatuta, hilaren 28an Arrasateko, Eibarko eta Aretxabaletako kantu taldeak batuko dira elkartean, 11:30ean, eta herriko kaleetan ibiliko dira kantuan, festa girotzen.

Mitarte plaza jai-gune bilakatuko da bihar Urbaltz egunaren harira

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Urbaltz eguna ospatuko dute bihar Aretxabaletan. "Lehen, Urbaltzeko bazkideak bakarrik elkartzen ginen, baina 25. urteurrena zela-eta 2010ean elkartu ginenetik, herritarrekin batera ospatzen dugu urtero Urbaltz eguna". Hala eman du aditzera elkarteko Jose Luis Martinek.

Adin guztientzako ekintzak

Mitarte plaza bilakatuko da festaren gune nagusi, antolatzailerek prestatutako ekimen guztiak bertan egingo dituzte-eta: "Eguraldiak uzten baldin badigu, behintzat".

Gazteenentzako puzgarriak egongo dira, 11:00etatik aurre-

ra; umeen bazkaria egingo dute 14:00etan eta jolasekin gozatu-ko dute arratsaldean, 16:30ean hasita.

Bestalde, trikitilariak lagun-duta eta Mitartetik irtenda kalejira antolatu dute eguerdirako. Bazkaritarako ordua izango da 14:30ean eta bertsolariek eta trikitilariak girotuko dute bazkalostea.

Bestelako musika ere entzun ahal izango da bihar. Burning Flag taldeak aurreneko kontzertua eskainiko du etxekoan aurrean eta Los Galernako mutilek *Akelarre* disko berriko abestiak aurkeztuko dituzte, aurreko bi lanetako kantuez ahaztu barik.

Copreciren 50. urteurrenaren harira, 50 gailur egingo dituzte gaur eta bihar artean hamar lagunek

Coprecik 50 urte bete dituela-eta ekimen berezia prestatu dute bertako langile batzuek. Hain zuzen ere, gaur, 19:00etan irtenda, 50 gailur egin gura dituzte egun bakarrean hamar lagunek. Ohiturari jarraituz, udaletxe zaharreko aldaba jota abiatuko dira eta Murgain, Jarindo, Isuskitzea, Aizkorri, Orkatzategi eta Kurtzebarri igoko dituzte, besteak beste.

Haurren hazkuntzaren gaineko berbaldia egingo du Ana Bacigalupek hilaren 23an (astelehena)

Kuku Mikuk haurren hazkuntzaren gaineko hitzaldia antolatu du astelehenerako; Amalur Amatasunaren Laguntza Zentroko Ana Bacigalupek egingo du. Bi saio izango dira, 10:30ean edo 18:00etan -goizean parte hartu gura dutenek, kukumikuelkarte@gmail.com helbidera idatzi-. Bestalde, Kuku Mikuko bazkide egin gura dutenek urriaren 7ra arte dute aukera, helbide horretan.

Oraindik ere eman daiteke izena asteen hasi dituzten taitxi-txikung eskoletan parte hartzeko

Taitxi-txikung edo yoga energetikoko ikastaroak antolatu ditu Bizitza zentroak eta dagoeneko eman daiteke izena. Martitzenean eta eguenetan izango dira, 19:00etatik 20:30era. Nagusien taldeak, berriz, martitzenetan 17:00etatik 18:30era. Interesatuak aurreneko eskola doan har dezakete, proba gisa. Informazio gehiago eta izen-ematea, zentroan zein 635 72 08 36 zenbakian.

Ohiko ordutegia aldatu eta domeka honetan 11:00etan esango dute meza parrokian

Andoni Illarramendi parroko berria asteen hasiko da bere karguan, eta domekako parrokiako mezaren ordua aldatu egin dutela eman dute aditzera. Hala, 11:30ean barik 11:00etan esango dute meza; mojetan, aldiz, ohiko ordutegiari eutsiko dute, 09:00etan. Auzoetan, berriz, ez da mezarik esango domeka honetan.



60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.



Aretxabaleta Abesbatza ahots ederren bilgune 32 urteren ostean

Martitzenetan eta eguaztenetan elkartzen dira parrokiako lokaletan, 20:30ean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Beteranoa da Aretxabaleta Abesbatza; 1981a ezkerro elkartzen dira kideak kanturako. Urte hauetan gauzak asko aldatu direla eman du aditzera Angel Barandiaran

zuzendariak. "Zaletasunak aldatzen joan dira, eta, horren ondorioz, gure gisako koruan gazte gutxi hartzen dute parte". Dena dela, egun 38 lagunek osatutakoa da Aretxabaleta Abesbatza.

Herriarekiko konpromisoa

"San Jose egun batez hasi ginen kantuan. Hasiera-hasieratik konpromiso zehatza ipini genion gure buruari: herriko jai nagusietan parte hartzea, hain zuzen". Esan

eta bete. Hala, Urteberri egunean, Gabonetan, San Inazio egunean, Andramaixetan eta San Migeletan parte hartu izan dute kideek, besteak beste.

Askotariko estiloak interpretatu izan dituzte, gainera, Aretxabaleta Abesbatza osatzen duten kantuzaleek. "Gregorianoak, hemengo zein kanpoko folkloree-tako abestiak eta zarzuelak... Denetarik abestu izan dugu". Hala azaldu du Nuria Fernandez de Arroiabe presidenteak.

Munduan zehar bidaiatzen

Aretxabaletan ez ezik, kanpoan ere aritu izan dira. "Euskal Herriko hainbat txokotan kantatu izan dugu, noski, baina kanpoan ere sarritan ibili gara: Frantzia, AEBetan, Italian, Espainian...".

Badute zer kontatu, gainera. "Vaticanoko liturgia batean kantatzen zuen lehenengo euskal korua izan ginen; 1986an izan zen. Oroitzapen politak ditugu".

San Migel jaiak eta Copreci

Bestalde, datorren irailaren 29ean San Migel jaietan elkartuko dira, eta, Copreciren 50. urteurrena ospatzeko, emanaldi berezia egingo dute abesbatzako kideek. "Lantegia presente dagoen tokiko kantuak interpretatuko ditugu, Txina, Mexiko, Turkia, Brasil, Txekia eta Euskal Herria". Eta abesti horietariko batzuk dantze-kin girotuko dituzte, gainera. "Lantegia oso garrantzitsua izan da herriarentzat, merezi du. Zorionak, Copreci!".

Zirkuko pailazokerien esketxak domekan Zaraia aretoan

Domeka honetan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek *Kontxo*, *kontxo* ikuskizuna taularatuko dute Zaraia aretoan, 17:00etan hasita. Ohi duten moduan, irri bat marraztuko dute ikusle bakoitzaren aurpegietan.

Hain zuzen ere, askotari-ko esketxekin osatutako ordu-beteko saioa eskainiko dute hiru pailazoek: "Zirkuan ikusi ohi diren pailazokeriak izango dira, baina ukitu modernoarekin, hori bai". Sarrera hiru euro da.

'Bertso-eskola zabala' ekimenean parte hartzeko dei egin dute

Datorren hilaren 24an, martitzenean, "bertso-eskola bat nolakoa izan daitekeen probatzeko aukera" izango dute gura duten guztiek Aretxabaletan. Lekaixokak antolatu du ekimena, eta, bertso-eskolako Miren Amuritza eta Xabier Arenatza irakasleek gidatuta, ariketa errazak eta dibertigarriak egingo dituzte bertaratzen direnek. Antolatzailerik aditzera eman dutenez, 18:45ean hasiko da *Bertso-eskola zabala* ekimena, Arkupe kultur etxean.



Sopranoek, kontraltoek, tenoreek eta baxuek osatzen dute Aretxabaleta Abesbatza. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



ORLY
TABERNA



*Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



IZARTU
kafetegia



Iralabarri plaza
ARETXABALETA

puremanengine



kontzertua
IZARTU KAFETEGIAN
Irailaren 27an, barikuan, 23:00etan.

Azaroan gura dute abian jarri hondakinen proba

Batzar irekiak egin dituzte asteon sistema azaltzeko

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udalak batzar irekiak egin ditu asteon hondakinen bilketa sistema berriari buruzko azalpenak emateko. Proba pilotua Luis Ezeiza ikastetxean, zaharren egoitzan, kiroldegian, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan eta Gaztañadui-ko 27. eta 29. atarrietan egingo dute, eta eremu horretan bizi eta komertzioak dituztenei egon dira zuzenduta bilkura horiek.

Udal ordezkariak azaldu zuten azaro hasieran gura dutela "orain arte beste inon martxan jarri ez duten" sistema probatzen hasi, eta eskoriatzarren heren bati eragingo diola. Hiru hilabeteko iraupena izango duela eta horren bueltan, jarraipen batzordea osatuko dela ere adierazi zuten; sistema baloratzeko eta hobetzeko ardura izango du horrek. Probak emaitza onak ematen baditu, herri osora zabalduko litzateke, aurretik prozesu bera errepikatuta.

Eskape bakoitzeko karpeta

Baina, batzar informatiboak antolatzeaz gain, eskoriatzarren parte-hartzea ere bada helburua, eta, hortaz, proba pilotua hasi aurretik, hainbat erabaki hartu behar dituzte auzo horietako herriarrek. Atarrietako arduradunei karpeta bana banatu diete: besteak beste, posteen kokapenarekin ados dauden edo ez eta papera banaka edo komunitarioki jaso



Jendez lepo bete zen eguaztenean Ibarraundiko areto nagusia. | Z.V.M.

gura duten zehaztu behar dute. Karpeta hori irailaren 27a baino lehen eroan behar da Ibarraundi museora. Eta karpeta horietako informazioa aztertu eta jaso ostean, erakusketa jarriko dute museoan bertan, probari buruzko behin betiko azalpenekin. Esaterako, posteen kokagunea zehaztuko dute horretan.

Informazio bulegoa

Horrez gain, sor daitezkeen zalantza eta kezkei erantzuteko informazio bulegoa irekiko dute aste-

lehenean, hilak 23, museoan. Arreta zerbitzuak honako ordu-tegia du: asteleheneetik eguenera, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta egubakoitze-tan, goizez; 943 71 54 53 telefono zenbakia eta *hondakinak.eskoriatza@debagoiena.net* posta ere jarri dute herritarren eskura.

Bestalde, martitzenean, hilak 24, *Gestión de residuos, objetivos, comparación de modelos* izeneko hitzaldia egingo du Urnietako alkate ohi Mikel Izagirrek. Ibarraundin izango da, 19:00etan.

Skate jaia, goitibehera lasterketa eta bizikleta martxa izango dira

M.B. | ESKORIATZA

Mugi zaitez aire garbiago baten alde lelopean, Mugikortasun Astea egiten dabiltza egunotan Eskoriatzan. Gaur, egubakoitza, skate jaialdia egingo dute herri-ko tren geltoki zaharrean, 18:00etan. Askotariko ekintzak izango dira han, hala nola musika, ume eta gazteendako lehiaketak, sariak eta baita erakustaldiak ere. Azken horren bueltan, Long Board izeneko patinetea gertutik ezagutzeko aukera izango dute skate-gunera doazenek, Huheziko zenbait ikaslek osatzen duten Txoriburu elkartearen eskutik.

Bestalde, zapatuan, Goiti-beheren Apotzagako jaitsiera

egingo dute. Proba 15:30ean hasiko da, eta bost modalitate-tan ibiliko dira parte-hartzaileak: hain justu, pneumatika, arina, errodamendua banaka eta taldekoa eta kuartropalos bezala ezagutzen dena. Bi ordu inguru iraungo du probak.

Domekan, 10:00etan

Azkenik, domekan, urteroko Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikleta martxa egitea dago aurreikusita. Eskoriatzarrek 10:00etan irtengo dira plazatik, eta Arrasatetik bueltan gelditua egingo dute Torrebasen. Hamarretakoa egiteaz gain, jolasparke berria inauguratuko dute parte-hartzaileek.

Udako argazki onena bozka daiteke asteleheneetik, museoan

M.B. | ESKORIATZA

Aurtengo udako argazki lehiaketan jasotako irudi guztietatik 30 inguru aukeratu ditu Udaleko Garapen batzordeak, eta astelehenean, irailak 23, ikusgai jarriko dituzte Ibarraundi museoan. Egubakoitzera arte egongo da esandako erakusketazabalik, 09:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Antolatzaileek gogorarazi dute ikustearekin batera bozkatu ahal izango direla hilaren 27ra arte museoan bertan, edo Facebooken edo Eskoriatzako Udalaren webgunean. Denera,

hiru boto izango dira kontuan irabazlea aukeratzeko: bata Garapen batzordeak emango du; bigarrena, eskoriatzarrek Ibarraundin emandakoa; eta hirugarrenik, Internet eta sare sozialen bidez jasotakoa.

Sariak, adinaren arabera

Urriaren 2an jakinaraziko dituzte lehiaketako irabazleen izenak. Hiru sari banatuko dituzte, adinaren arabera: 15 urtetik beherakoek, 16 eta 49 urte bitartekoek eta hortik gorakoek 50 euroko txartela bana irabaziko dute, herriko merkatarien elkar-teko dendetan gastatzeko.

Zaharren egoitzako lanak hiru fasetan egingo dituzte

Lehenengoan, igogailua bigarren solairura eroango dute eta lau logela egokituko dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Gipuzkoako Diputazioarekin eta Eskoriatzako Udalarekin elkar-lanean, Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako patronatuak eraikina berritzeko proiektua gertatu du. Egokitzapenak hiru fasetan egingo dituzte: lehenengoan, igogailua egokituko dute. Egun, beheko solairutik lehenengora bakarrik doa, eta bigarrenaraino ere eraman nahi dute. Hori egin ostean, banako lau logela berrituko dituzte bigarren solairu horretan. Lanak amaitzean, egoitzak banako bederatzi logela izango ditu eta gainerakoak binakakoak izango dira.

Bigarren fasean, beheko solairuan egingo dituzte lanak. Jantokia pasagunea da orain, egoitzako hainbat gela lotzen ditu. Asmoa da ondoan dauden gela

eta komun zaharrak erabilera askotariko gela bilakatzea eta jantokiaren eta gela berri horren artean pasilloa egitea. Hirugarren fasean, lehen solairuan ibiliko dira langileak. Pasillo asko daude han, eta horietako batzuk kendu gura dituzte. Horrez gain, irteten diren beharrei erantzungo die Patronatuak. Diputazioak dagoeneko baimena eman dio patronatuari egoitza egoki dezan; orain, Udaletik pasa behar da.

Garagardo festa, atzeratuta

Bestalde, egoitza diruz laguntzeko ekintzak antolatzen dituzte herrian. Esaterako, urriaren 10tik 13ra bitartean garagardo festa egingo dute. Oraingo asteburuan egitea aurreikusita zegoen, baina karparekin arazoak egon dira eta urrian izango da.

Papalagi eta Bitz oñatiarrek joko dute bihar Azkoaga Enean

Kontzertuak daude bihar, zapatua, arratsaldean, Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelean. Papalagi eta Bitz talde oñatiarrak herria konkistatzeko asmotan etorriko dira, punk eta rock estiloak hoteleko lorategietara eramanda. Hain zuzen ere, musika emanaldia 19:00etan hasiko da eta bi ordu iraungo du.

Deba ibaia garbitzeko dei egin dute urriaren 13rako (domeka)

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, Deba ibaia garbituko dute urriaren 13an. Horrez gain, urriaren 19an, Arrasateko Epeleko araztegia gertutik ezagutzeko aukera izango dute eskoriatzarrek. Ekintza horiek urriaren 13tik 19ra izango den *Ura eta Erreka Deba Ibarrean* delako astearen barruan daude.



ANDER LARRAGAÑAGA

Jantzi berriak ditu Saski Eskolak

Eskoriatzako Kirol Elkarteko Saski Eskolaren aurtengo denboraldiaren aurkezpena egun dute asteon Manuel Muñoz kiroldegian. Jantzi berriein arituko dira Saski Eskolako neskak; Mondragon Linguaren babespean dago taldea aurtun ere. Martitzenean egindako agerraldian, elkarteko arduradunek esan zuten erronka nagusia neskek "ondo pasatzea" dela, "euren errendimendua hobetzeko".



Euskal gehiengo sindikalaren elkarretaratzea San Blas ermitaren ondoan. | AMAIA TXINTXURRETA

Elkarretaratzeak egin dira lan istripua salatzeko

33 urteko langile bat zendu zen herenegun Deskargako autobideko lanetan

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Euskal gehiengo sindikalak azken lan istripua salatzeko elkarretaratzea egin zuen atzo Antzuolako San Blas ermitaren ondoan. Comisiones Obrerasek, aldiz, Bergaran egin zuen salaketa.

"Baldintza eskasen eta prekaritatearen ondorioz" hildako langilearen heriotza salatu zuten bi elkarretaratzeetan. Antzuolan ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRUko ordezkariak batu ziren *Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzailea* lemarekin. Istripuaren ikerketa sakon bat egitea eta lehenbailehen erantzukizunak hartzea exijitu zuten LAB sindikatuko ordezkariak. Aldi berean, prebentzio ereduak helburu duen lan harremanetarako marko propio bat izatea eskatu zuten.

ELA sindikatuko Manu Tenak istripuaren egunean bertan adierazi zuen bere sindikatuak aste-bete lehenago jarri zuela salaketa Lan Ikuskaritzan obra horretako lan baldintzengatik:



Gorpua istripuaren lekutik eraman zuten unea. | IURE EIZAGIRRE

"Salaketa jarri genuen neurritz kanpoko lanaldiak egiten direlako, egunero 11 edo 12 ordu, aparteko orduak ez direlako ordaintzen eta oso erritmo azkarrean lan egiteko beharginak presionatzen direlako". Euren samina agertu zuten gertatutakoagatik.

Altzeta inguruan

Istripua eguazteneko 08:15ean gertatu zen Deskargako autobidea

egiteko egokitutako pista batean, Altzetara bidean. Lanean zebilen kamioi bat pistatik irten eta 10 metroko lubeta batetik erori zen. Kamioian harrapatuta geratu zen 33 urteko gidaria, J.I.A.R, eta larrialdi zerbitzuek ezin izan zuten onik atera.

Lurren desjabetzea

Istripu lekutik hurbileko lur eremua izan zuten hizpide martitzeneko udalbatzarrean. Antzuola-Bergara lanetarako, Aldundiak 4.334 metro koadroko lur eremua desjabetuko dio Udalari, 1.404 metro Altzeta baserrirako sarbiderako. Lanek iraun bitartean 5.658 metro koadroko hegala hartuko du Asaldegieta inguruan.

Gimnasioko kirol jaia bihar izango da eta Finalista Eguna etzi

I.E. | ANTZUOLA

Ikasturte amaieran ziren egitekoak kirol jaia udal gimnasioan baina atzeratu egin zuten, eta bihar egingo dute.

Aurreko asteko ate irekien ostean, gimnasioko eskaintza berriro doan ezagutzeko aukera izango dute antzuolarrek, bai fitness gelako eskaintza bai emandako ikastaroak.

10:00etan izango da lehen ekintza, aurtengo berrikuntza den body tono saioa. Gero spinning, tonifikazio zirkuitua eta zumba probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Gainera, indoor walking saio birtual berrien inguruko aholkularitza emango da.

Doakoak dira jarduerak, baina aurrez izena ematea komeni da gimnasioan bertan, 943 76 66 61 telefono zenbakian edo antzuolakogimnasioa@gmail.com helbidean.

Finalista Eguna domekan

Arrola mendi taldeak Finalista Eguna egingo du etzi. Oinez edo mendiko bizikletan egin daiteke irteera. Lehenengoak 08:30ean irtengo dira Herriko Plazatik eta bigarrenak, 09:30ean. Bien ibilbidea antzekoa izango da: Arrola puntara igo, Deskargara jaitsi eta indarren arabera, Trekutzerara zuzenean edo Irimo gainetik joan. Han hama-bitakoa izango dute.



I.E.

Azken erlojua ere konponduta

Lehenengo konpondu beharreko pieza batek izandako atzerapenagatik eta eguraldi txarragatik ondoren, elizako kanpandorreko erlojuaren konponketa aste batzuk atzeratu da. Jada, ordea, edozein angelutatik jakin dezakete ordua antzuolarrek.

Jaietako argazkien erakusketa bertan behera geratu da

Udalak gaur arte luzatu zuen jaietako argazkien lehiaketara lanak aurkezteko epea. Horrek asteburu honetarako iragarritako zegoen erakusketan ere eragingo du; izan ere, oraingoz, ez dute egingo erakusketarik. Aurrerago, nahikoa lan aurkezten badira, egingo da erakusketa.

OHARRAK

ODOL EMATEA IRAILAREN 26AN OLARAN ETXEAN

Odol emaile taldeak dei egin die herritarrei egunean odola ematera joan daitezen, 17:30etik aurrera Olananera.

EGUENEAN HASIKO DA ESKULANEN IKASTAROA

Gaur amaituko da helduen eskulan ikastaroko izen-ematea eta egunean hasiko da.

Udalak samina adierazi du

Antzuolako Udalak agiria kaleratu zuen istripua gertatu berrian. Hildakoaren inguruko samina eta elkartasuna adierazteaz gain, lan osasunari lehentasuna emango dion lan harremana eta prebentzio ereduak bultzatu beharra azpimarratu zuen.

Egitura arazoari aurre egiteko prebentzioa, prestakuntza eta lan segurtasun eta osasunaren kontrako delituen jazarpena nabarmendu, eta eragile eta erakundeek lana aldarrikatu zuen.

Aldundia, argitze lanean

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak berehala bertaratu ziren istripua gertatu zen lekura eta euren dolumina eta elkartasuna adierazi zuten. Antzuolako Udalak egindako adierazpenekin bat egiteaz batera, istripua zergatik gertatu den argitzeko eta ardurarik balego horiek zehazteko lan egingo dutela jakinarazi zuten. Arloko beste erakunde eta eragile batzuekin elkarlanean ari direla adierazi zuten, eta eguaztenean gertatutakoa epe motzean argitzea espero dutela gaineratu.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Iaz jende askok egin zuen bat Txirritola egunarekin. | ARTXIBOA

Euskara eta sagardoa ahoan, Txirritola eguna izango da etzi

Aurtengoa hamargarren edizioa izango denez, elkarte sortu zutenek egingo dute txotx irekiera

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen dako urteko egunik seinalatuenetakoa izango da domekakoa: Txirritola eguna. Gainera, aurtengoa berezia izango da, hamargarren edizioa izango delako. Elkarte 2000. urtean sortu zen, baina ordutik hona bederatzi alditan ospatu da Txirritola eguna; hau da, uztan izandako arazoengatik, bi urtean ezin izan zen egin: "Bi alditan ez zen sagardo nahikorik egon eta horregatik ez zen antolatu", adierazi digute

Txirritolakoe. Hala, edizio berezia denez, antolatzaileek pentsatu dute txotx irekiera euskara elkarte sortu zutenek egitea.

Sorreran parte hartu zuten, besteak beste, Mikel Arantzabalek, Ana Martiarenak, Juanito Ezeizak, Amaia Axpek, Rosa Mondragonek eta Laurane Zubiak.

Sagardogile batzuek, kale

Aurten hamar sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera egongo da: "Batek baino gehiagok kale egingo du, hainbat arrazoi-rengatik: sagardo gutxi dutela edo amaitu egin zaiela esan digute batzuek, sagardoa txarra irten zaiola esan digu beste batek...". Arazoak arazo, Aramaioko bertako sagardoak dastatu ahal izango dira, eta betikoa izango da funtzionamendua: basoa hartzeagatik ordaindu, eta gero, gura beste sagardo edan ahal izango da.

Bizente Goikoetxea plazan izango dira ekitaldiak. 11:30ean trikitilariak iragarriko dute egun bereziaren hasiera eta 12:00etan izango da txotx irekiera. Ondoren, sagardoaz gain, taloak eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Aurtengo nobedadea izango da, bestalde, Sastiñan irekiko duten argizaiola-erakusketa: "Alberto Barrondorekin harreman estua dugu, eta, argizaiolak erakusteko moduan zituela enteratu ginenean, pentsatu genuen modu egokia zela egun berezia osatzeko. Aspaldiko ohiturak dira, gure kulturaren parte direnak", diote antolatzaileek.

Nobedadea, argizaiola-erakusketa

Oleta auzoko Alberto Barrondo artisauren lana ikusteko aukera egongo da Sastiñan, 11:30etik 14:00etara. 34 argizaiola erakutsiko ditu Barrondok, eta, aurreratu digunez, lanon jatorria eta horiek egiteko prozesua zein den azalduko du, bideo eta guzti: "Otxandion ere ireki nuen erakusketa, eta, han egin nuen moduan, azalpenak emango ditut ikus-entzunezko baten laguntzarekin". Hilaren 23tik 26ra —biak barne— ere egongo da zabalik erakusketa, 18:00etatik 19:30era.



Barrondoren argizaiolak. | UDALA



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

"Ederto" joan zen Besaide eguna

Besaide egunaren gaineko balorazio ona egin du Orixol elkarteak: "Ederto joan zen eguna. Ez zuen euririk egin eta espero baino jende gehiago etorri zen; esaterako, salda amaitu egin zen", esan digu Mikel Muñozek. Orixolen hurrengo ekintza Aitor Aranaren omenezko mendi martxa izango da, hilaren 28an. Orixol eta Jarindo igoko dituzte.

Pedro Ignacio Barrutia eta Nardeaga kaleak itxita egongo dira bihar, zapatua, ralliesprinta dela-eta

Bihar egingo den Aramaioko ralliesprintaren 12. edizioaren ondorioz, Pedro Ignacio Barrutia —kale osoa, kultur etxe atzeko aparkalekua barne— eta Nardeaga kaleak —2. zenbakitik 16.era— itxita egongo dira, 08:00etatik lasterketa amaitzen denera arte. Era berean, Bizente Goikoetxea plazarako sarrera eta irteera guztiak irekiko dituzte.

Segiko kide izatea leporatuta dagoen Irati Muxikari babesak erakusteko batzarra hilaren 24an Sastiñan

Duela bi urtetik Aramaion bizi den Irati Muxika gazteari babesa eta elkartasuna adierazteko batzarra egingo dute datorren martitzenean, hilak 24, Sastiñan (20:00). Urriaren 14an 40 gazte epaituko dituzte Auzitegi Nazionalan, Segiko kide izatea leporatuta. Fiskaltzak sei urteko espetxe-zigorra eskatu du bakoitzarentako, eta gazte horien artean dago Muxika. Sastiñan egingo duten bileran, egoera salatu eta ekimenak antolatuko dituzte.

Eskola garraiorako eta euskara ikasteagatik dirulaguntzak eskatzeko azken eguna, irailaren 30a

Garraiorako laguntzak izango dira DBHko ikasleak —Institutukoak izan ezik— eta Batxilergoko goi edo erdi mailako heziketa zikloak zein unibertsitate mailako ikasketak egiten ari direnendako. Euskara ikasteagatik ematen diren laguntzak, berriz, 2012-2013 ikasturtean euskara ikastaroa egin dutenendako izango dira. Eskaera udaletxean egin beharko da, irailaren 30a baino lehen.



4. EDIZIOA
Kantari
goienakluba"
Euskara irabazle, denok irabazle!

Gaztetxo, Kantarin parte hartzen baduzu eta zure gurasoak Goiena Klubeko bazkide badira, irabazi Eroski Bidaien eskutik Port Aventura-ko bidaia.

Ez badira, bazkide egin daitezke
15 euro
bakarrik ordainduta*

Goiena Klubeko bazkide egiteko:
www.goienakluba.com
Zozketaren gaineko informazio guztia, berriz, hemen:
<http://blogak.goiena.net/kantari/>



*Izena emateko azken eguna: azaroaren 15a. Prezio hori 2013ari dagokio. 2014ko kuota, 50 euro.

ELGETA



Epaimahaiko kideak, iaz, lehiaketara aurkeztutako tortillak puntuatzen. | L.Z.

Badatoz Sagardo Eguna eta urteroko tortilla lehiaketa!

Egun osoko egitaraua prestatu du aurten gaztetxeak, bazkariarekin eta bertso-afariarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Bihar, zapatua, Sagardo Eguna izango dugu Elgetan. Parte hartze handia duen festa da, eta aurten egun osoko egitaraua aurkeztu dute gaztetxetik, bazkariarekin eta bertso-afariarekin.
Festa eguerdiko txikiteoarekin hasiko dute. Gaztetxetik abiatuko da kalejira, 12:30ean. 14:30ean

paella-jana egingo dute gaztetxean, eta 17:00etan hasiko da sagardoaren festa, doan banatuko baitute herriko tabernetan.

Tortilla lehiaketa
Eguneko hitzordu *serioa* 18:00etan hasiko da. Ahior taldeak irabazi zuen iaz tortilla lehiaketa, eta Bobaloo taldeak egin zuen ori-

Baserritarren azoka, 28an

Elgetako baserritarrek datorren zapatuan, hilak 28, egingo dute urteroko azoka. Bertan, inguruko baserrietan ekoiztutako produktuak erosteko aukera izango dute herritarrek, 10:30etik 13:00etara.

Herriko baserritarrek azokan parte hartzera animatu ditu Udalak, eta, horren harira, jakinarazi du interesatuek hilaren 23ra arte dutela udaletxean izena emateko.

Egun berean jokatuko dira Intxortako igoera eta Txorimalo lehiaketa.

ginalena. Bihar, berriz jokatuco da Elgetan parte hartze handien lortzen duen lehiaketa gastronomikoa. Iaz 21 talde izan ziren, eta gaztetxetik eskatu dute bari-ku arratsaldea aurretik liburutegian izena emateko.

Eguna borobiltzeko, triki-poteoa (20:00etan) eta bertso afaria (22:00etan) iragarri dituzte. Bertsotan Manex Agirre eta Jokin Labaien ibiliko dira.

Irteera gidatua domekan
Domekarako, berriz, hiru bat orduko irteera antolatu du Udalak Iraitz Lazkanoren eta Nerea Villaren gidaritzapean. Mirabillesko karobi frantsesaren eta Bergara eta Elgeta arteko bost mugarriren inguruko azalpenak emango dituzte: Asentzio, Iturutz, Etxaurria, Otegi eta Burdinoaga. Arropa eta oinetako egokiak janzteko gomendioa egin dute.

Aplikazio berria frontea ezagutzera emateko

Urriko urtemugarako ekitaldi sorta iragarri dute

L.Z. | ELGETA

Urriaren 4an beteko dira 77 urte Intxortako frontea ezarri zela. Hala, Udalak eta Intxorta 1937 kultur taldeak bost ekitaldi iragarri dituzte. Irailaren 26an, *Elgeta Memoria* izeneko mugikorrendako aplikazio berria aurkeztuko dute. "Aplikazio horren bidez, informazio ugari jaso ahal izango da geolokalizatutako argazki, bideo eta audio-giden bitartez. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez erabili ahal izango da".

Gernikaren suntsipenak garrantzi handia izango du urtemugan: erakusketa eta hitzaldia iragarri dituzte gaiaren inguruan. *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* ikus-entzunezkoa ere ikusgai izango da Elgetan, eta urriaren 8an *Consejo de guerra contra el clero vasco* izeneko liburuaren aurkezpena egingo dute kafe antzokian. Frontera egingo duten hurrengo bisita gidatua irailaren 29an izango da.

FRONTEAREN 77. URTEURRENA

IRAILAK 26, EGUENA

11:00 Aurkezpena: *Elgeta Memoria* mugikorrendako aplikazio berria.

URRIAK 2, EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia eta erakusketa: *Condor legioak* eragindako Gernikaren suntsipena.

URRIAK 3, EGUENA

19:00 Ikus-entzunezkoa: *Bergara 1936, gerra eta errepresioa*.

URRIAK 8, MARTITZENA

12:00 Aurkezpena: *Consejo de guerra contra el clero vasco* liburua.

Ekitaldi guztiak Espaloia kafe antzokian izango dira.



Bergara 1936, gerra eta errepresioa DVDaren grabazioa. | JOSUREN MURGIZU

FRONTENIS TXAPELKETA

Etenaldiaren ostean bueltan da txapelketa

GAURKO PARTIDUAK, 20:30EAN

Haritz Gallastegi-Enrike Eloro / Txema Cot-Juan Carlos Gartzia

Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua

Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Maria Irene Olabarria-Xanti Dosuna

Xabier Ubera-Iban Retolaza / Aitor Errarte-Mikel Zubiaurre

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:30EAN

Josu Arantzabal-Sergio Bouzas / Ander Gorosabel-Etor Vallo

Maidier Osa-Anartz Agirre / Idoia Serna-Asier Osoro

Iratxe Bravo-Iker Lopez / Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua

Landa ingurunerako eskaerak egiteko epea zabalik dago

Mendi nekazaritzak zabaldu du 2014. urterako proiektuak aurkezteko epea. Baserritarrek eta gainerako interesatuek idatziz aurkeztu behar dituzte eskaerak udaletxean. Urriaren 7a da azken eguna. Jasotako eskaerak baserritarren batzordean aztertuko dira ondoren.

Kirol jarduerak urrian hasiko dira, eta zabalik dago izena emateko epea

Yoga saioak hasita daude, baina gainerakoak urriaren 1ean ipiniko dituzte martxan. Eskaintzen diren jarduerak dira tai txia, erretiratuendako gimnasia, mantentze-GAP, spinninga, eskola kirola —bi talde— eta karatea. Zabalik jarraitzen du izena emateko epeak. Interesatuek udal-terera jo behar dute.

Bihar, 60 lagunek egun osoko txango egingo dute Errioxara

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatutako irteerak erantzun polita izan du, eta 60 laguneko autobusa irtengo da bihar, 08:30ean, Errioxa aldera. Goizean Logroñoko azoka ikusiko dute eta bazkaria Guardian egingo dute. Egun osoko txangoa izango da.

LEINTZ GATZAGA

Toki Ederrekoek bazkaria egin zuten zapatuan

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzagako jaiak amaitzeko, joan den zapatuan bazkaria egin zuten Toki Eder erretiratuen elkarteak kideek kultura etxean.

Nahiz eta herri txiki izan Leintz Gatzaga, lagun talde polita elkartu zen: 26 mahaikideren-

dako prestatu zuen Euxebio Villarrek bazkaria Gatzagako boluntario batzuen laguntzaz.

Goizeko txikiteoarekin hasi zuten zapatua eta gero kantuan ibili ziren. Horren ostean, bazkaria egin zuten eta bazkalondoa kantuan eman zuten. Bazkalostean, berriz, pilotalekuan joka-

tutako Dorletako Ama pilota txapelketaren finalak ikustera joan ziren batzuk.

Saria jaso zuten nagusienek

Bazkari ederra izan zela adierazi dute erretiratuek. Bazkaria bukatu eta berehala, Leintz Gatzagako erretiratu nagusienak omen-du zituzten, eta saria jaso zuten horregatik: 88 urteko Teodoro Plazaolak eta 95 urteko Matilde Arresek. Jakioneko kontserbekin eta ardo botilekin osatutako sorta bana jaso zuten.



Leintz Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteak zapatuan. | IÑAKI AGIRREURRETA



Entrenatzaile oñatiarra, joan den astean jokaturako Herreroren omenezkoan, taldekideekin berbetan. | I.SORIANO

ESKUBALOIA

Ford Mugarri gertu dago bihar kategoria estreinatzeko

Pablo Gartziaren mutilek ligako lehenengo partidua jokatuko dute Corralesen kontra (18:00, Musakola)

XABIER URZELAI | ARRASATE

Arrasateko eskubaloiarendako hastear dago denboraldi historikoa. Hamasei urte pasa ondoren taldea lehenengo maila nazionalera bueltatuko da-eta –Arrasate 1994-1995 denboraldian igo zen Lehenengo Nazionalera, eta bi denboraldi nazionala egin zituen kategoria horretan, 1997an Bigarren Nazionalera jaitsi ziren arte.

Hala, bihar, zapatua, estreinatuko dute kategoria, Kantabriako Corralesen kontra (Musakolako kiroldegia, 18:00).

Ze maila duten ikusteko gogoz

taldea osatu dute Eibarkoek, eta nahiz eta Pitxi Herreroren omenezkoan euren kontrako finala galdu egin genuen, partidu lehia-tua izan zen", adierazi zuen entrenatzaile oñatiarrak *Harmailatik* saioan. Hain zuzen, Eibarko taldea oso ondo ezagutzen duen Andoni Bernal jokalaria berretsi zuen hasteko deseatzin dau-dela, euren benetako maila neur-

ESANAK

"Kategoria honetan gauzak ondo egiteko defentsan dago gakoa, hor izan behar gara indartsuak"

PABLO GARTZIA | ENTRENATZAILEA

tzen hasteko. Bai, Arrasateko entrenatzaileak akats asko egin zituztela onartu zuen, horretarako daude lagunartekoak, eta horiek lehenbailehen zuzentzea da gakoa: "Nik garbi daukat maila honetan ondo defendatzea ezinbestekoa dela, hor egongo dela gakoa. Erasoan bakarrik jardunda ez dago ezer egiterik, ondoren defentsa gogor bat behar da, eta hor izandako hutsak zuzendu beharko ditugu lehenengo partidura begira".

Maila oneko eskubaloia

Arrasateko, Euskal Herriko talde indartsuenekin batera, Kantabriakoak eta Zaragozakoak izango ditu aurrean: "Maila ona da hau, Asobalen jokatu duten jokalariei bateranoak eta atzetik indarrez datozen gazteak batzen dituenak. Guk, berriz, azken urteotako taldeari eutsi diogu". Kontuan hartzekoa da Arrasateko jokalariekin batera Eskoriatzakoak, Aretxabaletakoak, Oñatiakoak... bailarako jokalariz osatutakoa dela Ford Mugarri, eta, jakina, horrek badu bere balioa.

Bestalde, denboraldiko gastuei aurre egiteko bazkide kanpaina abiarazi du klubak (20 euro).

TXIRRINDULARITZA

Oñatik hartuko du Lehendakari probako azken-aurrekoa

X.U. | ARRASATE

Amateur mailako txirrindularitza denboraldia amaitzear dago, eta urteko azken lasterketan murgilduta daude ziklistak. Egutegiari agur esateko, Lehendakari Txapelketan bi lasterketa geratzen dira, zapatuan Oñatin egingo dutena eta Zaldibiakoa, domekan.

Hala, San Migel jaien barruan, izen bera daraman lasterketa egingo dute bihar Oñatin, Olakua auzotik abiatuta (10:30).

100 kilometro

Antolatzaileek aurreikusten dute 100 kilometroko lasterketa 13:00 aldera amaituko dutela. Tartean, ziklistek Udako, Aztiriako eta Atagoiti-ko gainak gainditu beharko dituzte.



Antzuolako helmuga. | GOIENA

**FUTBOLA**

Aretxabaletaren eta Aloñaren arteko derbiak girotuko du ligako bigarren jardunaldia

Antzuolak etxean jokatuko du bihar eta Bergarak Donostian domekan

X.U. | ARRASATE

Ez dugu luze itxaron behar izan, bigarren jardunaldian iritsiko da-eta denboraldiko lehenengo derbia, Aretxabaletaren eta Aloña Mendiren artekoa. Oraindik motorrak berotzen dabilztzan honetan, domekan (16:30, Ibarra) gauza asko daude jokoan.

Etetik kanpora puntu bat batzea ez da uztia txarra, betiere, ondoren, etxean irabazi egiten bada. Hala, UDAko entrenatzailerak Albistegi Ibarrakoa zaleen aurrean gauzak ondo egiteko gogoz izango da, eta, aurreratu duenez, Touringen zelaian batutako puntua garaipen batekin borobiltzeko asmoz. Aloñak, bestalde, nahiz eta oso itxura polita erakutsi, galdu egin zuen joan den astean, baina, iaiz egin zuten moduan –onatiarrek irabazi egin zuten Ibarrakoa derbia–, bada, ligako oilarretako bati mokoka

egiteko gauza direla erakutsi nahiko dute.

Antzuola. Lagun Onaken kontra

Kategoriako nobedadea da Antzuola, baina joan den astean Anai-



Aretxabaletako Sanchez. | GOIENA

tasunaren zelaian puntu bat urratzeko gauza izan ziren. Eta hasiera baten, Juanina Garairen mutilek kanpoan baino gehiago, etxean izan behar dute indartsu. Horrenbestez, bihartik hasita (zapatua 17:00) hasi beharko dute antzuloarrek Estala futbol zelaia gotorleku bilakatzen.

Bergara hirugarren dago

Bergara hirugarren daga
Bergara da liga ondoren hasi duen
ordezkari debagoiendarra. Arra-
teren mutilek 2-1 irabazi zioten
joan den astean Vasconiari, eta,
garaipen horri esker, mahoneroek
hirugarren postuan hasi dute
liga. Domekan, ostera, ordu ezohi-
koan jokaturko dute, Berioaren
zelaian 12:00etan izango da-eta
partidua.

Bestalde, erregional preferentean Mondrak liga hasiko du domekan etxean, Zumaiakoren kontra (16:30).

AUTO LASTERKETA

Aramaioko rallysprintak ia 50 pilotu batuko ditu zapatuan irteera puntuan

Antolatzaileek azken hiru urteotako ibilbideari eutsiko diote (15:00)

XABIER URZELAI | ARRASATE

Bihar, zapatua, beteko ditu Aramaioko rallysprintak 12 urte, eta irteera puntuan 49 pilotu batuta egingo dute ospakizuna: "Kopuru polita da, lasterketa ondo joan dadin aproposa, eta, gainera, badirudi eguraldiak lagundu egingo duela", diosku antolatzaile lanetan dabilen Eneko Uribek. "Izan ere, pilotu gehiegi izatea ere arazoa da, antolatzaileendako buruhaustea".

Egia da iazko lasterketarekin alderatuta parte-hartze kopurua txikiagoa dela, iaz 68 pilotuk egin zuten-eta lasterketa. Eta arrazoi garbi bat dago: datorren asteburuan Donostia Hiria Gipuzkoako Rallya jokatu dute, eta pilotu askok hitzordu horri begira indarrak –eta sosak– gordetzea erabaki dute.

14:00etan errepedea moztu

Lehenengo txanda 15:00etan hasiko dute, eta antolatzaileek azken hiru urteotako ibilbideari eutsiko diote. Horrek esan nahi du autoak pilotalekua baino apur bat goragotik abiatuko direla, Uribarri auzorantz, handik Arexolara egiteko. Eta, azken edizioetan moduan, seguruenez,



Peugeot 205 autoa, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

jende gehien Uribarri auzoaren ostean dagoen saltoan, Arexola auzoan, eta Gantzagako bidegurutzean pilatuko da.

Etxeko pilotuei dagokienez, Inhar Amenabarrek ez dauka autoa gertu etxean erabiltzeko,

eta, hain zuzen ere, Gorka Idigoras da bailarako ordezkari bakarra. Aurrealdeko postuengatik borrokan, ostera, Gorka Antxustegi, Ander Arana, Joxe Labaka, Tarsicio eta Txus Jaio pilotuak izango dira.

GOITIBEHERAK

Goitibehera lasterketa izango da bihar Eskoriatzan, Euskal Ligarako puntuagarria

X.U. | ARRASATE

Euskal Herriko ligarako puntuagarria izango den goitibehera lasterketa egingo dute bihar Eskoriatzan. Proba 15:30ean hasiko dute, eta bost modalitateetan korrituko dute parte-hartzaileek: pneumatika, arina, errodamendua banaka eta taldekoa, eta kuantropalos bezala ezagutzen dena. Denera, gidariek hiru txanda izango dituzte Apo-

tzaga auzotik behera markarik onena egiteko: lehenengoan ibilaldia aztertuko dute, eta gainerako biak izango dira kronometratuak.

Lau eskoriatzar federatuta

Egun lau eskoriatzar daude EHko Inertzia Kiroletan federatuta: Iker eta Lander Medavilla, Mikel Oiartzabal eta Gorka Urrutia.

FUTBOLA

Gaur aurkeztuko ditu UDAk denboraldi berriko taldeak plazan

Aretxabaletako futbol taldeak jaialdia egingo du gaur, egubakoitza, Aretxabaletan –erdi-ko plazan izango da ekitaldia–. Eta jaialdi hori baliatuko dute 2013-2014 denboraldiko talde guztiak aurkezteaz batera Bertikal izeneko babesle berria aurkezteko. Ekitaldia hasteko, 17:30ean alebin mailako zazpiko futbol txapelketa egingo dute plazan eta 19:00etan talde guztiak aurkeztuko dituzte, jantzi berriekin. Ondoren, Lide Pagaldai eta Lur Gurrutxaga trikitilarien emanaldia izango da, eta Bertikal babesle berriaren jokoa ere erakutsiko dute.

ARKU TIROKETA

Euskadiko Txapelketa eta San Migel saria domekan Oñatin

Euskadiko Arku Tiroketa Txapelketa jokatu dute domekan Oñatin. Eta hitzordua aprobetxatuko dute San Migel saria ere jokatzeke. Hala, bi txapelketak Zozopasen jokatuko dituzte, Arantzazun, Bellotza aldean. Antolatzaileek, Txantxiku Arkulariek, basoan zehar prestatu duten ibilbidean egingo dituzte saioak, baina ez du aparteko zailtasunik izango. Hala, 09:30ean hasiko dute txapelketa eta eguerdira arte ibiliko dira. Guztira, 60 lagun espero dituzte, Euskal Herrikoak eta baita Burgoskoak, Errioxakoak eta Kantabriakoak ere.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



> **Renault Kangoo**
• 2011
• Diesela
• 19.340 Km
• Txuria



10.800 €

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

• Renault Kangoo Furgoa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Master Furgoa	8.500 €
2008 Diesela 137.855 Km Txuria	
• Renault Megane Sport Tourer	14.8501 €
2011 Diesela 11.037 Km Beige	
• Renault Clio	9.250 €
2010 Diesela 23.856 Km Urdina	
• Renault Clio Grand Tour	11.850 €
2012 Diesela 17.155 Km Grisa	
• Renault Twingo	8.450 €
2011 Diesela 9.654 Km Beltza	
• Dacia Sandero	8.850 €
2012 Gasolina 3.560 Km Grisa	



18.000 €

> **Citröen C4 Grand Picasso 1.6e HDI Millenium CMP**

2012 | Diesela | 31.443 Km | Gris Iluna

CHAPIME



Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citröen C3 1.4 Hdi ATRACTION 70	9.800 €
2011 Diesela 28.301 Km Gris Thorium	
• Citröen C3 PICASSO 1.6-HDi Exclusive 90	12.500 €
2012 Diesela 22.417 Km Gris Shark	
• Citröen C4 G.Picasso 1.6HDI Exclusive	21.250 €
2013 Diesela 1.500 Km Gris Iluna	
• Citröen C3 1.6e-HDi Exclusive 90	15.500 €
2013 Diesela 750 Km Gorri Argia	
• Citröen C-Elysée 1.6HDI Exclusive 90	13.500 €
2012 Diesela 5.500 Km Urdin Argia	
• Citröen DS3 1.6e-HDI Style	17.500 €
2013 Diesela 550 Km Gris Iluna	
• Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	33.500 €
2012 Diesela Eta Elektrikoa 13.000 Km Txuria	
• Citröen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	29.000 €
2012 Diesela 4.300 Km Marroi Iluna	
• Ford Transit Tourneo 200 S Connect 75	4.500 €
2005 Diesela 129.456 Km Txuria	

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñati lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

Zinemaldiaren distira

- Gabilondoren 'Amaren eskuak' luzea eta Altunaren laburra ikusgai
- Goienak bertatik bertara jarraituko du Imanol Gallegoren eskutik



Aurtengo ikurra. | DONOSTIAKO ZINEMALDIA

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Donostiako Zinemaldiaren 61. aldia hasiko da gaur. Bederatzi egunean 219 pelikula erakutsiko dituzte aurtten. Askotariko sailak daude: ezagunena, nazioarteko eta Estatuko filmak lehiatzen diren sail ofiziala. Ofizialaz gainera, Zabaltegi saila izaten da aipagarriena. Horiez gainera, Jose Luis Rebordinosek duela bi urte Zinemaldiaren zuzendaritza hartu zuenetik, ordura arte Zabaltegiaren barruan zeuden Perlak eta Zuzendari Berriak sailek ere ospe handia lortu dute. Horietan, beste zinemaldietan saritutako filmez gain, urteko abangoardiako pelikulak batzen dituzte.

Ezin aipatu barik utzi Zinemira saila, euskal ekoizpenei lekua egiten diena. Aurtengo lehiaketak, gainera, Asier Altuna *Kixi* epaimahai-buru izango du, eta Mireia Gabilondoren (hura ere bergararra) *Amaren eskuak* dago lehiakideen artean. Lehiaketaz kanpo bada ere, sail berean erakutsiko dute Altunaren *Zela trovke* film laburra.

Askotarikoak, era berean, zinemaz gozatzeko dauden aretoak: sail ofizialekoak bereziki Kur-saalen erakusten dituzte eta baita Antigu Berri eta Printzipe aretoetan ere.

Debagoienetik ere Donostiara

Debagoiendar askoren agendetan egongo dira Zinemaldiko egunak gorritz markatuta. Batzuk lanera joango dira; besteak beste, aurrez aipatutako Asier Altuna eta Mireia Gabilondo bergararrak. Karnele Jaio idatzitako *Amaren eskuak* (Elkar 2006) liburuan oinarritu-
33. orrialdean, jarraipena.



Mireia Gabilondo, errodajejan, aktore, teknikari eta gidoilariak. |

ARGAZKIAK: BALEUKO

Asier Altuna *Kixi* eta *Zela trovke* film laburraren fotograma. |

ARGAZKIAK: D. Z.

**Sarrerak 'on line' salgai**

Hainbat film ikusteko sarrerak agortuta daudela zabaldu bada ere, eskuragarri daude oraindik emanaldi bakoitzeko sarreren %10, erakutsiko duten egun bakoitzerako gordetzen dute-eta.

Kutxabank.es edo *sansebastianfestival.com* webguneen bitartez eskura daitezke, goizeko 8etatik aurrera. Kreditu txartel bakoitzarekin lau sarrera eros daitezke.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
irailak 21Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:

Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Profesionaltasun
Ziurtagiri
Berriak

LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROAK



Langile eta langabetuentzako ikastaroak %100ean SUBENTZIONATUAK

	ORDUAK	ORDUAK	DATAK
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
MF0089_2	UF0876: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK	60	2013/09/17-2013/10/21
	UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO KOSTUAK KALKULATZEA	40	2014/03/17-2014/04/10
MF0091_2	UF0881:TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUA	80	2013/11/04-2013/12/12
	UF0882: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA ETA OPTIMIZATZEA	70	2013/10/21-2013/12/05
	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2014/02/19-2014/03/13
	UF0877:LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2014/05/05-2014/05/22
MF0090_2	UF0880: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESU OSAGARRIAK	70	2014/01/08-2014/02/18
	UF0878: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-ERAGIKETETAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA	80	2013/10/22-2013/12/12
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA	70	2014/03/24-2014/05/22
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA	40	2013/11/04-2013/11/28
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKO LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2014/01/08-2014/02/27
	UF0455: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTU-KUDEAKETA	30	2014/03/10-2014/03/27
FMEE0110 ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA			
MF0099_2	UF1623: ALTZAIURU KARBONOZKO PROFIL ETA XALAZ ESTALITAKO ELEKTRODO BIDEZKO SOLDADURA, ERRUTILUZKO ELEKTRODOAK DITUENA	90	Zehaztu gabe
FMEE0208 EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINERIAREN MUNTAKETA ETA ABIARAZTEA			
MF1263_2	UF0456: SISTEMA MEKANIKOKO MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	70	2014/02/24-2014/04/15
	UF0457: SISTEMA MEKANIKOKO ABIARAZTEA ETA ERREGULATZEA	50	2014/04/28-2014/05/20
	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA. Tridimensional	30	Zehaztu gabe
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
	ONARRIZKO ELEKTRIZITATEA	40	2013/09/23-2013/10/15
MF0820_2	UF0884: ERAIKINETAN LOTURA-INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA	60	2013/10/21-2013/11/28
	UF0885:ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	2013/12/02-2014/01/30
	UF0886:LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEKO ETA MANTENTZEKO LANETAN	30	2014/02/03-2014/02/20
MF0821_2	UF0887:BARNEKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	90	2014/02/24-2014/04/30
	UF0888:LOKALETAKO, SALTOKIETAKO ETA INDUSTRIA TXIKIETAKO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKO LANTZEA, BTEEAREN ARABERA	50	2014/05/05-2014/06/02
MF0822_2	UF0889:AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	60	2013/11/11-2013/12/12
	UF0890:INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK MUNTATZEA	90	2014/01/08-2014/02/27
	UF0891:INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK KONPONTZEA	60	2014/03/10-2014/04/10
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA			
MF0233_2	UF0319: SISTEMA ERAGILEA, INFO. BILATZEA: INTERNET/INTRANET ETA POSTA ELEKTRONIKOA	30	2013-09-30 - 2013-10-17
	UF0320:TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	30	2013/10/21-2013/11/14
	UF0321:KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	50	2013/11/18-2013/12/19
	UF0322:DATU-BASE ERLAZIONALETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	50	2014/01/13-2014/03/13
	UF0323:AURKEZPENETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK: INFORMAZIO-GRAFIKOAK	30	2014/02/17-2014/03/17
MF0237_3	UF0341:LAN-KONTRATAZIOA	60	2013/11/11-2013/12/12
	UF0342:GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK KALKULATZEA	30	Zehaztu gabe
	UF0343:SOLDATA-ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	90	2014/01/13-2014/03/10
	UF0344:GIZA BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	30	2014/03/17-0/2014/04/01
ADGD0108 IKUSKAPENERAKO KONTABILITATE- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA			
MF0231_3	UF0314: KONTABILITATE-KUDEAKETA	90	2014/04/07-2014/06/05
HOTZEKO ESTANPAZIOA			
HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN OINARRIZKO DISEINUA		24	Zehaztu gabe
HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN DISEINU AURRERATUA		20	Zehaztu gabe
ELEMENTU FINITU BIDEZKO SIMULAZIOA HOTZEKO ESTANPAZIOAN. FORGE 2011 OINARRIZKOA		15	Zehaztu gabe
ELEMENTU FINITU BIDEZKO SIMULAZIOA HOTZEKO ESTANPAZIOAN. FORGE 2011 AURRERATUA		20	Zehaztu gabe
HOTZEKO ESTANPAZIOKO MAKINEN DOIKUNTZA		30	Zehaztu gabe
BESTE BATZUK			
ORGA-JASOTZAILA ERABILERA		23	2013/09/23-2013/10/03
ZUBI-GARABIEN ERABILERA		17	2013/10/07-2013/10/15



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49 // Fax : 943 76 38 41 // Email : ikastaroak@imaltuna.com



Esther Cabero alfonbra gorrian. | E.C.

31. orrialdetik dator.

tako izen bereko filma aurkeztu-ko du Gabilondok, Zabaltegi sail-lean, irailaren 24an, martitzenean. Ama baten eta alaba baten arte-ko harremanaren kontakizuna da: 38 urte dituen Nerea protagonista bizitza familiarra eta profesionala uztartu gura dituen kazetaria eta ama da. Egun bate-tik bestera, Nereak bere bizitzan duen desoreka handitu egingo da, bere ama Luisa, memoria galtzen hasita, ospitalera eramango duten egunean. Errua, maita-suna, ezberdintasunak, eta guz-tiaren gaintetik, bi emakume hauen arteko parekotasunak azaleratu-ko dituzte Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, besteak beste, Ainara Gurrutxaga, Loli Astore-ka, Esther Remiro eta Mark Schar-dan aktoreek.

Aipatutako filma, beste sei film luzerekin batera, euskal zine-maren Irizar saria eskuratzeko lehiatuko da, eta saridunak 20.000 euro gordin irabaziko ditu. Hain justu, epaimahaia Anari Alberdi abeslariak, Itziar Nogeraskultur kudeatzaileak eta Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararrak osa-tuko dute.

Altunarentzako laugarren Zinemaldia da aurtengoa; aurrez birritan izan da, zuzendari moduan (*Bertsolari* eta *Aupa, Etxebeste!*); eta *Urteberri on, amona!* filmaren gidoigile moduan beste behin. Oraingoan ere, epaimahaikide lanez gainera, badu *Kixi*-k zer erakutsi: uztailean Holandan, grabatu zuen toki berean, aur-keztu zuen *Zela trovke (Belarra mozten)* film laburra eramango du-eta Zabaltegi sailaren itxiera-ra, irailaren 28an. Horrez gaine-ra, beste bost alditan ere ikusi ahal izango dugu, *Mujer Conejo* film luzearen proiektzio guztien aurretik, hain zuzen ere. *Moritat* bati buruzko dokumentala da; hau da, krimen baten istorioa kontatzen duen abesti eslovakiar zahar baten oinarritutakoa.

Debagoieneko zinemagile eta zaleez gainera, Esther Cabero aretxabaletarra ere Donostian izango da egunotan; Caberok ere Zine-maldia izango du lantoki. Eusko Jaurlaritzak eta Etxepare Institu-tuak kudeatzen duten Kimuak programan egiten du lan; hau da, Euskal Herrian ekoitzitako film laburren katalogoaren koordina-tzailea da. Asier Altunaren *Zela trovke* dago, besteak beste, kata-logo horren barruan. Caberoren

IMANOL GALLEGO | ZINEMALDIKO BERRIEMAILEA

"Filmak jatorrizko bertsioan ikustera animatu gura zaituztet, luxua da!"

Hamargarrenez izango da aurten Imanol Gallego arrasatearra Zine-maldian. Gaztetxoa zela harrapa-tu zuen Gallego Zinemaldiko distirak. Orduan telebistaren pan-tailan ikusten zuena bertatik bertara kontatuko du aurten Goie-nako hedabideetan.

Zein izango da zure lana?

Debagoiendarren begi, esku eta belarri izango naiz. Klean eta aretoetan ikusten dudana konta-tuko dizuet, eta baita pelikulen gaineko iritziak eman ere.

Eguneko hitzorduez gainera, gauetako jaiak ere izaten dira; horiek ere agendan ditzuzu?

Ez da derrigorrezkoa joatea, bai-na joango naiz batera edo beste-ra. Hala ere, eguneko bost peliku-la ikusiko ditudala kontuan har-tuta, sarritan sartu-irtenak egiten ditut jaietan, gonbidatu nauena, agurtu eta askoz gehiagorik ez.

Aurtengo eskaintzatik peliku-laren bat gomendatzekotan?

Enemy (Denis Villeneuve), *Like father like son* (Hirokozu Koreeda), *Gravity* (Alfonso Cuarón) eta *Canibal* (Manuel Martín Cuenca), besteak beste. Azkeneko hori espainiarra da eta laster zinema-

tan estreinatuko dutenez, aukeran, beste hirurak ikusteko aprobetxa-tuko nuke.

Zer diozu Donostia sariez?

Carmen Maura gustuko dut. Espainiako zinemaren enbaxa-dore handia dela esango nuke. Horren erakusle dira dituen lau lau goya sariak eta, besteak bes-te, Cannesen eta Venezian jaso-takoak. Film berriarekin dator, gainera: *Las Brujas de Zugarramurdi* (Alex de la Iglesia). Hugh Jackmanek (*Australia*, *Lobezno*) ere sari asko ditu; kalitate han-diko aktorea eta oso polibalentea da, nire ustetan.

Zein beste izar izango dira?

Asko daude aipatzeko: Anette Bening, Oliver Stone, Diego Luna, Mario Casas...

Gomendio batzuk amaitzeko?

Areto bakoitzak bere xarma dau-ka; horregatik, non erakusten duten ere kontuan izango nuke film bat aukeratzeko orduan, hainbat are-totan erakusten dute-eta peliku-la bakoitza. Eta, duda barik, trian-gelu interesgarria Maria Kristina hotela, Victoria Eugenia eta Kur-saal artean dago, horra heltzen dira famatu guztiak.



Imanol Gallego, Alex de la Iglesiarekin. | HARITZ DENDATEGI

Zinemaldia Goienan

Jarraipen berezia egingo diegu Mireia Gabilondoren eta Asier Altunaren lanen aurkezpenei eta orokorrean Zinemaldian aipagarria den guztia ere kontatuko dugu.

Goiena telebistan, egunero ordubeteko saioa izango duzue. *Goiena.net* atarian, berriz, albisteez gainera, *blogak.goiena.net/zinemalditangoienara* helbidean, aurkituko dituzue Imanol Gallegoren kronikak, argazki galeriak eta pelikulen gaineko bideo-kritikak. *Goiena* paperean, berriz, zenbaki guztietan egingo diogu tokia, eta zuzeneneko konexioak, berriz, Arrasate Irratian (FMko 107.7).

esanetan, aurtengo Kimuak bil-dumako lan aipagarrienetakoa da: "Emakumearen indarraren gainean jardun du oraingoan Altunak, lan oso bisuala eta indartsua egin du", dio Caberok. Bulegoko lanaz gaine-ra, Caberoren egunotako egin-behar nagusia industriako profesionalei euskal film laburrak saltzea izango da, Donostiaz gaine-ra, aurrerago izango diren bes-te zinemaldi batzuetan ere era-kusteko helburuarekin.

Hirugarren urtez jardungo du lan horretan Caberok, hamarga-rren zinemaldia badu ere; aurrez, Zinemaldiko produkzio sailean zazpi urtean jardun zuen. Zine-maldian lanean hastea kasuali-tatea izan zela dio, Donostian Komunikazio ikasketak egiten ari zela, Zinemaldian praktikak egitea egokitu zitzaionean hasi zen haren zinemaldiko ibilbidea. Aurtengoari itxura ona hartzen dio, besteak beste, beste urte batzuetan ez moduan animazioz-ko pelikula asko daudelako.



Juan Karlos Irizar, eguaztenean, disko berriak eskuetan dituela. | GOIENA

Irizar oñatiarrak bi disko berri gehiago ditu

'Ospitaleko itsas kabia' da bat eta 'Bihotzaren doinuak' bestea

A.A. | OÑATI

Uda emankorra izan du Juan Karlos Irizar oñatiarrak, bat beharrean bi disko argitaratu ditu-eta. Uztailean *Ospitaleko itsas kabia* kaleratu zuen eta domekan, irailaren 15ean, *Bihotzaren doinuak* izenekoak aur-keztu zuen.

Biak ala biak instrumenta-lak dira: enkarguzkoa bat eta Irizarrek Donostiako Poliklini-ka ospitaleari egin nahi izan dion oparia da bestea.

Bihotzetik operatuta

Abenduan bihotzeko ebakuntza egin zioten Irizarri Donostiako Poliklinikan. Guztiz errekupe-ratuta eta osasuntsu dago orain, eta oñatiarrak ondo baino hobe-to zaindu zuten mediku eta erizainei disko bat omenduaz eskertu gura izan die: "Ondo nago orain, bihotzeko balbula bat aldatu didate; bizi izateko beste aukera bat eman didate, beraz; eta horregatik, dakidan moduan eskertu gura izan ditut, musika eginez, Donostiako ospitaleko profesionalak".

Hori horrela, 12 doinu ins-trumental batu ditu *Bihotzaren doinuak* bilduman. Disko lasaia, barnerakoia eta sentikorra dela dio egileak. Gipuzkoako Poliklinikaz gain, Aquariuma-ri ere badagokio lanaren zati-txo bat ere, Irizarren ustez Donostiako lekuri goxoene-takoa dena. Hantxe aurkeztu zuen joan den domekan, pianoa lagun zuela, kantu batzuk zuzenean jota, 87 urte bete zituen Vicente Zaragueta Aquariu-meko lehendakaria ere entzu-ten zela.

Haur gaixoei eskainia

Donostia ospitaleko pediatria sailak, Aquariumak eta Laboral Kutxak elkarrekin sortutako proiektuari musika jarri dio Irizarrek. Minbiziaren edo bes-te gaixotasun larri batzuen ondorioz ospitalean egonaldi gogorra eman duten haurrei zuzendutako bilduma da *Ospi-taleko itsas kabia* lana. Etxetik atera ospitalerantz, beldurra eta itxaropenaren sentimendu nahasiak, ospitaleko egonaldia, sendagile eta erizainekin sor-tutako harremanak; egoera horiek guztiak jaso ditu oña-tiarrak, bederatzi doinutan.

ESANAK

"Bizi izateko beste aukera bat eman izana eskertu gura izan diet Donostiako Poliklinikako profesionalei"

"Abenduan bihotzeko ebakuntza egin bazidaten ere, osatuta eta musika sortzeko indartsu nago orain"

JUAN KARLOS IRIZAR | MUSIKARIA



Ruper Ordorika, Aretxabaletako Arkupen eskainitako kontzertuan, uda aurretik. | GOIENA

"Hiru urtean behin etortzea ederra da"

Oñatin kontzertua du gaur, egubakoitza, Ruper Ordorikak, 22:30ean

UBANE MADERA | OÑATI

Estreinaldia du Ordorikak jaio-terriko gaztelekuan gaur, eta pizgarri berezia ematen dio horrek oñatiarrari: "Uste dut areto polita dela; beste guztietan ibilia naiz, eta aurtan antolatzaileen asmoa izan da bertan egitea, eta ondo ikusten dut. Askotan egon naiz han entzule moduan, ia bada zela irteten den. Badakit eserlekuak jarriko direla, eta nik uste dut garrantzitsua dela, nahi duenak zutik, nahi duenak eserita, baina behintzat egon dadin aukera era guztietara entzuteko".

22:30ean hasiko duen emanaldia ordubete pasakoa izango dela aurreratu du kantautore oñatiarrak, eta bereziki azken diskoko

(*Hodeien azpian*, 2011koa) kantuak interpretatuko dituela, nahiz eta era berean, ateak zabalik laga dituen berezitasun edo sorprendakoa: "Gaurko kontzertua lotzen dugu azken diskoarekin, Oñatin eta inguruetan ez garela ibili hori jotzen. Baina osatuko dugu asko sasoi ezberdinetako kantuekin". Izan ere, Ruper Ordorikak esandako moduan, badira hiru urte Oñatin egon ez dela.

Ondo pasatzea helburu

Eta hain justu, horrek berorrek (kontzertua Oñatin izateak) izango du eraginik gaurko emanaldian: "Hiru urtean behin Oñatira etortzea ederra da, eta horri begira

gatoz gehiago, birari begira baino", aitortu du musikariak. "Beti jartzen dugu burua ondo pasatze aldera, eta ahal bezain ondo egitera gure parteak jendeak ere ondo pasa dezan. Baina aspaldiko esana da inor ez dela profeta bere herrian... dena den, aspaldiko gauza da, baita ere, jendeak normaltasunez hartzen nauela, zorionez, eta ondo pasatzen dugu. Bestalde, noan tokira noala, gus-tuko izaten dut behintzat kantuen arteko berbak, lotura ezberdinak tokian tokiko ezaugarriak kontuan hartuta egitea, eta Oñatin zeresanik ez. Bestalde, horrez gainera, litekeena da kantu bereziren bat ere egitea... sorpresa moduan utziko dugu".

Plazako dantza tradizionalak praktikatu eta ikasteko aukerak

Dantza tradizionalen ikastaroak Bergaran eta Arrasaten izango dira, urritik ekainera bitartean

U.M. | DEBAGOIENA

Euskal Herriko plazetan ohikoak diren dantzak ikasi eta praktikatzeko aukera izango da, beste urte batez, Debagoienean, Patxi Montero arrasatearraren eskutik. Bi kasuetan, urrian hasi eta maiatz amaieran-ekain hasieran bukatuko dira saioak.

Ikastaroen eta dantzaldien arteko desberdintasunak dira ikastaroak ez direla libreak, besteak beste, haurrek ezin dutelako ikastaroetan parte hartu; eta eskolak Arrasaten eta Bergaran bakarrik ematen dituztela.

Ikastaroetarako izen-ematea

Hain justu, eman daiteke ikastaroetarako izena herri batean zein bestean. Arrasateko kasuan, hori bai, kontuan hartzekoa da irailaren 27an (egubakoitza) bukatzen dela izen-emate epea (AEDn, Gazte Bulegoan edo herrixadantzan@gmail.com-en). Bergaran, berriz, zehaztu barik dago epea; izan ere, datorren martitzenean (irailaren 24an) egingo dute ikastaroen gaineko aurkezpena.

Egutegiei dagokienez, berriz, astean behin izango dira eskolak: Arrasaten astelehenean, Zerrajeraren lehengo eraikinean; eta Bergaran, martitzenetan, lehen Udal Euskaltegia zegoen lekolean. Arrasateko kasuan, gainera, aurtan aukera eman dute ikastaroen lehen maila ostiraletan egiteko, ikasle berriek nahiago balute, edo talderik sortuko balitz egun horretarako.

Euskal Herriko eta Europa osoko dantza tradizional herrikoiz osatutako dantzak erakusten dituzte ikastarootan, baita egitarau espezifikoak ere. "Gure kulturako dantza tradizionalaren oinarrian", Patxi Montero irakasleak azaldutakoaren arabera.

Dantzaldiak, hilean behin

Dantza saioei dagokienez, berriz, interesa duen edozeini zuzendutakoak dira. Herrixa Dantzan izena du ekimen horrek, eta lau herritan egiten dira, txandaka: Elgetan (Espaloian), Eskoriatzan (unibertsitateko kaperan zein plazan) eta Bergaran (Zabalotegi aretoan) hileko lehen domeketan; eta Arrasaten, berriz, hileko azken egubakoitzetarako hitzordua proposatu dute, Garaia tabernan. Hori bai, kasu guztietan, iluntzean dira dantzaldiak, 19:00etan edo 20:00etan hasi, eta ordubeteko iraupenekoak.

Lehen hitzordua urriaren 6rako egin dute, Elgetan. Horrekin lotuta, bada berezitasun bat Elgetako saioei dagokienez: zuzeneko musikarekin egiten dituztela. "Joan den ikasturtean hasi ginen horrekin. Elgetako Udalaren laguntzari esker, Euskal Herriko hainbat talde eta ekimen Espaloira ekarriko ditugu euren dantzaldiak eskainitzatzen. Helburua da Debagoieneko Herrixa Dantzan saioetako publikoari erakustea beste leku batzuetan egin diren dantza ekimenak, hala nola dantzarako jotzen duten musikariak", azaldu du Monterok.



Herrixa Dantzan ekimenaren saio bat, iaz, Elgetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Verdiren 'La Traviata' opera ekarriko dute Arrasatera datorren hilaren amaieran

Sarrerak (600 bat) oraingo domekan jarriko dituzte salgai, hiru modutara

U.M. | ARRASATE

Operarik entzutetsuenetako batekin gozatzeko aukera izango dute zaleek urriaren 30ean Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Ozenki elkarte lirikoak ekarritako, Opera 2001 taldeak *La Traviata* antzeztuko du Plevengo (Bulgaria) orkestra sinfonikoarekin batera; beraz, nazioarte mailako artistak izango dira gurean Verdiren opera interpretatzen.

Sarrerak, 30 eurotan

Sarrerak etzi, domeka, jarriko dituzte salgai, 30 eurotan. "600-610

bat sarrera ditugu saltzeko, eta dagoeneko ehun bat sarreratarako erreserba eginda daukagu", jakinarazi du Manu Gallardok, Ozenki elkarte presidentea. Kontuan hartuta iazko bi opera emanaldietarako sarrerak berehala agortu zirela, adi ibiltzea komeni da. "Domekan, 09:00etarako salgai izango dira sarrerak", dio Gallardok. Hain justu, Kutxaban-keko kutxazainetan eta antzokian bertan saio orduetan (zinema zein antzerki saioak daudenean) eros daitezke txartelak; eta posta elektronikoen bitartez ere

bada eskuratzetik, honako helbide honetan eskatuta: ozenkielkatea@hotmail.es.

Iaz, bi saio

Oraingo delako bi urte abenduan sortu zen Arrasaten Ozenki elkarte lirikoa, jakinda inguruan zaletasun handia dagoela operarekiko. Estreinaldirako Pucciniren *La Bohème* (iazko martxoan) eta Bizeten *Carmen* operak (iazko urrian) ekarri zituzten. Aurtengo *La Traviata* Arrasateko Udalak zein Mikel Lasa aseguru etxeak lagunduta ekarriko dute.

ASTEA GOIENAN



JULÉN IRIONDO

Mahats eta txakolin ekoizpena berbagai

AsteOn saioko erreportajean mahats eta txakolin ekoizpena-ri buruz hitz egingo dizuegu. Horretarako, Arrasateko Otxia txakolin ekoizpeneko Felix Etxa-gibel eta Oñatiko Murgialdai txakolin ekoizpeneko Haritz Gal-dos elkarriketatuko ditugu.

'AsteOn'
Egubakoitza, 21:14



GOIENA

Irabazi saria, lehiaketara deituta

Asmatu baietz! izeneko lehiake-
ta berria estreinatu dugu. Eguaz-
tenetan da eta zuzenean Goiena
telebistara deituta sariak iraba-
ziko dituzu. Parte hartzeko 943
25 05 03 telefonora deitu behar
da eguaztenetan 19:45etik aurre-
ra. Animatu eta parte hartu!
'Asmatu baietz!'
Eguaztena, 19:46

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
12:00 Planik bai?	10:00 Bideo-iritzia	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:30 Erreportajea	11:00 Zorion Agurrak	12:45 Kantari	12:45 Harmailatik	12:45 Oinein	12:50 Oinein
13:05 Oinein	10:45 Magazinea	11:05 AZK2012	13:15 AsteON	13:25 Kantari	13:09 Kantari	13:13 Kantari
13:28 Kantari	11:45 Planik bai?	11:35 Oinein	13:45 Zurriolako butaka	13:50 Zurriolako butaka	13:39 Zurriolako butaka	13:43 Zurriolako butaka
13:58 Bideo klipak	12:05 Klaketa	12:12 Planik bai?	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:39 Zorion Agurrak	14:43 Zorion Agurrak
14:21 Planik bai?	12:05 Oinein	12:32 Magazinea	15:15 Eguraldia	15:10 Eguraldia	14:45 Berriak	14:48 Berriak
14:40 Zorion Agurrak	13:23 Bideo-iritzia	13:32 Erreportajea	15:18 Zorion Agurrak	15:13 Harmailatik	15:10 Eguraldia	15:13 Eguraldia
14:45 Berriak	13:53 AsteON	14:09 Magazinea	15:23 AZK2012	15:58 Oinein	15:16 AZK2012	15:46 Zorion Agurrak
15:10 Eguraldia	14:23 Magazinea	15:09 AsteON	15:53 Bideo-iritzia	16:20 AsteON	15:51 Erreportajea	15:51 Erreportajea
15:13 AZK2012	15:23 Zorion Agurrak	15:39 Zorion Agurrak	16:31 Zorion Agurrak	16:50 Zorion Agurrak	16:28 Berriak	16:53 Eguraldia
15:43 Erreportajea	15:28 Oinein	15:44 AZK2012	16:38 Berriak	16:55 Berriak	16:54 Oinein	16:53 Eguraldia
16:13 Zorion Agurrak	16:05 Planik bai?	16:14 Magazinea	17:08 Eguraldia	17:20 Eguraldia	16:25 Harmailatik	16:56 Oinein
16:19 Planik bai?	16:25 Bideo-iritzia	17:14 Bideo-iritzia	17:11 Oinein	17:23 Harmailatik	17:10 Zorion Agurrak	17:19 Planik bai?
16:43 Berriak	16:55 AZK2012	17:34 AZK2012	17:33 Zorion Agurrak	18:08 Zurriolako butaka	17:15 Berriak	17:39 Zurriolako butaka
17:08 Eguraldia	17:25 Oinein	18:04 Klaketa	17:38 AsteON	19:08 Zorion Agurrak	17:40 Eguraldia	18:39 Zorion Agurrak
17:11 Erreportajea	17:56 Zorion Agurrak	18:45 Erreportajea	18:08 Berriak	19:13 Berriak	17:43 Harmailatik	18:45 Planik bai?
17:41 AZK2012	18:01 Erreportajea	19:22 Bideo-iritzia	18:33 Eguraldia	19:38 Eguraldia	18:23 Zurriolako butaka	19:10 Bideo-iritzia
18:11 Bideo klipak	18:38 AZK2012	19:52 Magazinea	18:36 Zurriolako butaka	19:41 Kantari	19:23 Berriak	19:20 Berriak
18:31 Planik bai?	19:08 Magazinea	20:52 Zorion Agurrak	19:36 Kantari	20:11 Zorion Agurrak	19:43 Eguraldia	19:45 Eguraldia
18:51 Berriak	20:08 Planik bai?	20:57 Bideo-iritzia	20:07 Zorion Agurrak	20:16 Magazinea	19:46 Baietz asmatu!	19:48 Kantari
19:21 Eguraldia	20:28 AsteON 2	21:32 AsteON	20:12 Magazinea	21:01 Berriak	20:16 Magazinea	20:13 Zorion Agurrak
19:26 Kantari	0:58 Planik bai?	22:02 Magazinea	20:57 Berriak	21:26 Eguraldia	21:05 AsteON	20:18 Magazinea
19:56 Planik bai?	21:18 AZK2012	23:02 Klaketa	21:22 Eguraldia	22:29 Magazinea	21:35 Berriak	21:03 Planik bai?
20:21 Zorion Agurrak	21:48 Magazinea	23:52 Zurriolako butaka	21:27 Harmailatik	23:14 Gurean gaur	22:00 Eguraldia	21:23 Berriak
20:26 Berriak	22:48 Erreportajea	00:09 Eguraldia	22:12 Magazinea	23:44 Berriak	22:02 Magazinea	21:48 Eguraldia
20:51 Eguraldia	23:25 AZK2012		22:57 Gurean gaur	00:02 Zurriolako butaka	22:47 Harmailatik	21:51 Magazinea
20:54 Planik bai?	23:40 AsteON		23:27 Berriak	01:02 Berriak		22:36 Gurean gaur
21:14 AsteON			23:52 Eguraldia	01:27 Eguraldia		23:06 Berriak
21:44 AZK2012			23:55 Zurriolako butaka			23:31 Eguraldia
22:14 Planik bai?						23:34 Zurriolako butaka
22:34 Berriak						
22:59 Eguraldia						
23:02 AsteON						

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan, 10:00etan hasita

Astean zehar Arrasate Irratian emandako elka-
rrizketak entzun ahal izan-
go dituzue asteburuan. Zapatuko baserritarren azoka, Mugikortasun Astea edota Literaturjauziei buruzko elkarriketak entzun ahal izango dituzue zapatu eta domeka honetan, 10:00etan hasita.

Donostiako Zinemaldia gertutik jarraituko dugu

Arrasate Irratiko *Uda giroan!* irratsaioa Donos-
tiako Zinemaldian murgil-
duko da datorren astean, besteak beste. Imanol Galle-
goren eskutik, Donostian gertatzen ari direnak jaso ahal izango dituzue irrati-
tik jaialdiari egingo diogun jarraipen berezian. Ez hutsik egin!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 20	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Zapatua, 21	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerrias kalea 1	943 79 15 15
Domeka, 22	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 23	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Martitzena, 24	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Eguaztena, 25	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 26	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
BERGARA			
Egubakoitza, 20	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 21	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 22	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 23	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 24	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 25	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 26	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Egubakoitza, 20	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 21	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 22	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 23	JULDAIN	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 24	JULDAIN	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 25	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 26	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).			

HILDAKOAK

Antonio Lopez Gonzalez. Arrasaten, irailaren 5ean. 79 urte.

Julia Unanue Makazaga. Aretxabaletan, irailaren 6an. 87 urte.

Arturo Fernandez Fernandez. Aretxabaletan, irailaren 6an. 66 urte.

Rikardo Gorostiza Sanper. Bergaran, irailaren 6an. 55 urte.

Gabriel Medina Alonso. Bergaran, irailaren 7an. 82 urte.

Julia Jauregialzo Alzelai. Oñatin, irailaren 7an. 89 urte.

Andoni Azpiazu Lizarralde. Bergaran, irailaren 7an. 77 urte.

Mari Carmen Muruamendiaraz Bastarrica. Arrasaten, irailaren 9an. 70 urte.

Rogelio Conde Fernandez. Arrasaten, irailaren 9an. 74 urte.

Luis Albistegi Anduaga. Bergaran, irailaren 10ean. 66 urte.

Tomas Igartua Odriozola. Bergaran, irailaren 10ean. 82 urte.

Eugenio Cantero Urbina. Bergaran, irailaren 10ean. 89 urte.

Juan Ignazio Unzurrunzaga Bakedano. Bergaran, irailaren 11n. 58 urte.

Angeles Larrañaga Odriozola. Bergaran, irailaren 12an. 81 urte.

Juana Jauregi Gantxegi. Bergaran, irailaren 14an. 94 urte.

Asuncion Heriz Abarrategi. Oñatin, irailaren 14an. 88 urte.

Florencio Rodriguez Martinez. Arrasaten, irailaren 16an. 92 urte.

M. Socorro Jauristi Kruzeta. Arrasaten, irailaren 16an. 97 urte.

Miguel Mari Aranzabal Zabala. Arrasaten, irailaren 16an. 55 urte.

Esperanza Muguruza Azkarate. Bergaran, irailaren 16an. 90 urte.

Jesusa Igartua Igartua. Oñatin, irailaren 18an. 91 urte.

Isabel Uribe Mendizabal. Aramaion, irailaren 18an. 84 urte.

ESKER ONA

Julia Jauregialzo Alzelai



Oñatin hil zen 2013ko irailaren 7an, 89 urte zituela.

Juliaren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Bere oroimenez ondrak ospatuko dira zapatuan, irailaren 21ean, 19:30ean, agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko irailaren 20an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.



Ibai eta Irati
Ibai Azpiazu eta Irati Urtzelai bihar, irailak 21, ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna eta disfrutatu Afrika aldean!".



Rosi eta Ibai
Rosi da Costa eta Ibai Orruño bihar, zapatua, ezkonduko dira, Donostiako *Ciudad de San Sebastian* katamaranean. "Zorionak, bikote! Egun ahazte-zina izan dezazuela eta ondo pasatu eztei-bidaian, familiakoen partetik!".



Jon eta Raquel
Bilboko Jon Fernandez de Mera eta Arrasateko Raquel Barbero bihar, zapatua, ezkonduko dira Nojan. Familiaren eta Arrasateko kuadrillaren partetik, "zorionak, ondo ibili ezkontza egunean eta musu asko".



Urtzi eta Leire
Oñatiko Urtzi Igartua eta Leire Zubia datorren bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Ordua zen! Ondo-ondo pasatu eguna eta baita Thailandian ere, zuen familiakoen eta kuadrillaren partetik".



Aintzane eta Iban
Aintzane Orueta eta Iban Diez bihar, irailak 21, ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Ondo-ondo pasatu eguna eta eztei-bidaian, zuen familiaren partetik. Zorionak, bikote!".



Jose Mari eta Felisa
Jose Mari Iñarra eta Felisa Bastardo 1966ko irailaren 10en Arrasaten ezkondu ziren. "Horrela jarraitu, bikote. Hemen gaituzue. Zorionak eta musu asko, familia guztiaren partetik".

ESKER ONA



Maritxu Ugalde Altolagirre
Martin Arrayago Zabaloren alarguna



Bergaran hil zen 2013ko abuztuaren 27an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko irailaren 20an.

ESKER ONA

Eugenio Cantero Urbina



Bergaran hil zen 2013ko irailaren 10ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, Cantero-Arrizabalaga familiakoen izenean.

Bergaran, 2013ko irailaren 20an.

ESKER ONA



Juan Ignacio Unzurrunzaga Baquedano



2013ko irailaren 11n hil zen, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko irailaren 20an.

ESKER ONA

Miguel Mari Aranzabal Zabala



2013ko irailaren 16an hil zen, 55 urte zituela.

Miguel Mariren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiari babesa azaldu zien eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

Arrasaten, 2013ko irailaren 20an.

URTEURRENA

Marcelino Moreno Montero



2012ko irailaren 21ean hil zen, 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 21ean, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.

Zure emazteak, seme-alabek eta bilobek ez zaitugu ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko irailaren 20an.

URTEURRENA



Gerardo Mondragon Garay
2012ko irailaren 19an hil zen 84 urterekin.



M. Carmen Lascurain Ugalde
2005eko irailaren 26an hil zen 76 urterekin.

Bien oroimenez, domekan, irailaren 22an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian urteurreneko meza izango da.

Etorriko zaretenoi alde zurretik, eskerrik asko sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Miguel Mari Aranzabal Zabala



2013ko irailaren 16an hil zen, 55 urte zituela.

Antolatzaile lanak egin dituzu orain artean Laguntza ematen abila beti behar izaten genuenean Joan zara, Miguelito gu utziz bakardadean Inoiz ez zaitugu ahaztuko zure lagunartean.

Arrasaten, 2013ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Isabel Uribe Mendizabal



Barajuenen hil zen 2013ko irailaren 18an, 84 urte zituela.

Egun argiz utzi gaituzu joan zara urrutira inongo mapak jaso ez duen munduaren alderdira eta geroztik begiratzean

Barajuengo izartegira bada izar bat, zeinak keinuka egiten duen diztira Isabel zuk zeuk bidalitako goraintzi goxoak dira.

Neba-arrebak eta lobak. Aramaion, 2013ko irailaren 20an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardua handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

MUSIKA

ARAMAIO Angel Unzu

Angel Unzu gitarra-jotzaileak kontzertua eskainiko du Sastiñan.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan 20:00etan.

ESKORIATZA Papalagi eta Bitz

Papalagi eta Bitz talde oñatiarrek emanaldia eskainiko dute Azkoaga Hotelean.

Bihar, zapatua, Azkoaga Hotelean 19:00etan.

OÑATI Ez!, Zuen Azkena eta **Obstruccion Nasal**

San Martingo etxe okupatuan joko dute hiru taldeek. Aurretik, 19:30ean, merienda egongo da.

Bihar, zapatua, San Martingo etxe okupatuan 21:00etan.

BERGARA Transistores 50

Donostiako Transistores 50 taldeak Nahikarin eskainiko du kontzertua. Jimmy Iartza eta Juanjo Erentxun dira taldekideak.

Bihar, zapatua, Nahikari tabernan 23:00etan.

OÑATI Txistulariak goizean

Txistulari bandaren goiz-eresia. Etzi, domeka, Herriko kaleetan 09:00etan.

OÑATI Udal Musika Banda

Eguerdiko hamabietan kalejira egingo dute eta 13:00etan, kontzertua plazan. Iñaxio Ibarrondoren zuzendaritzapean.

Etzi, domeka, Foruen plazan 13:00etan.

OÑATI Malcom Scarpa

Malcom Scarpa musikari madrildarra hiru eguneko bira egiten dabil Euskal Herrian; hala, Oñatin joko du. Blues eta pop doinuak eskainiko ditu.

Etzi, domeka, Pako taberna 19:30ean.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Kontxo... kontxo'

Gari, Montxo eta Joselontxorekin

Montxo eta Joselontxo pailazoen emanaldia. Sarrera 3 euro.

Etzi, domeka, Zاراia aretoan 17:00etan.

ARRASATE 'Denboraren korapiloak'

Stanislaw Lem-en idazlan baten egokitzea eskainiko du Mikel Martinez aktoreak: *Denboraren korapiloak*. Sarrera, doan.

Irailaren 25a, eguaztena, Kulturaren 19:00etan.

DANTZA

BERGARA 'Herrixa dantzan' aurkezpena

Bergarako Jardun Euskara Elkar-teak antolatutako *Herrixa dantzan* ikastaroaren aurkezpena. Besteak beste, ikastaroa zertan den eta dituen helburuen azalpena.

Irailaren 24a, martitzena, Kultura etxean 18:00etan.

JAIK

ESKORIATZA Mugikortasun Astea: Skate jaia

Mugikortasun Astearen bueltan, skate jaia egingo dute. Ume zein gazteen lehiaketak eta erakustaldiak izango dira. Esaterako,

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



LARRAITZ ZEBERIO

ELGETA Sagardo Eguna eta patata-tortilla lehiaketa

Egun osoko egitaraua antolatu du gaztetxeak. Sagardo Egunarekin batera, herri bazkaria (14:30) eta patata-tortilla lehiaketa (18:00etan) izango dira eta Manex Agirrerekin eta Jokin Labaienekin bertso afaria egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean eta plazan 12:30ean.

Eman euskara elkarri

Escola

Mintza praktikoa

Barnetegia

On line

Aukerakuntza

Normalizazio planak

Titulu homologatuak

eman izena

www.aek.org
902 362 294

• **EUSKALDUNTZEA** (5 / 10 ordu astean, erreleboak)

- B1 maila edo 1. perfla; erabiltzaile autonomoa.
- B2 maila edo 2. perfla; erabiltzaile gaitua.

• **MINTZA-TALDEAK** (5 ordu astean)

- Astean 2 egun ahoz hobetzeko eta soltatzeko.

• **AUTOIKASKUNTZA** (190 ordu)

- Programazio pertsonala eberako + tutoretzak + mintza-saioak.

• **C1 MAILA / 3. MAILA / EGA** (5 ordu astean)

- Astean 2 egun azterketa ofizialak prestatzeko.

• **C2 MAILA / 4. MAILA-PERFLA** (6 ordu astean)

- Astean 2 egun + eberako lanak + proiektua + tutoretzak. (180 ordu).

Bekak Arrasateko Udaleren laguntzaz!

DEBAGOIENKO AKE EUSKALDEGA ANBAGATI

Geltoki 14, Arrasate 943 77 03 00 • arrasate@ak.org

MATRIKULA zabalik

2013-09-30era arte

Goizez, 11:00etatik 13:00etara.

Arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara

IRAILAK 20
IRAILAK 26

modan jarri den *longboard* modalitatearen erakustaldia.

Gaur, egubakoitza, tren geltoki zaharrean 18:00etan.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Urbaltz eguna

Urbaltz eguna ospatuko dute. Umeendako puzgarriak, herri bazkaria, Los Galerna eta Burning Flag taldeen emanaldia eta beste hainbat kontu izango dituzte.

Bihar, zapatua, Mitarten 12:00etan.

OÑATI Haurren danborrada

San Migel jaietako haurren danborrada egingo dute, Udal Musika Bandak lagunduta. Ondoren, buruhandiak eta erraldoiak Jose de Azpiazu musika eskolako trikiti-pandero taldeak lagunduta.

Bihar, zapatua, Herriko kaleetan 18:00etan.

OÑATI Meriendatxoa San Martinen

San Martineko etxe okupatuan meriendatxoa egingo dute.

Bihar, zapatua, San Martinen 19:30ean.

OÑATI Nazioarteko artzain-txakurren txapelketa

Euskal Herriko, Kataluniko eta beste herrialde batzuetako ordezkariak batuko dituen Oñatiko nazioarteko artzain-txakurren txapelketa jokatu dute Santa Lutzia zelaian.

Etzi, domeka, Santa Lutzia zelaian 10:00etan.

OÑATI Erraldioen eta buruhandien konpartsa kaleetan

Erraldoi eta buruhandiak herriko kaleetan ibiliko dira. Bergarako Erraldioen Konpartsa izango da gonbidatu berezia.

Etzi, domeka, Herriko kaleetan 18:00etan.

ERAKUSKETAK

OÑATI Oteitzaren erakusketaren bisita gidatua

Arantzazu Gaur Fundazioak Oteitzaren inguruko erakusketa antolatu du. Irailaren 29a arte egongo da ikusgai. Zapatuan bisita gidatua egingo dute. Orduak: 12:00etan gaztekeraz eta 13:00etan euskaraz.

Bihar, zapatua, Arantzazuko Gandiaga Topagunean 12:00etan.

BERGARA Bingen de Pedroren erakusketa

Bergarako margolariak Aroztegin jarriko duen erakusketa gaur zabalduko dute eta urriaren 13ra arte egongo da zabalik. Ordutegia izango da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan 18:00etan.

LITERATURA

ARRASATE 'La Chelita. El Salvador 1992' liburuaren aurkezpena

Hitzaldia, proiektzioa, salmenta eta liburuen (Dolmen editoriala) sinadura egingo dute Irati tabernan. Nazioarteko gerrillako kideen bizipenak eta testigantzak jasotzen dituen nobela grafikoa da aurkeztuko duten *La Chelita. El Salvador 1992* liburua.

Etzi, domeka, Irati tabernan 18:00etan.

IRTEERA

ELGETA 'Elgeta ezagutzen: mugarriak eta karobia'

Bisita gidatua Elgetako mugarriak eta Miraballesko karobia ezagutzeko.

Etzi, domeka, Herriko plazan 10:00etan.

ELGETA Erretiratuen irteera Logroñora

Egun osoko irteera. Prezioa 30 euro da.

Bihar, zapatua, Elgetan 08:30ean.

HITZALDIK

ARETXABALETA 'Bada etorkizunik pentsioetan?'

Emilio Olabarriak egingo du berbaldia. Madrilgo Gorteetan EAJ-ko diputatua da.

Irailaren 23a, astelehena, Zاراia aretoan 19:00etan.

ARETXABALETA Haurren hezkuntza

Kuku Mikuk antolatuta. Haurren hezkuntzaren gainean egingo du berba Amalur Amatasunaren Laguntza Zentroko Ana Bacigalupe, arratsaldeko seieta. Goizean ere egingo du hitzaldia, 10:30ean. Horra joateko, helbide honetara idatzi beharko da: *kukumikuelkarte@gmail.com*.

Irailaren 23a, astelehena, Kuku Miku elkartearen 18:00etan.

OÑATI 'Espetxean nengoela ni bisitatzen etorri zineten'

Espetxe pastoralak antolatuta, Jose Angel Martinez de Bujanda Arabako espetxe kaperauak egingo du hitzaldia.

Irailaren 24a, martitzena, kultura etxean 18:30ean.

ARRASATE Motociclón

Madrilgo Motociclón laukotea agur bira egiten dabil; bira horren barruan, geldialdia egingo dute Arrasaten. Euren batera Madrilgo Aulladores eta Arrasateko Bitter Honey igoko dira taula gainera. Punk-rock kontzertu berezia eskainiko dute. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI

Ruper Ordorika

Musikari oñatiarrak jaiote-
rrian egingo du emanaldia.
Gaztelekuan izango da, eta
kantu ezagun eta bereziak
eskainiko ditu. Gainera, lite-
keena da urrian plazaratuko
duen *Azukre koxkorrak* lane-
ko kanturen baten aurrera-
pena ere eskaintzea. Sarrerak
egunean bertan, 8 euroren
truke.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan 22:30ean.



GOIENA

BESTELAKOAK

ARRASATE Mugikortasun Astea: **Birzikleta Azoka**
Birzikleta Azoka Seber Altuben egingo dute; Biteri plazan, aldiz, segway, trikke eta roller zirkui-tua eta erakusketa jarriko dute. Erakusketa izango da: *Emisio txikiko ibilgailuak, mugitzeko beste era bat*.
Bihar, zapatua, Seber Altuben eta Biteri plazan 10:00etan.

ESKORIATZA Mugikortasun Astea: **bizikleta martxa**
Mugikortasun Astearen barruan urteroko hitzordu bilakatu den Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikleta martxa egingo dute. 10:00etarako egin dute hitzordua plazan, eta handik Aretxabaleta-rantz abiatuko dira; hango txi-rrindulariak hartu ostean, Arra-satera joango dira. Bueltan, Torrebason egingo dute geldiuenea. Parte-hartzaileen artean hama-rretakoa banatzearekin batera, abentura-jolas parke berria inau-guratuko dute han.
Etzi, domeka, Herriko plazan 10:00etan.

ESKORIATZA Mugikortasun Astea: **goitibehera lasterketa**
Apotzagan egingo dute goitibehe-ra jaitsiera. Euskal Herri maila-ko ligarako puntuagarria izango da Eskoriatzako lasterketa. Apo-tzaga eta Intxaurtxueta artean izango da ibilbidea.
Bihar, zapatua, Apotzaga eta Intxaurtxueta artean 15:30ean.

DEIA

OÑATI Gure Esku Dago
Oñatiko Gure Esku Dago ekime-naren aurkezpena egingo dute. Nazioen erabakitzeko eskubidea-ren alde lan egiten dute.
Bihar, zapatua, Foruen plazan 12:30ean.

OÑATI San Migeletako V. mus txapelketa
Izen-ematea 15:30etik 16:15era izango da.
Bihar, zapatua, Onako plazatxoan 16:30ean.

OÑATI Bolajoku txapelketa
San Migel jaien barruan Bolajo-ku txapelketa egingo dute.
Etzi, domeka, San Martinen 16:00etan.

OÑATI Aire libreko margo lehiaketa
Aire libreko 11. mago lehiaketa egingo dute. Sari banaketa 14:30ean izango da kultura etxean.
Etzi, domeka, Herriko kaleetan 10:00etan.

IZEN-EMATEA

BERGARA Helduentzako antzerki ikastaroa
Jardun euskara elkarteak anto-latu duen helduentzako antzerki ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroa urriaren 2an hasiko da (2014ko ekainera arte). Irakasleak Zurrumurru antzerki taldeko kideak izango dira. Eskolak eguaztenetan izan-go dira, 19:30etik 20:30era. Prezioa: 12 euro hilean (bazkideek 10 euro).

Izena emateko: jardunkultura@topagunea.com helbidean edo 943 76 36 61 zenbakian.
Gaur, egubakoitza, Jardun euskara elkartean 10:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE 'Egin zure pelikula!' film laburrak egiteko tailerra
Ibai Zangitu aretxabaletarrak emango du goiz eta arratsaldez, bi saiotan, izango den ikastaroa. Goizeko saioan alde teorikoa emango da (gidoia zelan idatzi, muntaia eta abar) eta arratsaldez grabazioak egingo dira kalean.
Bihar, zapatua, AEDko egoitzan 11:00etan.

ARETXABALETA Irrintzi ikastaroa
Loramendik antolatuta irrintzi ikastaroa egingo dute. Izen-ema-tea izango da: 5 euro bazkideen-dako eta 6 euro gainerakoenda-ko.
Bihar, zapatua, Udaletxe zaharrean 10:00etan.

AZOKA

OÑATI Mendiko kalean 'shopping gaua'
Mendiko kaleko lau dende *shopping gaua* egingo dute, 20:00etatik 22:00etara. Osi Kiro-lak, Garai Harategia, Maibi Dekorazioa eta Ehungintza eta Beloki dende antolatu dute azoka, eta Amaia Diaz de Monas-teriogurenen laguntza izango dute. Pintxo-poteoa, musika, zozketa, eta gehiago...
Gaur, egubakoitza, Mendiko kalen 20:00etan.

ARRASATE AEDri eta Zahar Berriri laguntzeko postua
AEDri eta Zahar-berriri lagun-tzeko postua jarriko dute Bite-ri ondoan. Euskarazko liburu, CD eta DVDak, saiheski pin-txoak, sagardoa eta ardoa... egongo da.
Bihar, zapatua, Biteri plazan 11:00etan.

ARRASATE ElkarTruke Azoka
Denetariko objektuak (arropa, liburuak, jokoak, etab.) trukatze-ko azoka egingo dute. Txoko berezia egongo da, Maritxu Kajoi festari begira, dotore-dotore janz-teko arropa, apaingarri eta bes-telakoekin.
Bihar, zapatua, Azoka Plazan 10:00etan.

ZINEMA

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA Ahora me ves Zapatuan: 19:30, 22:00. Domekan: 19:30. Astelehenean: 20:30. BERGARA ZABALOTEGI Un mundo de fantasia Domekan: 17:00. Flight Domekan: 19:30. Un buen partido Eguztiena: 20:00. OÑATI KULTURA ETXEA La mejor oferta Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30. Domekan: 19:30, 22:30. Astelehenean: 19:30. EIBAR COLISEO Guerra mundial Z Zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30. Domekan: 17:00, 20:00. Astelehenean: 20:30. El llanero solitario Egubakoitzean: 16:30, 19:30, 22:30. Domekan: 17:00, 20:00. Astelehenean: 20:30. COLISEO ANTZOKIA Monstruos University Zapatuan eta domekan: 17:00. Asalto al poder Zapatuan: 19:45, 22:30. Domekan: 20:00. Astelehenean: 20:30. GASTEIZ FLORIDA RIP Departamento de policia mortal Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30. Epic: el mundo secreto Egubakoitzean: 17:00. Zapatuan eta domekan: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 18:00. Omnivoros Egubakoitzetik domekara: 18:50, 20:40, 22:30. Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30. Mud Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30. Una casa en Corcega Egubakoitzetik eguenera: 20:00. La gran familia española Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30. Therese D Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30. Rush Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30. Percy Jacson Egubakoitzean: 17:00. Zapatuan eta domekan: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 18:00. El último concierto Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30. GORBEIA Justin y la espada del valor Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:15, 22:15. Zapatuan, baita: 0:15. Zapatuan eta domekan, baita: 16:15. Astelehenetik eguenera: 18:15, 20:15. Rush Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:30. Percy Jacson Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:10. Zapatuan eta domekan, baita: 15:45. Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:00. Asalto al poder Egubakoitzetik domekara: 18:40, 21:20. Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:20. La gran familia española Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30, 22:40. Zapatuan, baita: 0:45. Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:45. Cruce de caminos Egubakoitzetik domekara: 22:20. Riddick Egubakoitzetik domekara: 22:00. Astelehenetik eguenera: 20:10. Epic Egubakoitzetik domekara: 17:45. Astelehenetik eguenera: 18:10. El llanero solitario Zapatuan: 0:00. Aviones Zapatuan eta domekan: 15:30. Elysium Egubakoitzetik domekara: 19:45. Guerra mundial Z Zapatuan: 0:30. Los pitufos 2 Zapatuan eta domekan: 16:30. Gru 2 Zapatuan eta domekan: 16:00. Monstruos University Zapatuan eta domekan: 16:30. BOULEVARD RIP departamento de policia mortal Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40. Astelehenetik eguenera: 18:40, 22:40. RIP 3D Egubakoitzean eta zapatuan: 00:40. Zapatuan eta domekan, baita: 16:40. Rush Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:35. Jobs Egubakoitzetik domekara: 18:50, 21:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:10. Zapatuan eta domekan, baita: 20:15. Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:25. Justin y la espada de valor Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30. Zapatuan eta domekan, baita: 16:30. Justin y la espada de valor 3D Zapatuan eta domekan: 15:30. Curce de caminos Egubakoitzetik domekara: 19:45. Astelehenetik eguenera: 17:30. Asalto al poder Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00. Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:10. Riddick Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:20, 22:25. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30. Zapatuan eta domekan, baita: 16:10. Astelehenetik eguenera: 18:15, 20:20. Percy Jackson Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:15, 22:30. Zapatuan eta domekan, baita: 16:05. Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:15. Percy Jackson 3D Egubakoitzean eta zapatuan: 0:35. Dolor y dinero Egubakoitzean eta zapatuan: 0:25. Epic: el mundo secreto Egubakoitzetik domekara: 18:00. Astelehenetik eguenera: 18:00. Elysium Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:15. Astelehenetik eguenera: 20:00. Guerra mundial Z Egubakoitzean eta zapatuan: 0:30. Tu eres el siguiente Egubakoitzean eta zapatuan: 22:35. Astelehenetik eguenera: 20:30. El llanero solitario Egubakoitzean eta zapatuan: 22:40. Astelehenetik eguenera: 19:50. Aviones Zapatuan eta domekan: 15:45. Monstruos University Zapatuan: 15:45. Gru 2: mi villano favorito Domekan: 15:45. Los pitufos Egubakoitzetik domekara: 17:30.	Asalto al poder Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00. Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:10. Riddick Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:20, 22:25. Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30. Zapatuan eta domekan, baita: 16:10. Astelehenetik eguenera: 18:15, 20:20. Percy Jackson Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:15, 22:30. Zapatuan eta domekan, baita: 16:05. Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:15. Percy Jackson 3D Egubakoitzean eta zapatuan: 0:35. Dolor y dinero Egubakoitzean eta zapatuan: 0:25. Epic: el mundo secreto Egubakoitzetik domekara: 18:00. Astelehenetik eguenera: 18:00. Elysium Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:15. Astelehenetik eguenera: 20:00. Guerra mundial Z Egubakoitzean eta zapatuan: 0:30. Tu eres el siguiente Egubakoitzean eta zapatuan: 22:35. Astelehenetik eguenera: 20:30. El llanero solitario Egubakoitzean eta zapatuan: 22:40. Astelehenetik eguenera: 19:50. Aviones Zapatuan eta domekan: 15:45. Monstruos University Zapatuan: 15:45. Gru 2: mi villano favorito Domekan: 15:45. Los pitufos Egubakoitzetik domekara: 17:30.
---	---

KRIKA

Misterioaren erakarpena

4 urteko bi mutikok gizon misterioitsu bat ezagutuko dute irla batean. Horien artean sortzen diren harremanak izango dira filmeko ardatz nagusia. Adin horrekin, normalean, haur izatetik heldu izatera eramaten gaituen bidaia hasten da. Bizitzak duen sakontasunaz jabetzen hasten gara: familia, ingurua, sortzen diren momentu latzak... Eta, aldi berean, oraindik bizirik daukagu fantasia, ametsak eta jokoan eragina. Ezaugarri horiek oso argi igartzen dira Ellis pertsonaian: gurasoen arteko harremanak nahiko kili-kolo daude, eta euren inguruko giroa nahiko grisa da. Halako batean gizon misterioitsu bat agertuko da, Mud izenekoa. Mutikoak ez du gizona larregi ezagutzen. Polizia eta pertsona talde bat atzetik ditu gizon bat hil izana leporatuta. Hilketa berak maite duen emakume bat defendatzeko izan zela dio eta mutikoari laguntza eskatuko dio, irlatik bere neska maitatuarekin ihes egiteko. Horiek dira osagai guztiak. Ellisek abentura arriskutsu baten parte hartzeko aukera izango du. Heriotza, amodio erromantikoa eta ezezagunak

MUD ★★★★★

Zuzendaria: Jeff Nichols.

Herrialdea: AEB.

Aktoreak: Matthew McConaughey, Tye Sheridan, Reese Witherspoon.

sortzen duen erakarpena. Denak balio dio mutikoari bizi duen bizitza grisetik ihes egiteko. Mutikoarengan urduritasun eta liluramendu sentimenduak nahasiko dira. *Mud*-en ez daude gauzak oso garbi. Ez dira ematen datu gehiegi herrian agertzen diren pertsonaiei buruz, ezta inguruan bizi diren pertsonaiei buruz ere. Ez dakigu garbi non dagoen egia, ezta pertsonaien arteko harremanak eurek esan duten bezalakoak diren ala ez. Ikusleak duen informazioa mutikoak duena da. Istorioa bere ikuspuntutik heltzen zaigu. Filmean thriller kutsua sumatzen bada ere, ez du erritmo eta nortasun bizkorra. Generoaren alde kezagarria sentitzen dugun arren, garrantzizkoena da pertsonaien artean sortzen diren sentimenduzko loturak azaltzea eta hori bikain heltzen zaigu.

ANTONIO ZABALA



LOMEJORDELROCKESTATAL.COM



goiena

2013-09-20

BUKATZEKO

Marimaistra, hiztunon laguntzailea

- Euskararen gaineko kezka, galdera eta zalantzak jaso eta erantzuten ditu Marimaistrak
- Goiena Telebistako 'Magazinea' saioan eta 'Marimaistra.com' blogean agertzen da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Oraingo astetik hasita, Goiena telebistan eta Interneteko Youtube atarian, lagun berria dute euskal hiztun guztiek. Youtuben utzi duen agurak zeresan handia eman du. Marimaistra dela esaten du berak, eta euskararekin hiztunek dituzten kezka, zalantza eta galderak argitzera datorrela. Goiena telebistako *Magazinea*-n eta *Goiena.net*-eko blog baten, *Marimaistra.com*-en dabil lan horretan.

Hizkuntzari "triskantzak"

Bizitza pribatua oso ondo gordetzen du Marimaistrak. Kostata, baina bere etxean hartu gaitu, galdera gutxi batzuk egiteko. Mitxelena XVI.aren irudi erraldoi baten azpian eserita hartu gaitu.

Bere burua "euskaldun zabarron lagun eta laguntzaile" gisa aurkezten du, eta honakoa diosku: "Badakit jende asko bizi dela euskaraz eta euskararekin arduratuta, eta sarritan ahalegin handia ere badela. Baina kariño guztiarekin bada ere, batzuetan ez dugu hizkuntza behar bezala zaintzen, eta sekulako triskantzak egiten dizkiogu. Horiek konponzen laguntzera nator ni".



Marimaistra, bere saltsan. | GOIENA

"Euskaldun zabarrak dituzten galdera, kezka eta zalantza" jasotzen hasi da Marimaistra, eta horretarako hiru bide ditu: bere Twitter kontua (@Mari_mais-tra), emaila (galdetu@marimaistra.com) eta WhatsApp (668 88 91 92 zenbakian).

Youtuben, 1.600 bisita

Zalantza asko izaten ditugu hiztunok egunero. Marimaistrak ipintzen digu adibide bat: "Futbolearen jolasak egiten da edo jokatu? Eta musean?". Bada ordua buruan beti jira eta buelta izaten diren zalantza horiek ateratzeko

eta Marimaistrari galdetzeko. Youtuben bi bideo dauzka, oraingoz (www.youtube.com/user/marimaistra helbidean), eta, denetara, 1.600 lagunek baino gehiagok ikusi dituzte. Jende asko dagoeneko animatu da galderak egitera; horregatik, Marimaistrak esaten digunez, "lan asko pilatu" zaio dagoeneko, "baina hori ona da".

Hirukote baten babesa

Lan handi hori egiteko, Marimaistra ez dago bakarrik: "Hirukote bat dago atzean: Leire Narbaiza, Joxe Rojas eta Iban Arantzabal. Hiru horiei bazkaltzen ematea modukorik... Eta bazkaloste horietako batzuetan, animatu, eta joan izan dira Goienako platora. Hango jendearen laguntzaz da posible Ergatibo Sainduaren argia zuen pantailetaraino heltzea. Narbaizak kamera aurrekoetan laguntzen dit eta Rojasekin batera gidoiak ere egin behar izaten dira. Gero, Pernan Goñi lagunak ere erretratu eder-ederak egin dizkit...", azaltzen digu Marimaistrak.

Azken gomendio bat ere badauka Marimaistrak: "Euskararik ederrena, egin egiten dena. Barandiaranen betaurrekoek argi diezazutela bidea!".

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Ez etxean geratu

Azkenaldian sarri entzun dut irratan. Iragarkiak, gutxi gorabehera, horrela dio: "Ez bazara etxean geratu ez elurra ari zuenean, ezta izotza egin zuenean ere, ezta frantsesek inbaditu gintuztenean ere... Orain etxean geratuko zara? Esan ezetz. Ez, ez, ez! Eta gehiago, jakinda X merkataritza-gunean ditugun prezioak" Deialdia egiten dute. Krisi garaian. Ez gaitzen etxean geratu. Zertarako? Kaleraren irten eta protesta egiteko? Ez. Diruari lotuta ez dauden plan originalak pentsatzeko? Ez, ez, ez. Merkataritza-gunera joan, pelikula komertzial bat ikusi eta izoztutako patata erreak jateko. Denok batera. Merke-merke. Frantsesek inbaditu gintuztenean bezalaxe. Berdin-berdin.

Asteazkenean horrelako merkataritza-gune batean egon nintzen. Lepo zegoen. Astegun buruzuria izanda ere. Han ez zegoen krisi usainik. Promoziorako *Ni ez naiz inozoa* leloa erabili izan duen dendan, esaterako. Inozoa etxean gelditzen dena izango da, liburu bat irakurtzen. Jolasak asmatzen dituen, umeei. Mendira doana. Arrautzak aldameneko baserriarriaren erosten dizkiona, garestiagoak izan arren.

Frantsesek ez dakit, baina amerikarrek bai. Inbaditu egin gaituzte. Ia oharkabea. "Konsumitzen dut, beraz banaiz". Pentsatu? Zertarako pentsatu?

Erreflexuak
ez zaitzala
ezkutatu.

mó
betaurreko graduatuak
erreflexuen aurkako
Beslayt kristalekin

beslayt 67€

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuekin pilatu.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan